

# Goienkaria

2008ko urriaren 3a > Egubakoitza > VIII. urtea > 347. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Urtero 50 planeta deskubritzen dira; Lurraren antzeko bat, laster"

Javier Armentia  
Astrofisikoa > 09



**G2a**

The Beatles, erakusketa baten hil osoan > 43-44

**BERGARA**  
Onartu dituzte 32 etxebizitza tasaturen zozketako oinarriak > 24

**PILOTA TXAPELKETA**  
Bergarar bat eta antzuolar bat, San Migeleko finalean > 42

**GOITB**  
Magazin bat izango du, Pello Zabalen kolaborazioarekin > 51

**OSASUNA** > GRIPEA

## Gripearen aurka, 11 mila txerto

Ibarreko osasun zentroak hasi dira txertoak ipintzen; 11.300 dituzte > 06

**ENPRESA** > INAUGURAZIOA

## Mondragon, energien sektorean

Galdara eraginkorrak egingo dituen lantegia inauguratu dute Tolosan > 05

**OROIMENA** > GERRA

## Gerrako gudariei omenaldia

Eguaztenean, Pedrotxo Gartzia eta Teresa Harina guda-riak omendu zituzten Bergaran. Celestino Uriarteren gaineko lanaren aurkezpena etorri ziren. Bihar, Josetxiki aretxabaletarraren oroitzapen liburua aurkeztuko dute. Jokin Intza ere omendu dute, bere heriotzean. > 07, 32, 47

**AZPIEGITURAK** > EIBAR-GASTEIZ

## AP-1en irekiera Aste Santura atzeratu da, lur-jausiengatik

**ESKORIATZAN** Uztailean, lur-jausia izan zen Apotzagako tunelean; horrek eragin du oraingo atzerapena

**LANEAN** Bide Azpiegituretako diputatuak esan zuen Araba eta Eskoriatzako mugako zatia amaitzeaz dagoela

**URTEBETE** Beste atzerapen bat egon zen, aurtengo abendura, Isuzkitzako tunelean arazoak egon zirelako > 04



ARDURADUNAK Ignaziotar Lurraldearen proiektuko bailaretako, Baturako eta Iraurgi Lantzeneko ordezkariak aplikazioa erakutsi zuten.

MIREN ARREGI

### Bailarako eta inguruko turismo informazioa, orain eskuko telefonoan

Debagoieneko, Urola Erdiko eta Urola Garaiko -Ignaziotar Lurraldearen garapen proiektua osatzen dutenak- turismo informazioa poltsikoko telefonoan jasotzeko aukera dago orain, eskualde horiek, Ignaziotar Lurraldearen proiektuak eta Batura

Mobile Solutions-ek aurkeztu berri duten aplikazio bati esker. Non jan edo lo egin, zer bisitatu... informazio hori eta gehiago jasotzeko hainbat modu dago: bluetooth bidez, SMS bidez, GPRS konexioz, ordenagailutik edo telefono batetik bestera. > 06

### AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarrizketa > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-41
- Kultura > 45
- Sailkatuak > 46
- Eskelak > 47
- Denbora-pasa > 48
- Gazteak > 50
- Komunikazioa > 51
- Telebista-Irratia > 52
- Non-zer > 54-55

Kuga gama, kontsumoa: 6,3-6,4 l/100 km. CO2 emisioak: 165-169 g/km.

Semaforo batek zergatik izan behar du semaforo antzik? Pentsa ezazu izara zuri bat duzula.

Ford Kuga kugarevolution.com

**MUGARRI AUTOAK**  
Araba etorbidea, z/g  
ARRASATE-MONDRAGON

Feel the difference

Arkauz zure etxea da.

**GRUPO ARKAUZ**  
ARETXABALETAKO ARRASATE  
1950-2008

- ARKAUZ MUEBLES ARETXABALETAKO
- ETXE MOBEL ALTZARIAK ARRASATE
- ARKAUZ COCINA INTEGRAL ARETXABALETAKO
- ARKAUZ ELECTRODOMESTICOS ARETXABALETAKO

FAOR banatzaile ofiziala expert banatzaile ofiziala

HIZKUNTZA &gt; EUSKARA

# Mahai bueltan edo paseoan, euskara ahoan

**TALDEAK** Euskaraz berba egiteko gogo eta horretarako lagun beharra dutenak astean behin elkartzen dira taldeka

**HIRU EKIMEN** Debagoienean Berriketan, Zahar Berri eta Barriketan egitasmoak daude abian euskararen erabilera bultzatzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; BERGARA

Gurean, euskara ikasle askoren dako zaila da ikasketa eremutik kanpo, erabili ezean, hizkuntza menderatzea. Beste batzuek, ikasle ez izan arren, euskaraz berba egiteko joera galdua dute. Bestalde, bada jendea dakien euskara beste batzuei irakasteko edo berba eginarazteko baliatzeko gertu dagoena. Horretarako ekimen bereziak sortu dira ibarrean. Euskaldun zaharrak eta berriak elkartu eta modu informalean, kafe bat hartuz zein paseatuz astean behin berbaldia egiten dute.

Berriketan Bergaran, Barriketan Aretxabaletan eta Zahar Berri Arrasaten. Horiek dira egitasmoen izenak. Maitane Arizabaletak Bergarako Jardun elkartetik Berriketan egitasmoa koordinatzen dihardu. Hark azaldu digu zein den horrelako proiektuen helburua: "Euskararen erabilera bultzatzea da asmoa, hizkuntza bat ikasteko metodorik onena erabilera delako. Motibazioak bultzatuta euskara ezagutzen eta erabiltzen hasi diren helduak hiztun oso izatera hel daitezke. Hau da, motibaziotik abiatuta ezagutzera eta erabiltzera doan ibilbideari ekin diote".

JOAN ZEN URTEAN IA 40 TALDE

Asko dira izena eman dutenak, baina euskaraz berba egiteko dauden lagun gehiago ere gustura hartuko lituzkete. Aretxabaletan iaz 11 talde egon ziren, 39 lagun gutzira; Bergaran 15 talde; eta Arrasaten 12 talde. Adina, gustuak eta ordutegiak hartzen dituzte kontuan taldeak osatzeko. Gehienetan hiru edo lau lagunekoak izaten dira eta talde bakoitzean egoten da euskaldun zahar bat, gidari lanak egiten dituenak.

Ekimenean zeinek parte hartzen duen galdetuta, arduradunek esan digute askotariko jendea dagoela. "Asko dira euskaltegian goi mailetan dabilzan ikasleak, beste batzuk urtetan euskaltegian ibili direnak eta utzi ostean ikusi dutenak euren euskara maila galtzen dihardutela; edo ohitu-

**"Motibaziotik abiatuta ezagutza eta erabilera bideari ekin diote euskaldun zaharrek eta berriek"**

**"Apurka lagun egin dira eta edozeri buruz egiten dute berba zerbait hartuz"**

**"Euskaldun zahar batzuek euskara erabiltzeko ohitura hartu dute ekimen horiekin"**

ra galdu eta moldakaitz samar sentitzen direnak euskaraz berba egiteko; badira euskaldun zaharrak ez dutenak izan ohiturarik erabiltzeko eta Barriketan bidez ohitura hartu dutenak", esan digu Barriketaneko koordinatzaile Gurutze Larrinagak.

Zahar Berriko Ainhoa Arregi ere bat dator esatean denetarik jendea dagoela: "Euskaldun zaharrak dira gehienak, betidanik euskaraz berba egin dutenak, eta eurek gidatzen dute taldea. Badago kasu bat euskaldun berri moduan hasi zena eta orain gidari papera jokatzen duena. Gainontzean, euskaldun berri gehienak euskaltegiko ikasleak dira, baina badira Arrasatetik kanpokoak euskara ikasi arren euren ingurunearengatik ez dutenak erabiltzen, eta horiek taldeetan.

Adinari dagokionez, batez beste adina 30-35 urte artekoa da, baina bada 60 urtekorik, eta gazteenak 27 urte ditu".

LAGUNAK EGIN

Astean behin euskaraz berba egiteko elkartzea da baldintza bakarra eta gehienak zerbait hartzeko gelditzen direla esan digute arduradunek. "Kafe baten edo trago baten bueltan berba egiten dute gehienek, baina badira paseatzeko geratzen direnak edo erakusketaren bat ikusteko... Talde bakoitzak erabakitzen du zer egin", dio Maitane Arizabaletak.

Hizketarako gaiak ere asko dira. "Apurka-apurka lagun egin dira eta edozeri buruz egiten dute berba: familia, gertaerak, herriko gorabeherak...", esan digu Gurutze Larrinagak.

EKIMEN BERRIAK

Euskaldun zaharrak eta berriak elkartzen diren taldeak daude, baina badute bestelako taldeak osatzeko asmoa. Aretxabaletan, Aretxarte dendarien elkartekoekin egin dute berba dendarien arteko harremanak euskaraz izan daitezen ekimenean bat abiarazteko. Bergaran, iaz sortu zen Hika lagun taldea. Hika ikastaro baten ostean, hitanoaren erabilera bultzatzeko talde bat elkartzen zen berriketarako eta aurten ere norbait gertu balego abiaraziko luke. Asmo hori Arrasatekoek ere badute esku artean. Guraso euskaldun zahar eta berriekin taldeak sortzea da bi ekimen horien beste asmo bat. Oraindik zehazteke dago nola egingo duten, baina ideia bat da, esaterako, umeak begiraleekin egotea gurasoak berbetan daudenean.

Gustura daude partaideak eta horren adierazle da urtetik urtera taldeek jarraitu egiten dutela. Baina Ainhoa Arregiren esanetan bada traba bat: "Gehienek euren eremuetan ez daukate norekin euskaraz berba egin eta horregatik jotzen dute horrelako ekimenera, baina taldetik kanpo gutxi erabiltzen du euskara".



Luz Telleriartek, Arantza Egibarrek eta Hermi Gomezek euren esperientziaren berri eman

## Urtean barrena egiten dituzten aisialdi ekintzak

### ASTEBURUKO EKINTZAK

#### Urriak 3, egubakoitza

Aurkezpen afaria Bergaran.

#### Urriak 24, egubakoitza

Aurkezpen afaria Arrasaten.

#### Azaroak 22, zapatua

Mirandaolako burdinolara bisita.

#### Urtarrilak 30, egubakoitza

Sagardotegira irteera.

#### Martxoak 14, zapatua

Mendi buelta.

#### Ekaina (Eguna zehazteke)

Mintza Eguna.

### EUSKALTEGIKO EKINTZAK

#### Urriak 16, eguna

Oporretako diapositiba emanaldia eta Zahar Berriren aurkezpena.

#### Azaroak 20, eguna

Asisko Urmeneta.

#### Abenduak 18, eguna

Talo txapelketa.

#### Urtarrilak 15, eguna

Hitzaldia: *Euskal Herriko inauterik.*

#### Otsailak 12, eguna

Torrada txapelketa.

#### Martxoak 12, eguna

Ipuin kontalaria.

#### Apirilak 23, eguna

Mahai joko txapelketa.

#### Maiatzak 14, eguna

Ingurugiro eskolara bisita.

#### Ekainak 11, eguna

Koktel eta zuku lehiaketa.

Dena ez da euskaraz berba egitea, eta euskaraz gozatzeko bestelako ekintzak ere antolatzen dituzte. Zahar Berrikoek eta Berriketanekoek bost hitzordu egiten dituzte elkarrekin ikasturtean barrena: afariak, kultura eta mendi irteerak eta Mintzaegunera txangoa. Azken horretan elkartzen dira Euskal Herrian barrena mintza praktika taldeetan diharduten lagunak. Bestalde, Arrasaten, *euskaltegiko ekintzak* deitutakoak egiten dituzte. Euskaltegietako ikasleei zuzenduta daude, batez ere, gehienetan euskaltegitik kanpo egiten badira ere. Aretxabaletako Barriketanekoek ere antolatzen dituzte ekintza bereziak noiz edo noiz. Bestalde, asmoa dute herrian, Arkupe kultura etxean, esate baterako, antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko.



digute euskaraz berbetan, Bergarako Irala kaleko terraza batean.

XABIER URTZELAI

#### TERRAZAN BERBETAN

Egitasmo horietan dihardutenen esperientzia gertutik ezagutzeko, zerbait hartzeko eta euskaraz berba egiteko hitzordua egin genuen Bergaran Arantza Egibarrekin, Hermi Gomezekin eta Luz Telleriartekin. Izan ere, eguraldi ona dagoenean paseatuz jarduten dute berbetan, eta bestela kafetegian. Euskaldun zaharra da Arantza, Luzek dio bera euskaldun zahar-berria dela eta Hermi, segoviarra izanik, euskaltegian ikasitakoa. Berriketan egitasmoan nola hasi ziren esan digute hirurek.

"Umetan, sei urtera arte euskaraz baino ez nuen berba egiten. Gero, gerra denboran, kanpoan bizi izan nintzen eta etxean euskaraz egin arren kanpoan ez, eta adin horrekin oso erraza da nork bere hizkuntza ahaztu eta beste bat ikastea. Euskaraz dena ulertzen nuen, baina etxeko euskara. Urtetan aurrera joan eta erretiroa hartutakoan euskaltegian hasi nintzen. Gero, Berriketan egitasmoaren berri izan nuen eta horrela hasi nintzen", kontatu digu Luz Telleriartek.

Arantzak eta Hermik aurkezpenera joanda izan zuten ekimenaren berri. "Kuriostatea sentitu nuen eta arratsaldea libre daukadanez pentsatu nuen nire denboratik astean ordubete honetarako ematea polita izan zitekeela. Beldur pixka batekin hasi nintzen, baina gero jendea ezagutu nuen, jende jatorra", esan digu Arantzak.

#### Oraindik ere, aukera izena emateko

Laster hasiko dira ibarreko hiru herritan berba lagun taldeak asteroko hizketaldiekin. Baina norbaitek parte hartu nahi badu, aukera dauka oraindik egitasmoetan izena emateko.

#### > ARETXABALETA

Leintz Udal Euskaltegia  
Nafarroa kalea 2 eta 4  
943 79 21 68

#### > ARRASATE

AED euskara elkarteak:  
Paulo Uranga 4  
943771228  
'goiena.net/blogak/zaharberri'

#### > BERGARA

Jardun elkarteak:  
Errotalde jauregia z/g  
943 76 36 61  
'goiena.net/blogak/berriketan'

Hermik kontatu digu Segoviatik etorri zela zazpi urterekin: "Orduan debekatuta zegoen euskaraz egitea. Beti izan nuen ikasteko gogo eta 18 urterekin gaueskoletan hasi nintzen. Umekin euskaraz egin arren, gainontzean apenas erabiltzen nuen. Gerora, euskaltegian hasi nintzen berriz. Ondoren izan nuen Berriketan asmoaren berri eta animatu egin nintzen".

#### JENDE JATORRA ETA EUSKAL GIROA

Gurekin berbetan euskararekin duten esperientziak jardun zuten batik bat, baina askotariko gaiez hitz egiten dutela esan digute: "Zinemaz, kulturaz, eguneroko gaiez, asteburuko planez... Etxeko gaiez izan ezik, gainontzean denetariko gaiak ibiltzen ditugu ahotan".

Asteroko hizkordutik kanpo ere Arantzak euskaraz egiten du berba, eta hizketaldi horietan hitz jariora arindu arren, Arantzak eta Hermik ez dute aukera bera. "Nire lagunaren artean batek baino ez daki eta etxean ere gehienetan gaztelaniaz egiten dut. Horrela ohitu gara eta behin adin honetan aldatzea zaila da. Hala ere, irakurtzea nire bizioa da eta egunero zertxobait euskaraz irakurtzen saiatzen naiz, baina gehienetan hiztegia behar dut", dio Luzek.

Hermik esan digunez, "etxean alabarekin euskaraz egiten dut, aitarekin gaztelaniaz eta lanean, erresidentziako harrean lan egiten dut eta telefonoz zertxobait euskaraz egin arren, gutxi egiten dut. Dena dela, lanerako behar dut euskara jakitea".

Euskara batuan zein Bergarako hizkeran, bata bestearengandik ikasiz gustura jarduten dute euskaraz eta jendea animatu nahi dute parte hartzera: "Merezi du. Jende jatorra eta giro euskalduna ezagutu ditugu eta inguruan aurkitu ez dugun euskaraz hitz egiteko aukera ere eman digu Berriketanek".

## Gazte ikastaroak



#### SOFTWARE LIBREA EUSKARAZ

Urriaren 16tik abenduaren 4ra arte  
eguenetan, 18:00-20:00  
KulturAten



#### GAUR EGUNGO DANTZA NERABEEI ZUZENDUTA (13-18 URTE GUTXI GORABEHERA)

Maite Albesen eskutik  
Urriaren 13tik abenduaren 15era arte  
Asteleneetan, 18:00-20:00  
KulturAten



#### LARRUGINTZA

Urriaren 14tik abenduaren 2ra arte  
Martitzenetan, 18:00-20:00  
KulturAten

**Matrikula: 20 euro / 12 euro ikasle edo langabeentzat**

**Izena emateko: Gazte Bulegoan (943 25 20 65)**

***gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net***



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■



Eskoriatzako Apotzagako tuneleko irteeran izan zen lur-jausia, joan den uztailen.

GOIENKARIA

AZPIEGITURAK &gt; AP-1

# Aste Santura arte ez dute autobidea irekiko, beste lur-jausi baten ondorioz

Uztailen lur-jausia izan zen Eskoriatzako Apotzagako tunelean; horrek AP-1 autobidearen inaugurazioaren beste atzerapen bat ekarriko du

MIRIAN BITERI &gt; BERGARA

Urte amaieran zabaldu gura zuten Eibar eta Gasteiz 25 minutuan lotuko dituen autobidea, baina, oraingoan ere, ezinezkoa izango da aurreikusitakoa betetzea. Apirilera arte atzeratu dute irekitze data.

Iragarpen hori joan den astelehenean egin zuten Gipuzkoako Diputazioako Bide Azpiegiturarako diputatu Eneko Goiak, Batzar Nagusietan. Bidegiko

zuzendari Borja Jauregi izan zuen ondoan. Goiak jakinarazi zuen joan den uztailen, Eskoriatzako Apotzagako tunelean, lur-jausia izan zela eta horrek beste atzerapen bat eragin zuela.

Lur-jausia Apotzagako tunelaren irteeran gertatu zela esan zuen Jauregik. Tunelaren lehenengo 300 metroen indusketa lanetan arazorik ez zela egon eta lur-jausia azken metroetan gertatu zela azaldu zuen. Indusketa lanekin

berriro hasi aurretik, mendi-mazela hormigoiarekin sendotzen dabilta langileak. Jauregiren esanetan, urriaren amaiera arte jardungo dute horretan eta jarraian, leherketekin berriz hasi eta azken metroak hormigoi armatuarekin gaineztatuko dituzte. Lur-jausi gehiago ekidin gura dira horrela.

## ZARIMUTZEN ERE

Autobidearen gaineko beste hainbat datu eman zuen Goiak Batzar Nagusietan. Adierazi zuen Eskoriatzako Arabako mugarekin lotzen duen tartea amaitzeaz dagoela eta hainbat tokitan hasi direla dagoeneko bide-zorua botatzen. Bestalde, Apotzagako izandako lur-jaus

sia ez da bakarria izan. 2007ko abenduaren 5ean, Zarimuzko tunelaren hegoaldeko zati handia jausi zen, Agarre baserriaren parekoa. Urte bereko urtarri-

an Izurietako auzoko Olabe baserriko lurretan, azpian egiten ziharduten tunelaren lanek eraginda, lur-jausia gertatu zen.

Jakina denez, ez da lehenengo aldian irekiera data atzeratzen dela. 2007ko urriaren Gipuzkoako Diputazioak esan zuen aurtengo amaiera arte atzeratuko zela, aurreikusitakoa baino urtebete geroago, Isuzkitzako tunelean sortutako arazoengatik. Goiaren arabera, "dena ondo badoa eta ezustekorik egon ezean" apirilera irekita egon beharko luke. Jauregiren esanetan, "gauzak ondo egin behar dira, kalitatez eta segurtasun osoz; irekiera data bigarren mailakoa da".

DATUA

# 25

MINUTU

AP-1 autobideak 25 minutuan lotuko ditu Gasteiz eta Eibar. Horren luzera 46,2 kilometrokoa da. Horietatik, hamar kilometro lur azpitik doaz.

POLITIKA &gt; AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA

## Mobilizazioak deitu dituzte egunotarako

Arrasateko plazan elkarretaratzea egingo dute gaur, eta bihar manifestazioa Bilbon

T. MADINA/M. BITERI &gt; ARRASATE

Debagoieneko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak agerraldia egin zuen martitzenean Arrasaten, azken asteotan Espainiako auzitegiek hartu dituzten erabakiak salatzen eta antolatzen diren mobilizazioetan herritarrek parte har dezaten deitzeko. Azken horren harira, bihar, zapatua, Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko dei egin zuten. Aita

Donostiatik irtengo da hori, 17:30ean. Horrez gain, gaur, Martxu Kajoi eguna, 13:30ean Arrasateko Herriko plazan egingo den elkarretaratzean parte hartzeko gonbita egin zuten.

Agerraldian, Amnistiaren Aldeko Mugimenduen 21 kide zigortu dituztela eta EAE eta EHAK alderdiak legez kanpo utzi dituztela gogor kritikatu zuten. Espainiako Estatuak Euskal

Herrian "krimena legezko" bilakatu duela salatu zuten: "Jazarpena, gerra zikina, tortura, eskubide zibil eta politikoen urraketa, oinarriko askatasun eta eskubide demokratikoen zampaketa eta preso politikoen suntsipenerako neurriak legezko egin dituzte".

## DIKTADURAN MODUAN

Joan den astean Ipar Euskal Herrian izandako atxiloketen gainean ere jardun zuten. Hala, Frantziako Estatu Espainiakoaren "bide berbera" hartzeko prest dagoela nabarmendu zuten. Ibarretzek zuzentzen duen gobernuari, gainera, Auzitegi Nazionalaren "irizpideak bereak" egitea leporatu zioten. Amnistiaren Aldeko Mugimenduen arabera: "Euskal Herrian bizi dugun salbuespen eta demokraziarik ezaren egoera orain dela 40 urteko diktaduraren parekoa da".



Prensaurrekoa eskaini zuten martitzenean, Arrasateko plazan.

TXOMIN MADINA

BERRIKUNTZA > TOLOSAN DAGO ERAIKINA

# Galdara eraginkorren fabrika inauguratu du Mondragonek

WisperGen izeneko galdara berotasuna eta elektrizitatea konbinatu eta masiboki ekoizten duen lehenengo sistema txikia da

Efficient Home Energy enpresako egoitza Tolosan dago

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Mondragonen eta Whisper Tech Limited enpresaren elkarlanari esker Efficient Home Energy (EHE) enpresaren eraikin berria inauguratu zuten martitzenean. Mondragon taldeak kapitalaren %60 menderatzen du, eta Zeelanda Berriko Meridian Energy konpainiaren filialak gainerako %40a. WhisperGen izeneko galdara eraginkorrek egiten dituen 2.700 metro koadroko fabrika Tolosan dago.

Proiektu berriarekin, Mondragonek energiaren sektorean bertako enplegua indartu gura du. Hala, 2009ko ekitaldirako 15 milioi euroko fakturazioa eta 30 pertsonarendako enplegua bermatzea aurreikusten du. Horren harira, bost urte barru, 2013. urtean, 200 pertsona baino gehiagorendako lanpostuak eta 300 milioi fakturaztea espero dute.

**GALDARA ERAGINKORRAK**

Enpresa berrian berotasuna eta elektrizitatea konbinatu eta masiboki ekoizten duten WhisperGen izeneko galdarak egingo dituzte.



Eraikinaren inauguraziora joandakoek galdara eraginkorrek barrutik nolakoak diren ikusi ahal izan zuten.

MONDRAGON

Sistemak etxeko berokuntza eta ur beroko beharrak asetzen dituen berokuntza galdara eraginkor baten moduan funtzionatzen du; eta, aldi berean, elektrizitatea sortzen du: etxean bertan

erabiltzeko edo elektrizitate sare orokorrera eroateko. WhisperGen-ek abantaila handiak eskaintzen dizkio erabiltzaileari eta ingurumenari; besteak beste, etxe baten energiaren kostu osoa %20

baino gehiago murriztuko du, gaur egun indarrean dauden sistema konbentzionalekin alderatuta; eta CO2 emisioak nabarmen murrizten lagunduko du: etxe eta urte bakoitzeko tona bat inguru. Hortaz, sistema berriak merkatu askotan berokuntza galdara tradizionalak ordezkatzeko dituela espero dute Mondragoneko eta Meridian Energy konpainiako arduradunek.

Egun, 400 WhisperGen sistema baino gehiago daude instalatuta; besteak beste, Alemanian, Erresuma Batuan, Holandan eta Frantzian. Era berean, asko dira euren herrialdeetan galdara eraginkor berriak banatzeko interesa agertu duten energia banaketako enpresa eta berokuntza sistema instalatzen duten enpresak.

## Etxe-esparruan energia garbiaren ekoizpena sustatzen dihardu Ikerlanek bi proiektutan

Ikerlan-1K4K Europako Batasunak berriki onartutako bi proiektutan parte hartzen dihardu: Alone eta H2susbuild izeneko proiektuak. Eskala txikian energia berriztagarrien ekoizpena sustatzea da bi proiektuen helburu nagusia, ondoren etxe-esparruan aplikatzeko. Era berean, ikerketa horiekin, ingurunearekiko errespetuzkoak diren energetatik hotza, beroa eta elektrizitatea lortzeko sistemak garatu nahi dituzte. Alone izeneko proiektua etxeetako hotza ekoizteko eguzki-energia termikoaren erabilera datza. H2susbuild proiektuan energia berriztagarriak erabiliko dituzte, baina hidrogenoa biltegitratuz egingo dute.

> ZERBITZUAK

### Lurraldebusen Gazteak txartela ibarreko herri gehienetan eskuragai

10 eta 24 urte arteko gazteei eta Gipuzkoako herrietan erroldatuta daudenei zuzendutako Gazteak txartelak salgai daude Bergaran (hiru tokitan), Arrasaten (lau tokitan), Eskoriatzan (toki baten), Aretxabaletan (bi tokitan), Oñatin (bost tokitan), Elgetan (toki baten) eta Antzuolan (toki baten). Aldiz, Leintz Gatzagan ez dute salmenta tokirik. Oro har, egunkariak saltzen dituzten kiosko eta estankoeetan eros daitezke gazteendako txartelak.

Lurraldebusen gazteendako jarri dituen txartelak indarrean daude eguaztena ezkerreko. Txartel berriarekin %20ko beherapena izango dute gazteek kargatzen duten euro bakoitzeko. Era berean, %40, %70 eta %90eko deskontuak izaten jarraituko dute.

> AZPIEGITURAK

### Urretxu-Bergara errepidea egingo dute datorren urtean

Beasain-Durango errepideko Urretxu-Bergara arteko zatia datorren urtera aurreratuko dute. Hala zehaztu zuen Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok martitzenean Batzar Nagusietan egindako bileran. GI-632 errepidea amaitzea "komeni" dela esan zuen, Gipuzkoako biribilgunearekin bukatzeko. Gainera, aurreratuko Foru Aldundiak 185 milioi euro bideratuko dituela Urretxu-Bergara zatia egiteko.

Bestalde, bide zati horretan hainbat aldaketa egingo dituzte, Bergara eta Antzuola arteko bidegorria egiteko eta AHTrekin bat egingo duen inguruan trazatua ekoizteko.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

TURISMOA &gt; TEKNOLOGIA BERRIAK

# Ignaziotar Lurraldeko gida turistikoa poltsikoko telefonoan

Aplikazioak turismo alorreko zerbitzu guztien gaineko informazioa eskaintzen du: zer bisita daitekeen, hotelak, jatetxeak...

JASONE ZABALA &gt; ARRASATE

Gida turistikoa poltsikoko telefonoan jasotzeko aplikazioa da Ignaziotar Lurraldea. Aplikazio hori Urola Erdia, Urola Garaia eta Debagoiena eskualdeek sortu dute.

ZER DA IGNAZIOTAR LURRALDEA?

Ignaziotar Lurraldea hiru eskualde horien garapen turistikoko proiektu bateratua da eta aplikazioak, turismo alorreko zerbitzu guztien gaineko informazioa eskaintzen du: zer bisita daitekeen, hotelak, jatetxeak, osasun zentroetako telefonoak... Turismo bulegoak itxita daudenean edo turismo bulegoa ez duten herrietan erabiltzeko egokia.

INFORMAZIOA NOLA LORTU

Aurkezpena pasa den eguaztenean egin zuten Debagoieneko Man-komunitateko egoitzan. Bertan parte hartu zuten Ignaziotar Lurraldearen ordezkari eta Man-

komunitateko Turismo batzordeko arduradun Oxel Erostarbe eta Gotzon Arzelus, Batura Mobile Solutioneko ordezkariak -aplikazioa garatu duen enpresa. Edukiak hainbat hizkuntzatan azal-

tzen dira: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Aplikazioa deskargatzeko hainbat aukera daude; horien artean, SMS bidez, 5195 zenbakira HIRUTUR hitza bidalita.



Oxel Erostarbe eta Gotzon Arzelus, eguazteneko aurkezpenean.

MIREN ARREGI

OSASUNA

## Gripearen kontra, 11.300 txerto

Gripearen aurkako txertoaren kanpaina azaroaren 15a arte egongo da zabalik

J.Z. &gt; BERGARA

Eguaztenean hasi zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gripearen aurkako txertoa jartzeko kanpaina, eta birusa iazkoaren parekoa izatea espero dute agintariek. *Gripena heltzeaz da. Jarri txertoa* leloa izango du aurtengo kanpainak. Azaroaren 15a arte izango da kanpaina. Txertoa hartu behar dutenen artean 65 urtetik gorako pertsonak, patologia kronikoak dituztenak -diabetikoak, bihotzeko gaitzen bat dutenak- eta ospitaleko langileak daude.

"11.300 txerto banatu ditugu Debagoienean. Pasa den urteko antzerako kopurua; eguaztenean hasi ziren osasun zentroetan txertoa banatzen eta hartu nahi duenak txanda hartu behar du" adierazi du Arantxa Urruzola Gipuzkoa mendebaldeko kanpainaren arduradunak.

EKONOMIA &gt; ENPRESABURUAK, EGOERA EKONOMIKOAREN AURREAN

## Erantzukizuna dutenen ahalegina eskatu du ADEGIk, egoera ekonomikoaren aurrean

ADEGIko ordezkariak adierazi dute Gipuzkoako enpresendako gaur eguneko delata "azken 15 urteetako egoera ekonomikorik txarrena"

J.Z. &gt; BERGARA

Joan den martitzenean, Gipuzkoako enpresarien elkarteko (ADEGI) presidente Eduardo Zubiaurre eta Jose Miguel Aierza ADEGIko idazkari orokorrak prentsaurrekoa eskaini zuten, gaur eguneko egoera ekonomikoa dela-eta. Egoera ez dela ona

adierazi zuten, baina, hala eta guztiz ere, "egoera txar horri aurre egiteko Gipuzkoako ekonomia eta bertako enpresak duela 15 urte baino hobeto prestatuta daude", adierazi zuen Zubiaurrek. Gehitu zuen Gipuzkoan industriak pisu handia daukela eta horrek egungo ego-

era mantentzen lagundu duela. Horregatik guztiagatik, ADEGIk eskatzen du norberak lehenbailehen dagokion neurriak har ditzala fiskaltzan, lehiakortasunean eta diru kontuetan, besteak beste.

GIPUZKOAN GEHIAGO

Elkarteen gaineko zergari dagokionez, ADEGIk adierazi du Gipuzkoako enpresek Bizkaia edo Arabako enpresek baino 4,6 puntu gehiago ordaintzen dute-

la. Gaineratu zuen datu horrek ez duela bultzatzen Gipuzkoako inbertsio eta lanbidean aurrera pausok ematera.

Amaitzeko, ADEGIk eskatu zien Gipuzkoako agintariei "etorkizunera begira dezatela; erakuts dezatela Gipuzkoako enpresa errealitate eta industrialaren gaitasuna, eta har ditzatela erabaki zehatz eta azkarrak, konfiantza sortuko duten hartu beharreko arris-kuak hartuz".



Aurtengo kanpainako triptikoa.



# the commitments

## ZUZENEAN

**Eguna: Urriak 18, zapatua.**  
**Ordua: 22:30ean**  
Sarrerak salgai Espaloian bertan

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85





Teresa eta Pedrotxo erdian, Agurne Barruso alkatearekin eta hitzaldia egin zuen Josuren Murgizurekin.

INTXORTA 1937

OMENALDIA > FRANCOREN AURKAKO BORROKALARIAK

# Pedrotxo Gartzia eta Teresa Harina omendu ditu Bergarako Udalak

Euskal Herriko borroka antifrankistaren ordezkariak euren bizipenen berri eman zuten Aroztegin

NEREA MENOR > BERGARA

Bergarako Udalak omenaldia egin zien Francoren aurka borrokatu ziren bi bergararri, eguazten arratsaldean: Pedrotxo Gartzia eta Teresa Harinari -Josuren Gabilondoren alarguna-. Aroztegi aretoan ipini ziren aulki guztiak jendez bete ziren bi lagunon kontakizunak entzuteko.

Intxorta 1937 elkarteak proposatutako omenaldian, Agurne Barruso alkatea egon zen eta omenaldiaren proposamena harro hartu zuela azaldu zuen: "Teresa eta Pedrotxo ideia batzuegatik borrokatu ziren. Udal Gobernuak ideia hauekin bat egiten du nolabait, eta euren errelebu garena sentitzen dugu".

Omenaldiari hasiera emateko, Josuren Murgizuk -Intxorta 1937 kultura elkarteko kidea- hitzaldia egin zuen, bi borrokalarien bizitzaren hainbat kontu aipatuz.

Pedrotxo eta Josuren Francoren aurka borrokatu ziren. Lehenengo milizianoak, ondoren antolatutako gudariak eta azkenik UHP eta Loiola batailoietan etengabe borrokatuz, Gipuzkoaren alde. Gerra ostean, klandestinitatean borrokaekin jarraitu zuten eta 1947an, euskal solidarioekin batera, aurreneko greba

orokorra antolatu zuten Estatu-ko erregimenaren aurka.

Herriko UGT sindikatua birsortu zuten eta *Gazteen elkartasuna* izeneko aldiakaria argitaratu zuten klandestinitatean. 1948an, erbestera joan ziren, Frantziara: "Ondarroako arrantzaleekin joan ginen itsasontzian", kontatu zuen Pedrotxok. Bertatik, Alderdi Komunistaren alde egin zuten, hainbat mobilizazio deitu zituzten eta preso frankisten aldeko borrokan ibili ziren. "Oraindik gorriak dira eta nahiz eta orain Euskal Herriatik kanpo bizi, ez dituzte sustraiak ahazten; horregatik daude gaur hemen", azaldu zuen Murgizuk.

Agustin Untzurruntzaga, *Xabale*, Ignazio Herran eta Jokin Intza -martitzenean hil da militante jeltzale bergararra, Francoren aurka eta Eusko Jaurlaritzaren alde erbestean borrokatu zuena- gogora ekarri ondoren, Pedrotxo hasi zen berbetan. Eskerak eman ondoren, guztiok batze-

ko dugun beharrari buruz aritu zen: "Gizarte sistema honekin amaitu eta berria sortu behar dugu. Koskak berdindu eta guztiok bat egin beharko genuke, eta indarkeria forma guztiak alde batera laga, gorrotoa besterik ez baitute sortzen". Eta bizitzan positiboa izan behar dela gaineratu zuen.

'JOSETXIKI'-REN BIZIPENAK

Gerraostea laga barik, bihar *La Mancha nos dio un gudari* liburua aurkeztuko dute Aretxabaletako Arkupe kultura etxean. Nobe lan, garai bateko Aretxabaletako kontuak eta Jose Mari Horcajaderen, *Josetxiki*-ren, gerra sasoi-ko bizipenak eta kontuak azaltzen dira. Cuencan jaioa, 1924an heldu zen familiarekin Aretxabaletara. Faxistak Aretxabaletan sartu zirenean Durangora alde egin zuen eta 16 urterekin gudarien Zapadore konpainian eman zuen izena. Porrotaren ostean, hainbat kartzelatan egon zen 1945a arte.

## 'Celestino Uriarte' liburuaren aurkezpena

*Celestino Uriarte, Klandestinitatea eta Erresistentzia Komunitaria* liburuaren gaztelaniazko edizioa atera du Juan Ramon Garaik eta atzo, eguena, arratsaldean aurkeztu zuten Arrasateko Kulturaten. Klandestinitatea eta erresistentzia komunistaren gainekoa da eta borroka klandestinoan buru izan ziren lau gipuzkoarren azken egunak ditu hizpide. Uriarteren torturazaila zein izan zen azaltzen da, protagonistaren hil aurreko pentsaera politikoa eta beste hamaika istorio. Gaztelaniazko liburuak 400 orri ditu, euskarazkoak baino 100 gehiago.

Teresa, Pedrotxo eta Josuren Gabilondo liburuaren protagonisten artean daude eta Garairekin batera egongo dira Arrasaten liburuaren aurkezpenean.

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Harpidedunen txokoa**  
Iraileko zozketa

**ZORIONAK!**  
ZU IZAN ZARA IRABAZLE

**AQUARIUM-ERAKO SARRERAK**



Irabazlea:  
IDURRE URIBARREN HERRASTI (Aretxabaleta)

**KAMISETA+POLTSA**

skunkfunk



Irabazlea:  
ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

**CD-IRRATIA \_STEREO**



Irabazlea:  
HERIBERTO ZUBIA URIBETXEBERRIA (Arrasate)

**BRUESA PARTIDUETARAKO SARRERAK**



Bruesa-Tau. Irabazlea:  
Felix Gainzarain (Arrasate)  
Bruesa-Real Madrid. Irabazlea:  
Inigo Gainzarain (Arrasate)

**SARI NAGUSIKO IRABAZLEA:**

**NEKANE GABILONDO UGARTE**  
(Bergara)

**ARBELAITZ JATETXEAN**  
**BI PERTSONANDAKO AFARIA**

*Arbelaitz*  
ARBELAITZ • DONOSTIA

## gure artekoak

**NISSAN QASHQAI** > Orain urtebete atera zuen Nissan etxeak lur orotariko Qashqai autoa. Bergarako Blanco etxeke salmenta arduradunak dio bai gazteei eta baita nagusiei ere zuzendutako autoa dela Qashqai berria.

**Cristina Blanco** > Blanco kontzesionarioko salmenta arduraduna

## "Lur orotarikoa da, mendian eta hirian dabil ondo autoa"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Orain urtebete merkaturatu zuen Nissan etxeak Qashqai autoa. Lur orotarikoa da, baina 4x4 trakzioaz gain, bi gurpileko trakzioa ere aukeran dauka auto berriak. Cristina Blanco salmenta saileko arduradunaren esanetan, erosotasuna da Qashqai autoaren ezaugarri azpimarragarriena: "Lur orotariko auto da; mendian ondo dabilen arren, herrian ibiltzeko ere egokia da".

**ADINAK EZ DU GARRANTZIRIK**

Nori zuzenduta dagoen galdetuta, Blancok dio jende guztiarentzat aproposa dela autoa. "Gazteak eta nagusiak interesatu dira Nissan Qashqai berrian". Gaineratu du *sport* itxura duen autoa izan daitekeela beirazko sabaia-rekin; baina beste elementu batzuekin itxura konbentzionala izan dezakeela autoak.

Autoak bost eserleku eta bost ate ditu. Familia guztiarentzat aproposa da; batez ere, pertsona nagusientzat da aproposa. Izan ere, autoa nahiko altua da eta sartu eta irteteko erosoa da.

**PISU TXIKIA DAUKA**

Autoak pisu txikia dauka; hori dela eta, egonkorra da eta erantzun ona ematen du errepidean. Sei eta bost abiadurako aldake-



Blanco garajearen aurrean, Cristina Blanco Qashqai autoarekin.

A.E.

### Nissan Qashqai 1.5 dCI 106 ZP

Prezioa	18.000 eurotik gora
Luzera	4,31 metro
Zabalera	1,78 metro
Maletategia	410 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	5,2 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	174 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	12,2 seg.
CO2 isurketak	139 g/km

(1) Gehienezko edukiera  
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta  
(3) Gehienezko abiadura

ta kaxa dauka autoak. Gainera, automatikoa ere izan daiteke aldaketa kaxa. Dieselezko 1.5 motorra, adibidez, sei abiadurakoa da.

**ATZEALDEAN, KAMERA**

Segurtasunari dagokionez, egungo sistema guztiak ditu autoak: sei aire poltsa, ABS, SP eta beste hainbat elementu.

Gainera, atzealdean kamera jartzeko aukera eskaintzen du Nissan etxeak. "Aparkatzeko orduan, atzeko kamerak jasotzen duena nabigatzailean ikus daiteke", dio Blancok.

## etxeke leihotik



Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

## Udazken "suabea"-n ekaitzak ere joko du

Temporak eta kontratenporak izan dira irailaren 17tik 24ra, eta egun horietan adi egon da Pello Zabala, eguraldiak zer egingo begira. Eta hala, atera ditu bere ondorioak: hilabeteotan, euri, haize eta hotz gutxi izango dugula kontatu digu; udazken "suabea" izango dugula, alegia: babak eta gaztainak ontzeko aproposa; ehizarako eta perretxikotarako, eskasa. Baina, "suabea".

Ekonomiarako ere bai? Bakean ez baino ekaitz giroan joateko itxura gehiago hartzen diot nik datorrenari. Pedro Solbes Espainiako Ekonomia ministroak banketxeetan aurrezkiak dituzten espainiarrei lasai egoteko esan die, euren aurrezkiak ez daudela arriskuan. Aski izan ote da herritarrak lasaitzeko? Bat baino gehiagorentzako, seguru ezetz. Eta horiek urduritzen hasita badaude, nola ote daude, hilerok, bankuari zorrak ordaintzeko larri dabilzanak? Eta hori, diru sarrerek hutsik egiten ez badute! Baina, krisiaren eraginez, enpresek langileak etxera bidaltzen badituzte, zer? Euriborrek gora egin du berriz ere, eta 30 urterako hipoteken hileko kuota 66 euro igo da. Udazkena ez da hain *suabe* joango!

**"Solbes: banketxean aurrezkiak badituzu, ez kezkatu"**

**> Maritxu Kajoi**

eguna da gaur Arrasaten, dotore jantzi eta txikiteoan egiteko eguna. Komisiñuek esan du, gainera, krisia delata eta ur mozketak egongo direla eta ardoa bakkrik egongo dela eskura.

**> Magazinea**

estreinatuko dugu astelehenean GOITBn, eta Maritxu Kajoi hizpide izango dugu. Antolatzaileetako bat izango da gurean. Ea txikiteroren bat ere animatzen dugun!

## begi-bistan



### Japoniarrak herri kirolean (Aretxabaleta) 2008/09/27

Argazkia: Mirari Altube.  
Testua: Arantza Ezkibel.

Japoniar batzuk Aretxabaletako herri kirolak grabatzen egon ziren zapatuan. Haietako batek, Ito jaunak, ingudeak probatu zituen; minutu erdian 18 kiloko ingudea 22 aldiz jaso zuen.

**Har ezazu parte:**

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Alberto Iñurrategi**

MENDIZALEA



**Juan Ramon Garai**

IDAZLEA



**Jon Odriozola**

TXIRRINDULARI OHIA

Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarrak *Miradas a camara: Begiz begi* delako dokumentala aurkeztuko du egunean, hilak 9, bere herriko kultura etxean. Mendizaletasunaren gaineko bere ikuspegia eskaintzen du, batzuetan, kritikoa dena.

Atzo aurkeztu zuten Arrasateko Kulturaren Juan Ramon Garai idazlearen *Celestino Uriarte: clandestinidad y resistencia comunista* liburua gaztelaniara itzulita. Euskarazko bertsioak baino 100 orrialde gehiago ditu atzo aurkeztutako liburak.

Jon Odriozola oñatiarrak Euskaltel Euskadi taldea zuzentzeari utziko dio. Bere nahia taldean jarraitzea zen eta baita taldearena ere; baina, bi aldeak ez dira akordiora iritsi. Bi urte egin ditu Odriozolak Euskaltel Euskadiko zuzendari lanetan.



Ilatargi Astronomia Taldeak antolatuta, Javier Armentia Iruñeko planetarioko zuzendariak

hitzaldia egin zuen atzo, Oñatiko kultura etxean. 1610. urtean Galileok argitaratutako *Sidereus Nuncius* (Izarren mezularia) lanaren harira, garai hartan Galileo jakintsuak eginda-

ko ikerkuntzek nola Inkisizioarekin eta Elizarekin topo egin zuten gogoratu zuen Armentiak.

ko ikerkuntzek nola Inkisizioarekin eta Elizarekin topo egin zuten gogoratu zuen Armentiak.

Javier Armentia > Iruñeko planetarioko zuzendaria

# "Elizaren dogma zalantzan jartzean, Inkisizioarekin topo egin zuen Galileok"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Javier Armentia (Gasteiz, 1962) Iruñeko planetarioko zuzendaria da 1990. urtetik. Astrofisikoa da: fisika ikasketak egin zituen Leioako Fakultatean eta ikasketak osatu zituen Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Hainbat mediotako kolaboratzailea da, ETB-2ko *Pásalo*, tartean. Interneten ere Armentia pista jarraitu dezakezue, *Por la boca muere el pez* izeneko haren blogari esker, honako helbidean: [javarm.blogalia.com](http://javarm.blogalia.com).

**Ekonomian edo politikan dagoen giro nahasiarekin, onena izarrei begiratzea izango da, ala?**

Bai, ez da irtenbide txarra... Dena dela, Galileok hori egin zuen bere garaian eta arazoak baino ez zituen izan. Inoiz ez da jakiten... Baina, bai, gauza ederra izaten da izarrei begiratzea; beti aurki daiteke sorpresaren bat zeruan.

**Galileok egindako aurkikuntzak aldarrikatu nahi izan dituzu Oñatiko hitzaldian.**

Galileok *Sidereus Nuncius* (Izarren mezularia) izenburuko lana eman zuen argitara 1610. urtean. 1609ko negutik zeruan egindako behaketen berri ematen zuen bertan. Izan ere, erreminata berri bat erabili zuen Galileok orduan: unibertso baten berri emateko gauza zen kataloga erabili zuen. Gaur egun, oraindik ere, teleskopioaren jatorriaren gaineko eztabaida hor dago: Gironatik datorrela, jatorria Holandan duela... Kontuak kontu, zerua aztertzeo teleskopioa erabiltzen lehenengoa Galileo izan zen. Datorren urtean, 400 urte beteko dira Galileok kataloga astronomikoa erabili zutenetik eta, hori dela eta, 2009. urtean Astronomiaren Nazioarteko Urtea ospatuko da mundu zabalean.

**Zeintzuk izan ziren Galileoren ekarpen nagusiak?**

Bera izan zen lehena Ilargian mendikateak zirela ikusten; Jupiter inguruko lau astro zirela deskubritzen; Venusek Ilargiaren moduko faseak zituela ohartu zen baita; orduan arte existitzen ez ziren izarrek deskubritu zituen... Bost izar bakarrik omen zeuden, Galileok 50 ikusi zituen arte. Galileoren ekarpena sekulakoa izan zen eta horrek sasoi hartan ekarri zuen harridura ezin dugu imajinatu ere egin.



Javier Armentia astrofisikoa Iruñeko planetarioa zuzentzen du 1990etik.

GOIENKARIA

Azken baten, ordura arteko ikuspegiarekin, sinismenekin erabat apurtzen zuen Galileoren aurkikuntzak. Elizaren dogma zalantzan jartzean, Inkisizioarekin eta Elizarekin egin zuen topo.

**Garai hartan, Elizari aurre egitea ia-ia suizida zen, ala?**

Hala da. Europako jakintsu-rik garrantzitsuenetakoa zen Galileo. Padovako Unibertsitateko irakaslea zen eta Galileoren iritzia, haren teoriak, oso estimatuak ziren han eta hemen. Hala ere, zientziak orduko dogmei, Bibliak esandakoari aurre egitean, arazo pilo bat izan zituen Elizarekin eta Inkisizioarekin. Etenegabe mehatxatuta egon zen Galileo, Eskritura Santuaren aurka arrazoiaren indarra jartzearen; botereen arteko borroka zegoen atzean. Azkenik, uko egin zien Galileok bere teoriari, 1633. urtean, 69 urte zituela, kontrako kasuan Inkisizioaren hatzaparra ez zuelako inoiz gainetik kenduko eta hiltzeko arriskua ere hor

ELIZARI AURRE

**"Bibliak esandakoari arrazoiaren indarrarekin aurre egitean, etengabe mehatxatuta egon zen Galileo"**

ZIENTZIAREN INDARRA

**"XVIII. mendean hasi zen zientzia dogmari gailentzen, Galileoren eta Newtonen teoriekin"**

ERRONKAK

**"Urtero 50 planeta berri inguru deskubritzen dira eta unibertsoaren hasierako uneak ikertzen jarraitzen dugu"**

zegoelako. Neurri handi batean Medicitarrei esker salbatu zuen bizia Galileok: Firenzen beraiekin bizi zen eta Julio II.a Aita Santua, Medicitarra bera ere, gertuko zuen. 1564an Pisan jaio eta 1642an hil zen Galileo, Arcetrin, Firenzetik gertuko herri baten.

XVIII. mendean hasi zen zientzia dogmari gailentzen, Galileoren eta Newtonen teoriekin. Vatikanorengandik askeago zegoen Newton... Ezin ahaztu Elizak Darwinen teoriak ezeztatu zituela 1960ra arte. Eta Galileorekin egindako injustiziagatik Joan Paulo II.ak, Eliza Katolikoren izenean, barkamena eskatu zuen 1992ko urriaren 31n.

**Astronomiak gero eta jarraitzaile gehiago ditu gaur egun. Zer egiten du, bada, hain erakargarri?**

Kuriositateak. Zerua hor dago eta, herrietan jartzen dituzten bonbillek uzten digutenean, gauza ederra da zeruari begiratzea. Kosmosaren gaineko albisteak

oso erakargarriak dira eta komunikabideek ere gero eta arreta handiago eskaintzen diete, oso ikusgarria delako hor goian ikus dezakeguna. Ilatargi bezalako taldeek ere lan aipagarria egiten dute astronomiaren dibulgazioan, baita planetarioek ere...

**Zer dago deskubritzeko?**

Teleskopioen belaunaldi berriei esker 50 planeta berri inguru deskubritzen dira urtero eta gizakiak unibertsoaren hasierako uneak ikertzen jarraitzen du. Lurraren antzeko planeta bat aurkituko da laster eta Merkurio, Venus edo Saturno ere hor daude...

**Zaleentzat, zein da hurrengo ezinbesteko hitzordua?**

Edozein egun da aproposa zeruari eta izarrei begira jartzeko. Egunotan, Jupiterrek diridira handia dauka... Bestalde, azaroaren 9an edo 10ean izarren euria izango dugu, *Leonidas* izenarekin ezaguna.



zabalik

Eneida Iturbe

## Lapurra ala heroia?

Orain dela pare bat aste *Crisi* izeneko aldizkaria banatu zen Katalunian. 200.000 aleko tirada eta zenbaki bakarra, *Robin Bank* izendatu duten aktibista batek bultzatua. Petrolio ekoizpen gorenaz (*peak oil*) eta energia-krisiaz, botere ekonomikoez, sistema kapitalistari aurre egin nahi dioten ekimenez... mintzo zen aldizkaria, baina komunikabideek *Robin Bank*-en ekintzan bakarrik jarri zuten arreta: hainbat banketxeri iruzur bidez ia milioi erdi euro kendu dizkie, bueltatzeko inolako asmorik gabe, noski.

Diru hori zenbait mugimendu sozial bultzatzeko eta *Crisi* aldizkaria argitaratzeko erabili ei du. Hortik dator *Robin Bank* izena, Robin Hood-en antzera, asko dutenei kendu die-eta, gutxi dutenei emateko, hain zuzen ere. Hiru urte zeramatzan banku eta kutzetan maileguak eskatzen, beti ere, finantza-sistema zorrak egiten ari zela ez konturatzeko moduan. Ekintza hau irailaren 17an eman zuen jakitera eta ordu-rako itsasoren bat zeharkatua zuen. Atlantikoa, Mediterraneoa... Batek daki!

Finantza-sistemak zuloak dituela erakutsi nahi izan du *Robin Bank*-ek eta, azken egun hauetan, Lehman Brothers eta beste hainbatekin gertatutakoa ezagututa, argi ikusi dugu zulo horiek badirela. Hala ere, bankuen gaitzetzat, gizakiarentzat ez bezala, *injekzioak* existitzen direla ikasi dugu.

*Robin Bank* ezizenaren ostean Enric Duran dago, azken bederatzi urteak gizarte mugimenduetan inplikaturik egon den aktibista. Uda aurretik, Marxa pel Decreixement ekimenarekin Katalunia bizikletaz zeharkatu zuen. Maiatzean ezagutu nuen nik mugimendu hori eta baita Enric bera ere. Gurean egon zen bazkaltzen eta lotan. Zenbaitetzat lapurra izan genuen etxean; beste askorentzat, heroia.

**"Robin Bank"-ek asko dutenei kendu die, gutxi dutenei emateko"**

**"Bankuei maileguak eskatu zien, zorrak egiten ari zela ez konturatzeko moduan"**

OÑATI ETA ARRASATE ARTEKO GAUEKO AUTOBUSA

**Arrasatear bat Oñatiko jaietara joan zen autobusez pasa den zapatuan, gaueko autobusean. Hona-koa galdetu digu: "Oraingo zapatuan ere joan gura nuke. Badago autobusik orduan ere?"**

Bai; bihar, Herri Eguna, gaueko autobus berezia izango da Arrasate eta Oñati artean. Ordu erdi oro egingo du bide hori. Arrasateetik Oñatira, gauerdian irtengo da lehenengoa, eta 06:00etan, azkena; Oñatitik Arrasatera, lehenengoa 00:30ean, eta azkena, 06:30ean. Geltokiak Oñatin, posta etxe ondoan, eta Arrasaten, Garibain izango dira.

HAURDUNALDIKO GIMNASIA EGITEKO LOKALA

**Aretxabaletar emakume batek bere kezka jakinarazi digu: "Entzunduko haurdunaldiko gimnasia egiteko lokal bat prestatu gura duela Udalak. Egia da?"**

Udalaren asmoa hori da, bai, Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok konfirmatu digun moduan:

## herritarrak galdezka

"Durana kalean lokal bat egokitu gura dugu, Zaindus gimnasioari laguntzeko, eta erabilera posibleetako bat horixe da: haurdunaldi aurreko eta osteko gimnasia, hain zuzen".

Orain, Udala eta osasun arduradunak ados jartzea falta da, izan ere, ahal dela, osasun zerbitzu guztiak osasun etxean eman behar dira; baina lokal hori osasun etxetik 50 metrora dago. Asmo hori aurrera eramaten

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidalguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

badute, Aretxabaletako emakume askok eskatzen duten zerbitzu hori bete ahal izango da, izan ere, alkateak baieztatu digunez, "arazoa ez da emagin edo profesional falta, lokal falta baizik".


GIDA TURISTIKO IZATEKO IKASTAROAREN BALDINTZAK  
**"Jakini dut Aramaion badagoela turismoko gida izateko ikastaro bat, eta jakin nahiko nuke ea oraindik posible den izena ematea, eta, batez ere, Aramaioetik kanpokoek ere egin dezaketean", idatzi digu irakurle batek.**

Ikastaroa Zuiako Koadrilak antolatzen du. Hango ordezkariak konfirmatu digute oraindik izena emateko aukera dagoela –ikastaroak dituen 15 lekuetatik bederatzi daude hartuta–, eta, gure irakurlearen galderari erantzunez, bakarrik Zuiako Koadrilako bizi-lagunek eman dezaketela izena. Horrez gain, beste baldintza bat ere badago: langabezian egotea.

Interesa duenak eman deza-ke izena 945 43 01 67 telefonoan edo [economia@cuadrillazuia.com](mailto:economia@cuadrillazuia.com) posta elektronikoko helbidean.

## marrakiz

Unai Busturia



## Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredaktzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larratiz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldeg, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Bereziar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: [goienkaria@goiena.com](mailto:goienkaria@goiena.com)

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: [arrasate@goiena.com](mailto:arrasate@goiena.com)

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: [aretxabaleta@goiena.com](mailto:aretxabaleta@goiena.com)

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: [publi@goiena.com](mailto:publi@goiena.com)

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekarria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurilaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiko  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## Dutxa mistoak eskoletan

Galder Gonzalez

[www.gaur8.info/](http://www.gaur8.info/)  
bitakorak/hetzordua

**B**adirudi txikitatik ohitu gaituztenez neskak eta mutilak ezberdintzera, leku ezberdinetan pixa eta kaka egin, leku ezberdinetan jolastu eta leku ezberdinetan dutxatu soinketa egin ondoren izkutatzeko zerbait dugula. Nire ustetan txikitatik komun eta dutxa mistoak bultzatuz

gero desberdintasun hori leuntzen joango litzateke (...).

Kataluniako eskola batean ideia berdina izan dute ikasturte honetan. Umeak 11 urterarte (hau da, neskak aztoratzen hasi arte) Soin Hezkuntza egin ondoren elkarrekin dutxatzea zen ideia, horrela euren gorputzak ezagutu eta dituzten ezberdintasunak modu naturalean ikasi eta onartzeko. Baina ez! Guraso batzuen iritziz hau ideia oso arraroa da eta euren buruari galdetzen diote: "zergatik ikasi beharko ote du nire haurrak bere gorputza nolakoa den, nik ez badut nahi?". Hori, hori!

## Zikloak

Anjel Lertxundi

[www.berria.info/blogak/lertxundi](http://www.berria.info/blogak/lertxundi)

**L**agun batek atzo: "Konturatzten haiz zenbat zipotz sartzen ari zaizkigun ekonomiaz tutik ere ez dakigunoi?" (...) Ziririk handiena, ziklo ekonomikoena: jarduera ekonomikoak aldaketa erregularrak omen ditik, baina hik non ikusten dituk zikloak? Atzo eta gaur, partiketa beti zagok berdin egina: zeruko partila berentzat, infernuko deusa, guretzat. Bo, bo, kapita-

plazara

Joan den zapatuan, Bergaran ospatu zen Nazioarteko Gorren Eguna, AransGik (Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarteak)

antolatuta. Artikuluan, Bergarako zentroko Iñaki Madinabeitiak azaltzen du horrelako egunak beharrezkoak direla gorrek euren

aldarrikapenak jakinarazteko; hain zuzen ere, "ezberdin izatea eta eskubide guztiekin garatzeko esku-bide osoa izatea", besterik ez.

Iñaki Madinabeitia \*


# Izan eta garelako elkartzen gara

Izan eta garelako elkartzen gara". Ezberdin izan, ezberdin bizi... gutxitua zarenean ez da gauza erraza.

Pertsona gorrek ezberdin sentitzen dira. Pertsona gorrek ezberdinak dira. Ezberdin izatea eta gure artean betebeharrak eta eskubide guztiekin garatzeko eskubide osoa aldarrikatzen dute. Zentzu honetan gorrek beraiek lan asko egin dute. Beraien izaera aldarrikatzeko eta erabat onartzeko bide luzea egin behar izan du Gor Elkargoak. Gaur egun munduko gor talde ugari aldarrikapen hauetan diharduten arren, Gor Nortasuna sendotzeko korranteak Ipar Europa eta AEBetatik joan dira plazaratzen.

Gizarteak begi onez ikusten du futbola, musika edo mendiaren inguruan taldean batzea. Eliteko talde famatu batean elkartzen denari ere ondo begiratzen zaio. Atzerrian bizi bagara ere, gure herrikoekin batzea ere ontzat ematen dugu. Baina beste kultura gutxitu bat gure artean txertatzea... hori ez dugu oso garbi ikusten. Pertsona gorrek talde baten parte dira, gabezi batetik abiatuta eta ezaugarri kulturalak garatuz, komunitate sentimendua erazten duten giza taldea dira.

Nahiz eta guri ulertzea kostatu, entzumenak izugarriko garrantzia du informazioa jasotzeko orduan. Ezberdin entzuteak, asko edo gutxi baina ezberdin, goitik behera aldatzen du eguneroko bizimodua. Arlo askotan era ezberdinean jaso eta ulertzen dute bizitza. Horregatik, elkarbizitzan hainbat egokitzapen prestatu behar izaten du bai gorrek bai bere inguruak. Hori ez da ez ona ez txarra,



MIKEL ARROIABE

rra, horrela da eta errespetuz horrela onartu eta garatzeko eskubide guztiak ditu.

Gizarteratzekoan gor gehienak itxiak eta eskusio zale direla esan ohi da. Nire ustez ez da horrela; arrazoia komunikazio moldeak neketsuak eta deserosoak direnean elkarren artera eta erosotasunera jotzen dugula da.

Dena den, gizartearen uniformismoa joera dugu, beti zabalduenaren eta indartsuenaren bantajan gainera, kasu honetan entzule garenon menpean. Gorrek gutxi dira, han-hemenka jaiotzen dira. Historian zehar, "normaltasunaren" izenean, behin eta berriz sakabanatzeko saiakerak jasaten dituzte. Ez da bizimodu erraza.

**"Gorren eguneroko bizitzan erronkak latzak dira; komunikaziorako tresnak garatzea garrantzitsua da"**

**"Gorrek Keinu Hizkuntza aldarrikatzen dute, eta horretarako legeak ezartzeko borondatea bultzatzen dute"**

Entzuleoi eta entzuleen mundua ulertzeko orduan dituzten zailtasunak bereiztu eta batzen ditu Gor Elkargoak. Hau da, entzumen maila edo ahoz hitz egiterakoan duen ulergarritasuna baino, ulermenean sortzen diren zailtasunak bereiztu eta batzen ditu.

Joan zen larunbatean, jai giro ederrean, Bergaran ospatu zen Nazioarteko Gorren Eguna.

Beharrezko jai izaten da, elkar ikusteko, gizarte uniformizatzaileari aurre eginaz indarrak batzeko eta aldarrikapenak egiteko. Gorren eguneroko bizitzan erosoago moldatzeko erronkak latzak izaten dira beti, inguruko entzat eta beraientzat. Komunikaziorako baliabideak garatzea garrantzitsua da. Ahozko hizkuntza neke handiarekin funtzionaltasunez ikasten eta erabiltzen saiatu arren, Keinu Hizkuntza aldarrikatzen dute komunikaziorako tresna ziur eta eroso bezala eta horretarako legeak moldatzeko eta lege horiek ezartzeko borondatea bultzatzen saiatzen dira.

Gure eskualdean pertsona gorrekin lan handia egin dela aipagarria da. Elkarteetan, eskolatan, lantegietan, udaletan, familietan, lagunartean, gehienetan isilean, makina bat laguntzaile izaten da. Egindakoak ez dira izaten alferrekoak, bistan da, ez dago damurik! Gor Elkargoa gero eta garatuago ikusten dugu, pozgarria da. Horrela bada, modu batean edo bestean Gor Elkargoari aurrera egiten laguntzen diozuen guztiei, eskerrik asko.

\*Iñaki Madinabeitia Bergarako AransGik zentroko arduraduna da.

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Jantziko zara dotore Maritxu Kajoirako?

BAI	%66,7
EZ	%33,3

> LANERA ERE

Bai. Maritxu Kajoi egunean lanera joan behar izan dudanean beti joan naiz trajez jantzita lantokira. Imamon

> 'BEHERAPENAK'

Ez, ni ez naiz jantziko. Aurten oportretan ere asko gastatu dut eta "beherapen" sasoian nago, beraz... Itsaso

> PENA

Ba aurtengo urtien ez dot Maritxu Kajoi egunien urtengo, kanpora jueteko asmue dauketelako. Penie be emuten dust, kuadrilla dana juntetan garelako Maritxutan, eta bazkari hortan ez egotiek emuten dust penie. Onena gabera arte egoten dan ambientie. Migel

> EROSITAKO TRAJEAK

Urtero moduan jantzi egingo naiz, ohi baino dotoreago. Hala ere, ohitura galdu egin da, kalean ikusten diren trajeen %99 erositakoak baitira. Julen

**DATORREN ASTEKOAK: Danbakako kontzertuak ikusiko dituzu?**

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

- top

lista malapartatuek gu lasaitu eta kate motzean lotzeko asmatu ditek erlijio kutsuko gailurraren eta krisiaren esplikazio hori". Nik txalo jo diot. Lagunak harrituta begiratu dit. Ni baino gazteagoa da eta ez baitu formazio erlijiosorik izan (...). Kristau lurrean jaio zela kapitalismoa, Bush, berriz, oso Biblia zalea dela...

Nire Biblia besapean duela alde egin du lagunak etxetik.

OHARRAK (Post scriptum).

Ekonomilariek diote lau

direla ziklo ekonomikoak: hedapen-aldia, krisialdia, atzeraldia eta susperraldia. Krisialdian gaude. Atzeraldia

ere etorriko gara. Ez dakit zenbateraino pobretuko garan, baina asperraldi galanta hartu behar dugu zulentatik ateratzen hasi eta argi pixka batek suspertu arte.

## ETBren jarrera lotsagabia

Gorka Bikuña

goiena.net/blogak/gorka

Domekan jokatu zan mendeko harrijasotze apustua Irigoien eta Izeta IIaren artian (...). Teleberrira-

ko bi harrijasotzailei gaztele-raz in otsain elkarriketia, benetan lotsagarria da hori, aurretik elkarriketa berdina euskaraz in da euen ta! Zeatik ez daue azpitoluak erabiltten? Edozein elkarriketa itten daue inian bi hizkuntzetan in bihar daue, ta Catalunyan dauen ETBko kazetarixak elkarriketak katalanez itten dau, ta gero azpitoluak jarten dau, euskaldunekin zeatik ez daue berdin jokaketan?

Urte asko doiaz halako jarreriak, eta uste dot badala ordua gure hizkuntzan alde gehixau itteko komunikabide publiko batetik.

koplak

Enaitz Alustiza

## Asteburua

Hasi nahi dut negarrear asteburuan aurrean, askoz gehiago nekatzen gara deskantsatu beharrean.

Ostiralean "Maritxu" ezin etxean gelditxu trajea jantzi eta juergara, mozkor eta erdi itsu.

Eta larunbat goizean ezin gelditu ohean Herri egunez Feria ederra dago Oñati aldean.

Arratsaldean jarraituz Bilbora, tarte bat hartuz manifa oso inportantea, kasko gorriekin kontuz!

Handik berriz Oñatira ez da hain plan txarra, tira! Lehengo Cojon Prieto-koen kontzertuaren harira.

Ta igandean Irura Kilometroen lilura. Astelenean deskantsu eguna Elizak dion modura.

## Hamar arrazoi, Eroskiren EMES operazioa dela-eta

Simon Martinez de Arroiabe,  
Anton Elorza eta Agustin Zugasti  
(Mondragon Taldeko kideak)  
Arrasate

Duela hilabete batzuk Eroski-ko zuzendaritzak adierazi zituen asmoek kezka larria sortu zuten. Gerora, ordea, hipotesirik okerrenak ere baieztatu dira. Zuzendaritzak erdietsi nahi duen azken emaitzak Eroskiren erabakitzeko ahalmena ahulduko luke, bigarren mailako kooperatiba bihurturik, eta horrek bi ondorio ekarriko lituzke: boterean gero eta gehiago espainol handiagoa biltzea eta eragin praktikoetarako MCCtik irtetea. Ikuspegi horretatik, bidezkoa da EMES operazioaren aurka agertzeko arrazoi pisuzkoak daudela sinestea. Objektibo samar izaki, honako hau euskal kooperatibismoaren koiuntura behinen eta latzenetako bat dela esan dezakegu. Larriena, inondik ere, MCC-ri dagokionez. Hemen adierazten ditugun taldeetan oraintxe —seguruenik— nagusi dabilen sentsibilitatearen behin-behineko eledun baizik ez gara artikulu hau sinatzen dugunok. Ondotxo dakigu Eroski-ko zuzendaritzak gauza asko estu lotuak dituela baina, informazioak bere bidean aurrera egingo duelakoan, funtsezkoa deritzogu hurrengo gogoetak herritarteari:

1. EMES proiektua Eroski-ko zuzendaritzak estatu espainol osorako dituen asmoen araberrako korporazio berri bat sortzea eta, praktikan, MCCren arau-moldeetatik irtetea da.

2. Bazkideen kolektiboak eta talde kooperatiboak, oro har, jakin gabe eratu eta prestatu dute, luzaro prestatu ere, EMES operazioa. Begi bistakoa da sentsibilitate ideologiko jakin bateko lidergo batek izan duen eragina. Sentsibilitate guztiak zilegi dira, baina kezkatzeko modukoa da herri txiki honentzat berebiziko garrantzia duen errealitate kooperatibo baten izaera norbaiten ahalegin pertsonalek aldaraz-

tea, horren inplikazioak lasai eta sakon aztertu eta jorratu gabe.

3. Eroskiren elementu estruktural batzuek aukera ematen diote zuzendaritzari honek erabakitzeko ahalmena duten organoak baldintza ditzan. Barne-metabolismoan, behintzat, batzarraren benetako autonomia Eroskiren errealitatean ez da betetzen, organo horren erdia exekutiboak "zuzenduta" baitabil. Kooperatiba exekutiboa da Eroski: bertako bazkideen nahi subiranoaren aurrean errealitatea maneiatzeko exekutiboak duen ahalmena biziki handia da. Alde batetik, eskema hori indarrean dagoela, ulertzeko modukoa da zuzendaritzari hamar mila edo berrogeita hamar mila bazkide izateak bost axola diola, kohesio soziala izan edo ez izan. Beste alde batetik, ezaugarri horri esker, erabakia jendea baldintzatuz hartuko da; ez, ordea, informazio guztia agerian jarrita.

4. Euskal gizartea banaketa-talde kooperatiboa izateko aukera gabe geratu da. Eroski euskal taldea izan dena, estatu espainiarrean gehiengo duen estruktura baten barruan geratuko litzateke eta, sentsibilitate politikoak gorabehera, ederki dakigu denok Espainian nagusi den joera estrukturala edonolako euskal erabakimenak galaraztekoa dela betidanik.

5. Gai honetan eskarmentu handia ez dutenek akaso sinetsiko lukete operazio horren justifikazioa enpresa alorrekoa bakarrik izan litekeela. Jakina denez, Euskal Herrian ekonomikoki etengabe goraka ari da Eroski, orokorrean. Baina estatuko filialetan dirutza galtzen da. Zenbaitek filialak saltzea aholkatzen du. Eroski kosta ahala kosta goitik behera kooperatibizatzeak ate hori itxiko luke eta, gainera, etorkizun konplexu bezain arriskutsuak planteatuko lituzke.

6. Proiektu horretan zuzendarien ordainsariak ikaragarri ugalduko lirateke, kooperatiben barne-erreferentzietatik urrunduz eta, jakina, banaketa-enpresa kapitalistak eredutzat hartuz.

7. Bigarren graduako kooperatiba baten bitartez botere egiturak sortuz, Eroski-

ko zuzendaritzak erdietsi nahi dituen jomugak hauek lirateke: boterea areago biltzea, euskal erabaki-eremua sunstiatzea, zuzendarien lansariak ordaintzeko mugak erabat haustea eta MCCren arautegi jakinetatik are eta askeago geratzea.

8. Une honek Taldearen etorkizuna behin betirako markatuko du eta, gainera, kooperatibismoaren funtsezko printzipioetako batean eragin latza izango du. Une honetan, beraz, organo kooperatibek beren eginkizuna bete beharko dute, gaia sakon eztabaida dadin proposatuz.

9. Sentimendu kooperatibisten erabilera da aurrean duguna. Nortasunaren eta sozietate-hedapenaren arteko orekan mantentze hori, duda izpirik gabe, erronka zaila dute euskal kooperatibek. Nortasunari eustea eta partaidetzari ateak zabaltzea uztartzeko balioko duten formulak aukeratzean asmatzea dugu oraino eginkizun. Klabea, noski, 3. oinarrizko printzipioa (lanaren subira-tza) 8. eta 9. arekin (lurraldeari atxikirik jarduteko boko-zioa eta munduari irekitako bizipen horrek duen nortasun-premia, alegia) konbinatzea da.

10. Hauxe da artikulu honen funtsezko mezua, hain zuzen: kontua serio eztabaidatzeari bide ematea. Eta baiezkoa emateko moduko aukerak erakustea. Esperientzia kooperatiboaren 3, 8 eta 9. printzipioekin bat etorriko den Eroski baten ereduari baiezkoa ematea. Euskal kooperatiba-mugimendu osoarekin sinergiaz, bera sortu zuen herriarekin konpromisoa hartutako banaketa eta kontsumorako talde kooperatiboari baiezkoa ematea. Baiezkoa filialen egiazko balantze ekonomikoaren analisi serioari eta ordeko hainbat irtenbide (sarea, matrizea, marka bikoitza, Consum eredu, filial kooperatibizatu mistoak, etab.) aintzat hartzeari, etorkizunaren banaketarako euskal talde adimendun eta sendoa izan dezagun. Baiezkoa balio kooperatiboak zaintzeari ordeko irtenbide horietako edozeinetan, baiezkoa subirnotasun arduratsuko prozesuak gorpuz ditzaketan balioak gauzatzen ari diren

kasuetan gestioaren, emaitzen eta kontrolaren kooperatibizazioa gero eta handiagoa izateari. Baiezkoa hori dena lasai, serio eta sakon aztertze-ari, ordeko aukerak bereziki kontsideratuz.

Eroski-ko zuzendaritzak, ordea, adimenez dihardu eta, horrela, atzerako bueltarik izango ez duen erabakia hartzeaz gaude, benetako gehiengoaren egia adieraziko duen eztabaida serioerik antolatu gabe. Ederki dakigu, bukatzeko, esperientzia kooperatiboaren funtsezkoak diren eragile batzuk gogoeta hauekin ados daudela; Eroski-ko bazkideen gehiengo zabal bat ere jarrera horrekin bat datorrela pentsatzea, era berean, ez da gehiegikeria. Erabakia hartu behar duten erakunde denetako pertsona guztiei premiako deialdia egiten diegu, hortaz, asteotan arduraz eta sen historikoz jardun dezaten.

## Oportunismoa ala amnesia?

Lourdes Idoiaga

(Oñatiko alkatea, Udaleko  
Gobernu taldearen izenean)  
Oñati

Arazoak komunikabideez baliatuta konpontzeko ohiturarik ez dugun arren, Oñati Ezkerretik koalizioak argitaratu duen oharra ikusi ondoren, hura zabaltzeko erabili den bide bera erabili baino ezin dugu egin. Beraz, gai horri buruz ondorengo esan nahi dugu:

1. Uztaileko azken astean (28ko astea), Lan Batzorde guztien bilera guztiak amaituta zirela, Txosnen programako antolatzaileek honakoa exigitu zutela: jaien programa nagusian, presoei eskainiko zitzaie omenaldia eta manifestazioari buruzko ekintzen berri eman zedila berriro ere; bide batez jakinarazi zuten, proposamena onartzen ez bazen txosnetako aktibitateak ere ez zirela programa horretan agertuko. Astebeteko epea eman zuten erantzuteko.

2. Gaia azaldu zen une berean, haren urgentziaz jabeturik, berehala jarri ginela harremanetan koalizio-ko bozeramalearekin (une horretan oporretan zen

Oñatitik kanpo) eta azaldu zigun, berak aurreko urteko irizpide berbera zuela, are gehiago, biktimekiko kontsiderazioa ere izan beharko genukeela, besteak beste. Ikusten den moduan, erantzun borobila. Bide beretik, abuztu-ko hirugarren astean, bozeramale horrek udal gobernu-taldeko zinegotzi bati emandako erantzunean bere irizpidea berretsi zuen.

3. Oñati Ezkerretik koalizioak ondo daki, sekula ere ez dugula inolako eragozpenik jarri edozein bilera egiteko, horretarako interesa izanez gero behintzat. Are gehiago, oporren ondoren, udal-jarduren barruan behin eta berriro bildu gara koalizioko kideekin eta baita bozeramalearekin hitz egin ere (gai honetaz hainbatetan) eta behin ere ez zaigu agertu inolako arazorik gai honetan. Beraz, 2 hilabete igarota, ez dirudi arazoak konpontzeko biderik egokiena prentsa-oharra ateratzea denik.

Horregatik, ez dakigu oportunitate politikoa den ala azken 2 hilabeteen zehar hitz egindakoarekiko amnesia arazoa den, baina edonola ere begi bistakoa dirudi Oñati Ezkerretik-ek ez duela bere bozeramaleak emandako hitza bete, edo eta are larriagoa litzatekeena, adierazten duten barne-irudia ez datorrela bat herritarrei itxuraz eman nahi dieten irudiarekin.

## ZUZENKETAK

Joan zen asteko GOIENKARIAN, irailaren 26koan (346. zenbakia), gutunen orrian (12. orria) akats batzuk zeuden, gutun biren sinaduretan. Hain justu ere, *Rafael Zeziaga* gogoan izenburuko gutuna joan zen Pilar Etxaniz Kortabarria eta Jose Mari Iturbe Lezetaren izenean. Hori txarto zegoen eta horren orde beharko luke: Juan Ramon Garai, hark idatzia baitzen gutuna.

Bestalde, *Gauzak argitu nahian* izenburuko gutuna joan zen sinatuta Simon Martinez de Arroiabe, Anton Elorza eta Agustin Zugastiren izenean eta hori ere oker zegoen. Horren orde behar luke: Miren Arregi (Oñati Ezkerretik Koalizioaren izenean). Lerro hauen bidez, barkamenak eskatu nahi dizkiegu irakurleei eta, bereziki, gutunen egileei.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonoa:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

Goiena.net

www.goiena.net-eko blog komertzialak





## Zerbitzurik arinenak bakarrik oparitu diezazuke ordenagailurik arinena

Erabili kutxanet eta ordenagailu ultraeramangarri baten  
eguneroko zozketan parte hartuko duzu

Doako zerbitzua, erabilerraza, bizkorra eta segurua.  
24 orduz egunean, 365 egunez urtean. Zure ohiko kontsulta eta  
eragiketa guztiekin.

**38 ordenagailu ultraeramangarri zozketatuko ditugu  
irailaren 8tik urriaren 15era bitarte.**

Egin zeure eragiketak **kutxanet**en, eta har ezazu parte zozketan.



0,95 kg. / 80 GB



Neurriak: 24,8 X 16,9 X 3,2 cm.  
WIFI, Webcam, WINDOWS XP HOME...  
Zozketaren oinarriak [www.kutxa.net-en](http://www.kutxa.net-en)

### zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

# Irudi berri eta betiko kalitatearekin ospatu ditu Letamendik 85 urteak

Letamendi dendak goitik behera berritu du bere itxura, eta arropa estilo gehiago eskaintzen hasi da

1923an sortutako denda horrek bezero leial asko ditu, garai bakoitzera egokitzen jakin izan duelako

Oñatiarrok ondo baino hobeto ezagutzen dute Letamendi arropa denda. Azkenaldian, gainera, itxuraldatuta ikusi dute, denda bera eta haren irudi osoa goitik behera berritu dutelako arduradunek.

Irudi berriaren ikur bat da dendaren jaiotze data adierazten duen esaldia: *1923tik txantxikutarrak jazten*. Oraingo ugazabak Juan Luis Letamendi, aitzindarien birbiloba, eta emazte Manttoni dira. Juan Luisek honela azaltzen du dendaren jatorria: "Gure amamak, Malen Zelaiak, hartu zuen denda; ehunak-eta saltzen zituen. Gero, osaba Esteban justun ikasten hasi zen eta dendan lanean jarri zen. Baina gerra etorri zen eta Esteban Txilera joan zen. Gerra ondoren, gure aita Jose Marik eutsi zion negozioari".

## BETI EGOKITUZ

Letamendiren estiloa garaietara egokituz joan da beti. Gerra ostean, lehenengo arduradunek eurek egiten zutena saltzen hasi ziren, "emakumeendako berokiak, asko", diosku Juan Luisek. 1950ean hasi ziren kanpoko materiala eta, geroago, egindako arropak ekartzen. Ugazabak honela gogoratzen du estiloaren garapena: "Hasieran, gehienbat trajeak saltzen zituzten, orduan, Oñatin, jendea horrela janzten zen-eta. 60ko hamarkadan, bakeroak ailegatu ziren. Orduan, oso-oso zaila zen horiek ekartzea; genero gutxi zegoen. Adibidez, Lois fraka bakeroak dendarako erosteko Valentziaraino joan behar zuen norberak handik ekarri, ez zegoelako. Garai hartan hasi ginen markak ere saltzen".

Juan Luisek berak 1980an eutsi zion dendaren ardurari, eta ordurako, "gabardinak asko saltzen ziren, Oñatin eta inguruan. Gero, hainbat etxek sortutako moda etorri zen".



Oñatiko plazako arkupetan dagoen Letamendi denda ezagunak inoiz baino itxura moderno eta erakargarriagoa du orain.

Urteetan zehar, Letamendira janztera joan den jende mota zertxobait aldatu da, dendari ere garaietara egokitzea tokatu zaion moduan. Juan Luis Letamendik dioenez, "normalean, 35-40 urtetik gorakoak janzten ditugu; azkenaldian, gazteagoendako arropa ere sartu dugu. Lehen, denetarik saltzen genuen; orain, espezializatu egin behar izan gara. 70etik hona asko aldatu da".

Herritarren erosketak ohiturak ere ez dira orain 20 edo 50 urteko berberak; hori ere aldatzen joan da. Hala ere, herritarren leialtasuna irabazi du Letamendik urteetan barrena: "Gu

**Itxura aldatzearekin batera, espezializatzea da Letamendiren beste apustua**

**Letamendiren irudi berria Estatuko diseinu onenak batzen dituen Select liburuan dago**

gure bezeroengandik bizi gara. Beti izan ditugu bezero finkoak", dio Juan Luis Letamendik.

## ITXURA BERRIA

Azkenaldian, itxuraldatuta, edertuta, ikusi dute orain oñatiarrek Foruen plazako denda ezaguna: "Dendak urte asko zituen dagoeneko; ondo zegoen oraindik, baina berritu beharra zegoen. Dena berritu dugu: argiztapena, baldak, probalekuak...", diosku arduradunak. Hori dena laburbiltzeko eta aurkezteko, Oñatiren ikur den txantxikua agertzen da orain dendaren izenaren ondoan. Juan Luisen esanetan, "jen-

deak esan digu oso polita dagoela denda, eta gu ere konforme gaude". Hala ere, aldaketak aldaketa, izaerari eutsi diote, eta bezero berriendako eta gazteagoendako arropa izateaz gain, betiko bezeroek ohiko produktuak eta kalitatea topatuko dituzte.

Errekonozimendua, herritik ez ezik, kanpotik ere etorri zaio Letamendiri: izan ere, euren irudi berria Estatuko diseinu onenak batzen dituen Select libururako aukeratu dute.

Horrenbestez, indarberrituta eta inoiz baino dotoreago, gertu dago Oñatiko denda antzinako eta ezagunenatariko hori datozen garaietarako.

# LETAMENDI

1923-TIK TXANTXIKUARRAK JAZTEN

Foruen enparantza | 20560 Oñati | Gipuzkoa | tel.: 943 781 082



# Herriak

Arrasate > 18-19 Bergara > 24-25 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **BERGARA**  
Udaltzainek lan  
gingo dute  
asteburu eta  
jaiegunetan > 26



> **ARETXABALETA**  
Paulo Letona  
abadearen urrezko  
ezteietarako,  
bazkaria > 32



> **OÑATI**  
Jaietako ekitaldi  
nagusien argazkiak  
eta egunotako  
egitaraua > 34-35



> **ARAMAIO**  
AHTrako sarbide  
asko egin dituzte  
dagoeneko Zabola  
auzoan > 38

ARRASATE > JAIK

## Musika eta parranda: Arrasateko gau dotorenean, guztiak kalera

### ESKAPULARIOAK

Eraso sexisten gaia jorratu dute atzealdeko bertsoan

### NEGURI GORRIAK

Bilboko gaztetxe bat bete ondoren, talde mitikoaren abestiak berreskuratuko dituzte Maritxutan

NEREA MENOR > ARRASATE

Joan den egubakoitzeko Nobenai-xoko ekitaldiek iragarri bezala, Maritxu Kajoi gurera heldu da dagoeneko. Antolaketa lanetan hilabete eman ondoren, etxafuegoak goizeko zortzietan ziren esnatzeoak arrasatearrak. Parranda, kontzertuak eta urteroko giro bikaina izango dira gaurko protagonistak.

Komisiñuek eskapularioa janztea garrantzitsua dela gogorarazi du. Ez baduzue oraindik eskapulariorik lortu, eguerdi eta arratsaldean parrokian, Arbola-petan eta Montan salduko dira euro bitan.

Aurtengo eskapularioek eraso sexisten gaia landu dute bertsoan. Gai berarekin jarraituz, gaurko, 19:00etarako, eraso sexistak salatzeke kale agerraldia deitu du Euskal Herriko Bilgune Feministak. Udan zehar eraso sexistak izan direla azaldu dute: "Horieta-ko asko jai giroan gertatu direla kontuan hartuta, eraso horiek salatu eta jaiak, kaleak eta gauak emakumeonak ere badirela" aldarrikatu nahi dute. Plazan izango da eta lelo hau erabiliko dute: *Eraso sexistei erantzun!*

### MARITXUTAN ERE KRISIA

Pil-pilean jarraitzen duen krisi famatuak ere parte hartuko du jaietan. Jatetxeak ia beteta dauden arren, "jendeak kontu handiagorekin egiten ditu erreserbak", diote Kanpazar jatetxetik. Menu berezi bat dute Maritxutarako: 50 eurorengatik txangurroa, oreina,



Eskapulario eta guzti arrasatearrek soineko eta traje dotoreenak jantziko dituzte txikiteroen eguna ondo ospatzeko.

GOIENKARIA

### Gaur, egubakoitza...

08:00: Etxafleruak.  
09:30: Egun osuen bisita gidatuak atxabalarentzat Kulturaten.  
10:00: Harrera autopista irteeran, GPS-ak galdute etorri dien txofer frantsesei.  
11:00: Errealeko jokalariek Eroskioko baloioek firmauko dituzte Atxabalpen.  
17:30: Adin guztietako umiendako haur antzerkixa Auskalon eskutik.  
18:30: Plazatik hasita Mondrauko kalietan zihar Dragoialde txaranga beteranue.  
18:45: Herri kontsulta Seberon: ardaue gorrixa ala beltza?  
19:00: Maritxuren txaranga (Oria txaranga) gure belarriak gozaraziko dituzte.  
20:00: Aurreko trajien arrakasta falta dala ta, udaltzainak Armanik diseinatutako traje berriak erakutziko dituzte.  
20:30: Maritxuri lore eskaintza.  
00:00: Herriko plazan Jo ta Hanka eta txosnetan Neguri Gorrien kontzertua.  
03:00: Kontzertua Gesalibarren: Harrikada eta Bruce Zipritin.

zainzuriak... dastatzeko aukera dago. 12 euro gutxiagorengatik, bakailao entsalada, txuleta, sorbeta eta beste gauza asko biltzen dituen menua dute. Sara jatetxean 36 euroko menu berezia dute, langostinoz, bakailaoz, solomilloz eta abarrez osatua.

Jantziei dagokienez, Meherdendan krisia igartzen dutela azaldu digute: "Soineko asko saldu ditugu, baina traje gutxi". Gizonezkoek ohiko trajea erabiltzen dute normalean: "Baina hiru botoi dituen traje modernoago bat ere badugu". Emakumeen artean soineko beltz luzeak dira arrakastatsuenak; hala ere, "koloretsuak ere saltzen dira eta batzuek motzak erosten dituzte". Ceciagan ere krisia igarri dute: "Urte osoan zehar gutxiago saldu dugu eta bagenekien Maritxutan ere horrela izango zela". Traje beltzak eta soineko luze ilunak saltzen dituzte gehienbat: "berenjena kolorekoak adibidez, moda-modan daude". Traje osoak 100 euro inguruan saltzen dira; soinekoei dagokienez, prezio guztietakoak daude: 58 euro, batez beste.

Bazkaltzeko edo afaltzeko lekua aurkitu eta jantzi polit bat

aukeratu ondoren, ilea apaintzea besterik ez da geratzen dotoredore egoteko. Ile-apaindegietan eskaintza bereziak egin dituzte: 33-38 eurorengatik orraztu eta makillatuko dira arrasatearrak. Gaztetxoek kizkurtu egiten dute ilea eta ez dute askorik biltzen; gainerakoek bilduta eramatea gustuko dute. Margoei dagokienez, "oso makillatuta joatea dute gustuko", diote Gorka ile-apaindegian. Zirt Zart ile-apaindegian aurreko urtetan baino leku gehiago dutela

azaldu digute: "Nahiko beteta dagoen arren, aurreko urtean baino erreserba gutxiago izan ditugu".

### GAUEAN KONTZERTUAK

Gauerdian, txosnagunean, Neguri Gorriak taldearen kontzertua egongo da. Euren helburua Negu Gorriak talde mitikoaren abestiak berreskuratzea da. Bandaren ezizen eta itxura berarekin igotzen dira agertokira. Gauean, kontzertu gehiago egongo dira Herriko plazan eta Gesalibarren.



Neguri Gorriak taldeak txosnagunean joko du gaur gauean.

GOIENKARIA

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 4	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Domeka, 5	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Astelehena, 6	Español	Araba, 4	943 79 18 65
Martitzena, 7	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09
Eguaztena, 8	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16
30Eguena, 9	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Egubakoitz, 10	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99

BERGARA

Zapatua, 4	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 5	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 6	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Martitzena, 7	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 8	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 9	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitz, 10	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15

ONATI

Zapatua, 4	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 5	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 6	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 7	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 8	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 9	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitz, 10	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58

ARETXABALETA

Zapatua, 4	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 5	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 6	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Martitzena, 7	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 8	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguena, 9	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Egubakoitz, 10	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))  
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udaltzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 53 33
Aretxabaleta.....	943 79 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Manikomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzgia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecor, Urizarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecor, Urizarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geraletan: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarretetik irteerak**  
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geraletan: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietta, Mugertzta, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	08:05	08:05
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezerperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 4

Eguraldia hobera egingo du; hodei gutxi. Zaparradaren bat ere bota dezake. Arratsalde amaiera eguzkitsua. Goiz partean izotza botatzeko arriskua.




Domeka, 5

Zapatuko eguraldi bera mantenduko da. Laino tarte gutxiago egongo da eta temperatura mantendu egingo da.

EUSKAL HERRIAN

Asteburuan eguraldiak hobera egingo du. Aldaketa nabarmena izango da hegoaldean, zerua hodei gutxirekin geratuko baita, goizean goiz hodeitsu agertu arren. Iparraldean hobekuntza ez da hain berehalakoa izango eta zaparradaren bat botako du oraindik.



oharrak eta deialdiak

ARRASATE

**> Literatura solasaldietarako izenematea**

Euskarazko eta gaztelaniako literatura solasaldiak antolatu ditu Udala. Liburutegiak. Euskarazkoak Iban Zalduak koordinatuko ditu, eta urriaren 28an izango da lehena; gaztelaniakoak Rikardo Arregik zuzenduko ditu, eta urriaren 22an hasiko dira. Izenematea zabalik dago urriaren 17a arte, liburutegian.

BERGARA

**> Musikaterapia ikastaroaren izenematea**

Martitzenean, urriak 7, bukatuko da musika eskolak eskaintzen duen musikaterapia ikastaroaren izena emateko epea. 50 euro da eta leku kopuru mugatua dago. Ikastaroa urriaren 14an hasi eta abenduaren 2an bukatuko da. Ordutegia: 19:30-21:00.

ANTZUOLA

**> Lokomozio aparatuen gaineko berbaldia**

Lokomozio aparatuen inguruko berbaldia antolatu dute erretiratuen elkarteak eta Bizikasik. Hilaren 6an, astelehena, izango da berbaldia, udaletxean, 17:00etan.

BERGARA

**> 1943an jaiotakoak Hondarribira joango dira**

1943. urtean jaiotakoak Hondarribira irteera egingo dute urria-

ren 25ean. Bisita turistikoa, txikiteoa eta bazkaria izango dituzte han. Izenematea zabalik dago hilaren 20a arte, Fernandez oihaldendan (943 76 53 22) edo Arantxa Askasibarri deituta (943 76 18 13).

ESKORIATZA

**> 1958an jaiotakoek, Errioxara irteera**

50 urte egiten dituztela ospatzeko, Errioxara irteera egingo dute 1958an jaiotakoek urriaren 18an. Parte hartzeko, 50 euro sartu Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

ARRASATE

**> Elikadura natural eta energetiko ikastaroa**

Jesus Romero sukaldaritza naturalean adituak elikadura natural eta energetikoren gaineko ikastaroa emango du, eta izenematea zabalik dago. Argibideak: 943 77 16 70 / 695 78 00 58 / [jesusrom@euskalnet.net](mailto:jesusrom@euskalnet.net).

ANTZUOLA

**> Ate irekien jardunaldiak Torresoroan**

Herriarrek Torresoroa ezagutu dezaten, ate irekien jardunaldiak izango dituzte hilaren 10ean, 18:00-20:00, eta 11n eta 12an, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

ANTZUOLA

**> Biodantza ikastaroa hasiko da urrian**

Biodantza ikastaroa emango du Juan Manuel Pascualek eguenetan, hamaboste-an behin, 19:00etan. Lehen saioa doan izango da. Izenematea, Itzar dendan.

ARRASATE

**> Yoga ikastaroa eman-**

go dute Arrasaten Sanatana Dharma Yoga Eskolak ikastaroa emango du, astelehen eta eguztenetan (09:30-11:00) eta martitzen eta eguenetan (19:15-20:45). Argibideetarako: 635 71 06 16 (Maite) / 943 78 31 26 (Ana).

TEMPERATURAK

MINIMOA	5 °C
Domeka, 28	
MAXIMOA	26 °C
Domeka, 28	
ASTEKO EURIA (l/m <sup>2</sup> )	0,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 24	18 °C	10 °C	0,2 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 25	20 °C	9 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitz, 26	20 °C	8 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 27	25 °C	6 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 28	26 °C	5 °C	- l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 29	21 °C	7 °C	0,5 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 30	20 °C	8 °C	- l/m <sup>2</sup>

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA URRIAN



Ilgora 7 Ilbete 14 Ilbehera 21 Ilberri 28

ARRASATE

**> Masaje bateratu ikastaroa emango dute**

Urriaren 8tik abenduaren 17ra, masaje bateratu ikastaroa emango du Yoga Elkarrekin, eguztenetan, Natura Enean, 21:00-22:30. Izenematea: 943 79 35 76 / [www.arrasateyoga.org](http://www.arrasateyoga.org).

ARETXABALETA

**> Gazteendako sukaldaritza ikastaroa**

18 urtetik gorako gazteek hasiera mailako sukaldaritza ikastaroa egiteko aukera dute. Urriaren 22an hasi eta azaroaren 19an bukatuko da, eguztengero, 19:30-21:30. Izenematea zabalik dago kultura etxean.

DEBAGOIENA

**> Kulturartekotasuna-gaineko ikastaroa**

Immigrazioa eta kulturartekotasuna aztertzeko ikastaroa antolatu dute TAUK eta Gipuzkoako Caritasek urriaren 11rako, Gandiaga Topagunean, Arantzazun. Izen emateko azken eguna urriaren 6a, astelehena da. Argibideetarako: 943 28 99 56 / [tauss@taufundazioa.org](mailto:tauss@taufundazioa.org).

BERGARA

**> 1940ko kintoen ospakizuna Azeptxin**

1940ko kintoen urteroko batzarra egingo dute azaroaren 8an. Antolatzailak jakinaraziko diete datu gehiago interesatuei.

ARRASATE

**> 'Eraso sexistei erantzun!' leloarekin elkarretaratzeko deitu dute gaurko, egubakoitz**

Gaur, egubakoitz, udan izan diren eraso sexistak -bortxaketak, jipoiak, erasoak, heriotzak...- salatzeko elkarretaratzeko egingo du Arrasateko Bilgune Feministak, Herriko plazan, 19:00etan, *Eraso sexistei erantzun!* leloarekin. Maritxu Kajoi eguna aukeratu dute, "eraso asko jai giroan gertatu direlako".

943 25 05 05

[goienkaria@goiena.com](mailto:goienkaria@goiena.com)



kale inkesta

# Jarri berri dituzten konposta ontziak erabiltzen dituzu?



**Cristiana Silva**  
Langilea  
Aretxabaleta



**Hilario Bartolome**  
Erretiratua  
Aretxabaleta



**Angel Iñurrategi**  
Erretiratua  
Aretxabaleta



**Karmele Untzueta**  
Langilea  
Aretxabaleta



**Mila Urtzelai**  
Langilea  
Aretxabaleta

Ondo iruditzen zait hala-ko ontziak egotea, nahiz eta nik ez dudan oraindik Udalaren eskaintzan izenik eman. Beharrezkoa ikusten dut, bestela zabor ezberdinak nahastuko genituzkeelako.

Ez dut erabiltzen, nahiz eta beste lau ontziak erabiltzen ditudan. Egia esan, ez dakit jendeak askorik erabiliko dituen. Banaketa horietaz guztietaz jendea kontzientziaztea zaila ikusten dut.

Ez dut erabiltzen, baina ondo iruditzen zait. Ontzi horiek erabiltzeko izena eman duen jendea kontzientziaturik egon da. Izenematea berriz zabalduko balitz, nik duda barik emango nuke izena.

Ez dut izenik eman, nahiz eta izena emateko asmoa badaukadan berriz ere zabaltzen dutenean. Norbera antolatu behar da zabor banaketa egiteko orduan, atera behar dena egunero ateratzen.

Ez dut izenik eman bostgarren edukiontzirako. Janaria, gainera, poltsa berezietan sartu behar da, bestela usaina ateratzen du. Izena emateko epea zabalduko balute, emango nuke.

txistuak



MIRARI ALTUBE

## Nork moztu du zuhaitza?



Herritar batek jakinarazi digu Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako kantxan dagoen zuhaitzetako bat moztu egin dutela. Eta ez direla umeak izan dio herritar horrek, aihotz edo aizkora txiki batekin egindako lana delako. Gainera, alboko beste zuhaitz batzuekin ere saiatu zirela adierazi digu herritar horrek.

ustek uste

Irati Agirreazaldegia

## Zahar eta gazte, horma artean aske

**N**egua, zaharren hilgarri eta gazteen zahargarri. Zahar eta gazte ez dira geratuko neguaren aurrean aurten barregarri, aterpea badutelako guztien babesgarri.

Antzuolan, udazkenaren atarian, gazte txokoa eta gizarte etxea abian. Beharra ere jakina zelako agian.

Gazte txokoarendako tokia Errekalde. Zertarako gazte txokoa? Erabiltzaileei galde. Ondo pasatzeko eta egoteko lekua izanik aste bukaeretan nola egin gaztetxoek handik alde?

Errekaldetik Torresoro-ara edo soroko dorrera. Gizarte etxe berrian izango da hamaika aukera. Egune-ko zentroa martxan eta erretiratuen lokala ere egun batetik bestera.

Horrelako tokiarekin inor kexatzeko moduan ote da? Aukeran isilik egotea eta erabiliz gozatzea hobe da.

Zahar eta gazte aterpe berean nahikoa nahaste, baina bakoitza berean, lau pareten artean izan arren, sentitzen dira aske.

Gazteak baleki eta zaharrak baleza, denekin asmatzea ez da erreza. Baina Antzuolan, neurri batean bederen bete da gazteen eta zaharren nahia edo ametsa. Udazken eta negurako badute teilatupea, badute babeska. Eta garaio-tan teilatua lortzea hain eskura dagoenik ez pentsa.

5 galdera...

## Eli Madina

Mondragon Lingua Oñati

### 1. Txinera moda dagoen hizkuntza da. Zer dela eta?

Alde batetik, Ipar Ameriketako eta Europako ekonomia eta enpresa munduek hazteko duten aukera bakarria merkatu berriak aurkitzea da eta beraiendako merkatu garrantzitsuen Txinan aurkitu dute. Beraz, ekonomikoki ardatz direnek hara begira jarri gaituzte, eta kultura hori eta, noski, hizkuntza bera ere ezagutzeko grina sortu digute. Aurten, gainera, Olinpiar Jokoa-ak direla-eta modan modan dago Txina.

### 2. Noiz hasi zineten txinera ikastaroak ematen eta zergatik?

Orain dela lau bat urte hasi ginen ikastaroak ematen, geroz eta eskaera handiagoa sumatu genuelako. Batez ere, enpresa eta Mondragon Unibertsitateko ikasleengatik dator eskaera.

### 3. Jendeak asko eskatzen ditu txinera ikastaroak? Urtetik urtera gehiago edo gutxiago?

Urtetik urtera eskaera handiagoa da.

### 4. Ikasleek diotena kontuan hartuta, ikasteko egon daitekeen hizkuntzarik zailena izan daiteke txinera?

Zaila dela esaten dute, alde batetik sinboloak erabiltzen dituztelako idatzizkoan eta ahoskatzeko orduan doinuak. Beste hizkuntza bat ikasten ari garenean gure ama-hizkuntza erabiltzen dugu erreferentzia moduan, eta txinera eta euskara guztiz desberdinak direnez, euskarak ez digu erreferente moduan askorik laguntzen txinera ikasteko orduan. Nire ustetan, txinera erakargarri egiten duena hori da, hain desberdina izatea.

### 5. Hizkuntza bat ikasten hasteko badago adin mugarik?

Ezetz esango nuke; noski, zenbat eta lehenago hasi, hobeto, baina ikasi edonork ikas dezake. Baldintza bakarrak: gogoia, denbora eta lotsarik ez.



asteko datua

# 300

Bihar, Oñatiko Herri Egunean, unibertsitate aurrean erabili eta botatzeko 300 alkoholometro banatuko dituzte, 20:15etik 22:15era bitartean. Duela bi urtetik Udaleko Prebentzio Sailak aurrera darman ekimena da. Proba horiek doakoak eta nahi duenak egitekoak izango dira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



Gurasoak eta hezitzaileak, ikastolako alanbrada margotzen. ERRUKANE APERRIBAI

HEZKUNTZA &gt; ARIZMENDI IKASTOLA

## Guraso eta hezitzaileak batera, eskola txukuntzen

U.M. &gt; ARRASATE

Elkarlanean jardun dute Arizmendi ikastolako Haur Hezkuntzako Uribarri guneko guraso eta hezitzaileek asteon, erai-kinaren ingurua txukuntzen.

Uztailean egokitzapen obrak egin dituzte eraikin hartan, 2008-2009 ikasturteari begira: "Iaz hasi ginen Uribarri, 0-1 urte arteko hezkuntza eskaintzen eta aurten obrak egin ditugu eskaintza hori 2 urtera arte zabaltzeko. 60 bat ume ditugu aurten", azaldu du Edurne Baltategik, Arizmendiko prentsa-buruak.

Bestalde, guraso eta hezitzaileen elkarlan hori goraipatu egin du ekimenean ibili den Errukane Aperribai gurasoak: "Ekimena txikia bazen ere, guraso naizen aldetik, hezitzaile taldeari eskertu gura diot gurasoen parte-hartzea bultzatzeko egiten duen ahalegina. Ni ume nintzenean gurasoekin *Ikastolako tabernara* kroketak eramatera joan nintzenekoa ekartzen dit burura!", kontatu du hark. Eta halako ekimenez umeendako duten garrantzia ere azpimarratu gura izan du.

OBRAK &gt; OSPITALE GUNEA

## Oinezkoendako bidea, ospitale ingurura joateko

Ospitaleko gunea herrigunearekin lotzeko oinezkoen pasabidea egiteko proiektua landu dute

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Arrasateko Udalaren aspaldiko nahia izan da ospitaleko gunea herrigunearekin lotzea, oinezkoen pasabidea errazteko. Izan ere, orain arte erreka bidea jarraitzen zuten automobilendako eta oinezkoendako eginda zeuden herriko pasabideek. Horrek arazo handiak eragin dizkie, bai zirkulazioari, bai oinezkoen. Eta hori konpondu nahian, apurka-apur-

ka sare moduko egitura lantzen dabilta udalerrian. Egitura horretan sartuko da, hain justu, orain egin gura duten pasabide berria; izan ere, "oinezkoendako korridore transbersala" sortu gura dute, Juan Antonio Urdangarin Hirigintzako teknikari-buruak definitu duen moduan. "Santa Marina ingurutik jaitsi eta Gipuzkoa etorbideetik zehar zuzen zuzen ospitaleko gunera joateko komunikazio naturala izango da hori", eman du aditzera Udaleko teknikariak.

OINEZKOENDAKO ZUBIA

Azalpenen arabera, une honetan esparru hutsa dago ospitale ingurutik Gelmako etxeetarako tar- te horretan. Hala, bi aldeak lotze-

ko, oinezkoendako zubia eraiki-ko dute. "Obenerreka enpresak (Gelmako etxeen egileak) eraiki-ko du zubi hori", azaldu du Urdangarinek, eta gaineratu du hortik aurrerako guztia definitzeko dagoela eta justu asteon onartu dutena horixe dela: urbanizazio proiektu horren idazlana adjudikatzeko agiria. Proiektuan definituko dute definitu beharrekoa.

Proiektua zeinek idatziko duen erabaki eta gero, bost hilabeteko epea du hark lana entregatzeko, "baina epe hori zatika bete beharko dute. Tartean Udalak proiektua aztertu, jendaurrean ipini eta halako jardunak egin beharko ditu-eta. Guztira, urtebete inguru beharko dugu proiektua mahai gainean izateko".



AMAIA AZPIAZU

## Zinemaldiko izen handiekin, Zurriolan

Donostiako Zinemaldira urtero-urtero gerturatzen da Arrasateko herritar bat baino gehiago filmak ikustera, jakina; baina baita Zinemaldiak ekartzen dituen aurpegi ezagunak ikustera ere. Oraingo asteko argazkia da adibide. John Malkovich aktorea zetorrela-eta, hura ikusi nahian joan ziren Amaia Azpiazu eta Koro Atxa arrasatearrak. Bada, ez zuten John Malkovich bera harrapatu, baina bai Courtney Hunt -*Frozen River* filmaren zuzendaria- eta Melissa Leo aktorea eta aurtengo Emakumezkoen Zilarrezko Maskorra.

**islada**  
ile apaindegia

**ZABALDU BERRIA!**

**Zure irudia gure berrikuntzetan**

Uribarri etorbidea 6 behea 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: [isladaileap@hotmail.com](mailto:isladaileap@hotmail.com)

**IDIOMASTER**  
ARRASATE

Ondo pasa Marixutan eta hurrengo astean ikusiko gara!

**hizkuntzak**  
Ingelesa, Frantsesa, Alemana

Otalora 29 - 20500 ARRASATE  
Tel./ Faxa: 943 79 07 84

[idiomaster@euskalnet.net](mailto:idiomaster@euskalnet.net) [www.idiomaster-arrasate.com](http://www.idiomaster-arrasate.com)

ETXEBIZITZA > ZERRAJERA

# Irailean estreinatu dituzte Zerrajerako babes ofizialeko etxeak

Eskritura batzuk sinatzea falta da; azarorako guztiak eginda izango direla dago aurreikusita

UBANE MADERA > ARRASATE

Zerrajerako babes ofizialeko 200 etxebizitza (100 saltzeko eta 100 alokairurako) uztailean inauguratu ostean (2008-07-07), asteotan dabilta jabeekin azkeneko eskriturak sinatzen.

Etxebidek emandako informazioaren arabera, etxebizitzaren %100 dago adjudikatuta. Horietatik %65en eskriturak eginda daude eta etxebizitzak jabeei entregatuta.

Kopuru zehatzak begiratu, 35 etxebizitzatako eskriturak sinatzea besterik ez da falta, eta Etxebideren aurreikuspenen arabera, asteen 80 etxebizitzaren eskriturak eginda egon beharko lukete. "Falta diren 20etatik 18ren eskriturak urriaren lehenengo hamabostaldian egingo dira", azaldu du Pilar Matiasek, Etxebideko prentsa arduradunak.

Gaineratu du beste bi etxebizitzaren eskriturak urriaren edo azaroan egingo dituztela. Zailtasunak dituzten pertsonendako etxebizitzak dira horiek, eta eskriturak sinatzea burokrasia kontuengatik atzeratu dela azaldu dute Etxebidetik.

Zerrajerako etxebizitzak 58, 79 eta 90 m<sup>2</sup> artekoak dira, bi edo hiru gelakoak eta bainugela bat edo bikoak, garaje eta trastelekuarekin. 95.000 eta 128.000 euro artean kostatzen dira.



Zerrajera inguruko aurreneko bizilagunek estreinatu dituzte etxeak.

U.M.

> GRIPEAREN AURKAKO KANPAINA

## Gripearen aurkako txertoa ipintzen ibiliko dira auzoz auzo, astelehenean, urriaren 6an hasita

Gripearen aurkako kanpaina abiarazi dute; txertoa hartu ahal izango da anbulatorioan bertan edo, bestela, zailtasunak dituzten pertsonen begira, auzoetara ere joango dira Osakidetzako langileak. Hala, astelehenean, urriaren 6an, San Andresko alkateztan izango dira; martitzenean, berriz, Abaroakoen txanda izango da; eguaztenerako, Uribarriko zaharren egoitzan egin dute hitzordua; eguenean Santa Marinako zaharren egoitzan; eta egu-bakoitzean, urriaren 10ean, Musakolako zaharren egoitzan.

> LANA

## Behin betiko hamar lanpostu betetzeko beharra dauka Arrasateko Udalak

Arrasateko Udalak 2008ko lan eskaintza deitu du eta urriaren 20ra arte eman daiteke izena. Hamar lanpostu betetzeko dei egin du Udalak; honako hauek: administraria, hiru administrari laguntzaile, euskaltegiko irakaslea, delineaizaile, hodi iturgina, kulturako laguntzaile eta kultura ekintzetako laguntzaile bi. Informazio guztia xehetasunekin aurki daiteke Arrasateko Udalaren webgunean: [arrasate-mondragon.org](http://arrasate-mondragon.org). Edo bestela, Biztanleen Arreta Zerbitzuan edo Arrasateko Udalaren Enplegu sailean.

> ERRETIRATUAK

## Luncha izango dute Abaroan gaur, Maritxu Kajoiengatik, eta datorren astean, hitzaldia

Gaur, Maritxu Kajoi eguna, 18:30ean hitzordua egin dute Abaroa erretiratuen egoitzan, txikiteroen zaindariaren omenez luncha egiteko (gonbidapena eramatea komeni da). Horrez gainera, datorren asteari begira, iragarri dute eguaztenean, urriaren 8an, txizaren inkontinentziaren gaia landuko duela Manuel Solorzano hizlariak. 18:15ean da hitzordua, Abaroako bosgarren aretoan. Bestalde, jakinarazi dute dantzako hastapen ikastaroa joan den eguaztenean (urriaren 1ean) hasi zutela.

# Aurpegi-gaztetzea kirurjia barik

**Emaitza natural eta osasungarriak lortzen ditugu aurpegi-espresioa aldatu barik.**



**Amagara**

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09

## Ondo pasau Maritxutan!

Sakonki hidratatu, indarberritzeko eta azala argitzeko.

• Substantziak aplikatu eta infiltratu, kologenoa berritzeko eta elastinaren fibrak estimultzeko. (Azido hialuronikoa)

• Zimurrak difuminatu edo kendu, bekokikoak, begitartekoak eta begi ondokoak. (BOTOXA)

• Galdutako bolumenak bete edo lehengoratu eta lifting efektua lortu.

MENDIA &gt; BESAIDEKO HAMABOSTALDIA

# Astelehenean hasiko dute mendi hamabostaldia

Astelehenean eta eguaztenetan, iluntzean, ikus-entzunezkoak egingo dituzte Kulturaten



Ketxuma-k izotz eskaladaren gainean egingo du berba, hilaren 15ean. GOIENKARIA

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Besaide Mendi Elkartek gertu ditu mendi hamabostaldiko ekin-tzak. Astelehenean bertan hasiko dituzte ikus-entzunezkoak, eta guztira lau egingo dituzte.

Hasteko, astelehenean, hilak 6, *Cañones y barrancos de Euskal Herria* izeneko lana aurkeztuko dute Angel Jose Martinezek eta Koldo Alavak. Eguaztenean, Bolivia aldean bizikletan bizi izandakoak kontatuko ditu Ramon Arrizabalagak. Datorren astean, berriz, astelehenean, hilak 13, Fidel Mendiak mendi eskia eta *freeride*-a izango ditu berbagai, eta Kaukasooan eta Piri-nioetan batutako irudiak erabiliko ditu ikus-entzunezkoan. Eta amaitzeko, eguaztenean, hilak 15, Jesus Mari Barrenak *Izotz eskalada Kanadan* lana aurkeztuko du. Hitzordu horiek guztiak Kulturaten izango dira, 19:00etan.

MENDI IRTEERAK

Aste barruko hitzordu horiekin batera, aire zabalean egiteko hainbat ekimen antolatu ditu Besaidek. Batetik, urriaren 12an beteranoen 31. martxa egingo dute, Udalatzeko inguruetan, eta urriaren 18an eta 19an Gredosko mendizerrara egingo dute irteera (izena emateko egunak urriak 7 eta 8, 19:30etik 20:30era).

Amaitzeko, urriaren 11n mendi bizikleta irteera egingo dute, 10:00etan Musakolan.



Iazko taldea Karlos Linazasoro idazlearekin solasean.

UDAL LIBURUTEGIA

KULTURA &gt; LITERATURA SOLASALDIAK

## Urriaren 22an ekingo diete solasaldiei Kulturaten

Izenematea zabalik dago hilaren 17ra arte, eta euskaraz eta gaztelaniaz izango dira saioak

MIRIAN BITERI &gt; ARRASATE

Aurten ere literatura solasaldiak antolatu ditu Arrasateko Udal liburutegiak. Ohikoa den moduan, euskaraz eta gaztelaniaz izango dira eta hizkuntza bakoitzeko hilean hitzordu bakarra egongo da.

Euskarazko saioak urriaren 28an hasiko dira: Jokin Muñoz nafarraren *Antzararen bidea* nobelaz jardungo dute; azaroaren 25ean, berriz, Charles Bukowskiren *Infernuko hestetan* izeneko poema bildumaz; eta abenduaren 16an, Mikel Hernandez Abaituaren *Ohe bat ozeanoaren erdian* nobela izango dute berbagai.

Gaztelaniazko saioei dakie-nez, lehenengo solasaldia urria-

ren 22an izango da; Luis Cernuda poetaren *Antologia* liburuz eztabaidatuko dute egun horretan. Azaroaren 19an, Abraham B. Yehoshuaren *Una mujer en Jerusalem: pasión en tres actos*; eta abenduaren 17an, Eider Rodriguez idazle gaztearen *Y poco después ahora* kontaeraren gainean jardungo dute.

IBAN ZALDUA KOORDINATZAILE

Euskarazko solasaldiak Iban Zalduek koordinatuko ditu eta gaztelaniazkoak Rikardo Arregik. Izenematea dagoeneko zabalik dago. Interesa duenak Kulturateko liburutegian eman behar du izena. Urriaren 17an amaitzen da horretarako epea. Solasaldiak Kulturaten izango dira.



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Toilgailuak

Stand-ak


Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erlebedun hizkiak



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabiloia  
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**Monte taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**UGARAN**

Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



**Kapikua**

OPARIAK ETA OSAGARRIAK

Maritxutarako osagarriak

Bañez doktorea 4  
(San Andres auzoan)  
Arrasate  
Tel.: 943 79 19 94



**MEHER**



Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

Bañez doktorea 1  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 63 85

Zure ametsetako  
maritxak trajea dugu...  
der galant hori.  
turriar  
ahi bade  
turriar  
rdotxo txu  
dango  
degun guz

# Casa Ceciaga



**Casa Ceciaga 2008**  
101 urte  
(Ardo onak nola, urterik urte hobetuz...)

Aurten ere  
festarako ehunka soineko eta traje  
eta milaka osagarri ditugu  
zure gaurik gogokoenerako

## Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3  
ARRASATE  
Tel/Faxa: 943 79 12 62

**Maritxu Kajoi 2008**  
31 urte



Oñatiko Iker Sukaldeak-en erakusketa aldaketagatik

**Beherapen ikaragarriak**

**Zatoz ikustera!**

**iKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*




**gelatzu.**

Zubillaga auzoa 1 OÑATI

Tel.: 943 71 63 22

Faxa: 943 78 15 51



Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

kanpotarrak arrasaten

**Alfredo Hernandez** > mexikarra  
Ingenieria

# "Arrasatetik gehien harritu nauena eguraldia izan da"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Alfredo Hernandez mexikarra da, Coacalcokoa. Iraila hasieran etorri zen gure artera sei hilabete pasatzerako. Metalurgia ingeniaria da, eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoan egonaldi honetan zehar irakasuntza mailan aplikatzeko ikerketa bat eramango du aurrera.

Hernandez gustura da gure artean. "Jende jatorra eta adeitasun handikoa da Arrasatekoa". Ferrerías kaleko etxebizitza batean bizi da beste ikasle batzuekin batera. Arrasate eta Coacalcoren arteko desberdintasun nabarmena bertan bizi den jende kopu-

ruan dago: "Arrasaten 23.000 pertsona inguru bizi diren bitartean, Coacalcon 400.000 inguru bizi dira. Hala eta guztiz ere, tamainan desberdinak izan arren, erraz moldatzen da edonor bietako egoera eta ohituretara". Janariari dagokionez, Hernandezek adierazi digu Mexikon eta Arrasaten era-

**"Erraz moldatu daiteke edonor Arrasatera edo Coacalcora, nahiz eta biztanle kopuruan desberdinak izan"**



Alfredo Hernandez.

biltzen diren lehengaiak antzerakoak direla; "aldatzen den gauza bakarra prestatzeko era da", adierazi du.

**EUSKARA, ERRONKA BAT**

Hernandezendako, euskara erronka bat da: "Euskara hizkuntza oso interesgarria da eta zaila aldi berean. Euskarazko hitz erraz batzuk ikasi ditut -kaixo, ongi etorri, besteak beste- baina hitz solteetatik elkarrizketa bat sortzerainoko alde handia da benetan".

Arrasatetik gehien harritu duena, bertako eguraldia izan da: "Paisaia menditsua da, basoekin, pinuekin, gaztainondoekin... Hala eta guztiz ere giroa hezea eta beroa da eguerdian; Mexikon, berriz, halako giro batendako ohikoagoa izango litzatekeen landaretza palmondoak, laranjondoak... izango lirakeke".

Mexikon, emaztea eta bi seme alaba utzi ditu, eta Hernandezek dioen moduan "familia hain urrun edukitzea da honek guztiak daukan alde txarrena".

bere ustez



Nerea Makazaga

## Shashemene, sustraiak eta mitoak

Sonoritate goshoa eskaintzen du: Shashemene. Izen polita iruditu zitzaidan herri batentzat, sortzerriarentzat, sustraien ongi-torriarentzat, guretzat ez bazen ere. Autobus zahar batean iritsi ginen, kanpoak lokaztuak eta barruak mugituak, nahastuak, eguraldia bezala.

Eta iritsi ginen, ez esklabutza baten pisuaz gure bizkarretan, ezta Karibeko irla bat antzean utzita ere. Iritsi ginen, beste gizarte batetik, entzuteko prest dagoenaren

## "Bigarren bisitaldiak finkatu zuen, aldiz, pertsonaien azken argazkia"

begirada irekiaz baina norberarena den ikuspuntu tinkoari eutsiz.

Bananaren artean oinarritutako irudiek lekutu zituzten filosofiaren lehen pusketak, elkarrizketa luze baten arnasan. Eta elizako ate barruetan egin zuten eztanda ulertu eta ez ulertuek, ate irekiek eta itxiek, ahots autoritario baten giltzaren menpe.

Bigarren bisitaldiak finkatu zuen, aldiz, pertsonaien azken argazkia. Kontzertu arritmikoa eskenatoki, gardendu ziren eraikineko leiho zurrunenak. Han utzi genituen Ras Tafarien jarraitzaileak, Haile Selassie deituko zuten erregearen mitoan amesten, ke lainoetan babes-tuta.

txutxu-mutxua

## Globo aerostatikoa izan zuten Garagartzako jaietan

Joan den asteburuan ospatu zituzten Garagartzako auzoan San Migel jaiak, eta aurten lehen aldiz globo aerostatikoa izan zuten domekan, egun guztian zehar. Globo Merindadeetatik (Araba) ekarri zuten, Tobalina haranetik, eta arrakasta handia izan zuen; izan ere, auzotarrak ez ezik, inguruko jende asko joan zen Garagartzara.



MIKEL MADINABETIA

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

### MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
  - Aglomeratuak
  - Kontratxapatuak
  - Tablexa
  - Ateak
  - Egurrezko leihoak
  - Oin-inguruak
  - Zangoak
  - Aroztegiko osagarriak
- Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea  
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

### arbolapeta



### S. CARRASCAL S.L.

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Erakusketa berria**

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82

### Idoia Ibañez

## ARTISAUTZA

### IKASTAROAK AUKERAN URRITIK EKAINERA!

- Irazki harizko ehundegia, Idoia Ibañezen eskutik
- Ziri enkajea eta bainika, Idoia Ibañezen eskutik
- Eskulanak, Eurne Uribesalgoren eskutik
- Patchwork, Carmen Burgosen eskutik
- Makramea, Idoia Ibañezen eskutik

Erdiko kale 21 - Tel.: 686 08 30 67

ETXEBIZITZAK &gt; ZOZKETA

# Ozaetako etxebizitzaren zozketa oinarriak, onartuta

Etxebiden apuntatuta ez dagoenak Udalean eman dezake izena azaroaren 21a baino lehenago

Garajea eta ganbara izango ditu etxebizitza bakoitzak

OIHANA ELORTZA &gt; BERGARA

Ozaeta auzoan egin behar dituzten 32 etxebizitza tasatuen zozketa egiteko oinarriak onartu ditu Udalak. Asteleheneko osoko bilkuran eztabaidatu zuten gaia eta aho batez onartu zuen udalbatzak.

## 32 ETXEBIZITZA

Guztira 32 etxebizitza egingo dituzte Ozaetan, tasatuak. Horietatik bost Zubiaurreko bost familia lekuz aldatzeko izango dira. Familia horien etxebizitzak adjudikatuta daude dagoeneko; beraz, gainerako 27 etxebizitzak zozketatuko dira izena eman dutenen artean.

Etxebizitza horien zozketan parte hartzeko Etxebiden eman behar da izena. Orain arte apuntatu ez direnek azaroaren 21a arte dute hori egiteko aukera. Etxebizitza horietako bat eskuratzeko zozketan parte hartzeko interesa dutenek Udalean banatuko zaien ereduaren arabera eskaera aurkeztu beharko dute udaletxeko bulego teknikoan data hori baino lehen, azaroaren 21a baino lehen.

Epea pasa ondoren, behin-behineko zerrenda hori aztertu egingo du Eusko Jaurlaritzak, eskatzaileek zozketan sartzeko baldintzak betetzen dituzten edo ez ikusteko. Behin hori eginda, behin betiko zerrenda onartuko du. Zerrenda hori udaletxera helduko da eta Udalak jarriko du zozketa egiteko tokia, eguna eta



Ozaetara doan errepidearen eta saihesbidearen artean dagoen lur sailean ari dira egiten etxebizitza tasatuak. JASONE ZABALA

ordua. "Zaila da esatea zozketa noiz egingo dugun, behin betiko zerrenda Jaurlaritzak pasa behar digulako, baina gure asmoa da urtea bukatu aurretik egitea", dio Agurne Barruso alkateak.

## BI ETA HIRU GELAKOAK

Zozketatuko dituzten 32 etxebizitza horietako batzuk mugikortasuna murrizturik duten pertsonen artean zozketatuko dituzte. Gehienez hiru kide diren fami-

liendako, bi logelako etxebizitzak zozketatuko dituzte eta lau kideetik gora direnen artean, hiru gelakoak. Etxebizitza guztiek garajea izango dute azpian, eta ganbara bana azken solairuan.

Etxebizitza horiek egitearen truke, Udalak 67.200 euro jasoko ditu; hau da, aprobetxamendu urbanistikoaren %10.

OSOKO BILKURA

## PSE-EEren adierazpena eta taxi tarifak

Ozaetako etxebizitza tasatuen zozketako oinarriez gain, beste gai batzuk ere eztabaidatu eta onartu zituzten astelehenean egin zuten ohiko osoko bilkuran. Horien artean, PSE-EE alderdiak aurkeztutako adierazpen instituzionala, ETak Santoñan, Ondarroan eta Gasteizen egindako atentatuak gaitzesteko. Aralar alderdiak proposamen alternatiboa aurkeztu zuen. EAJ eta EA abstenitu egin ziren, Aralarrek alde bozkatu zuen eta PSE-EEK eta Agurne Barrusok, Enara Mingezek, Mikel Elkorobereibarrek, Maite Guridik, Aitor Goitik eta Roberto Martinezek aurka bozkatu zuten. Azken horiek eta Aralarrek PSE-EEren proposamenaren aurka bozkatu zuten eta alde EAJK, EAK eta PSE-EEK. Horrela, bi mozioak onartu gabe gelditu ziren.

Bestalde, taxien tarifak ere onartu zituzten asteleheneko osoko bilkuran. Debagoieneko taxi batzordeak adostutako tarifak onartu zituen Bergarako udalbatzak.

## BI URTE ETA ERDI

Inmobiliaria Bitxor enpresak egingo ditu Ozaetako etxebizitza tasatu horiek. Lau solairu izango dituen atari bakarrean egingo dituzte 32 etxebizitzak. Dagoeneko egin dute garajeak egiteko zuloa; bi solairutan egongo dira garajeak, lur azpian. Hilabete honetan, urriaren, eraikinarren zutabeak jasotzen hasiko dira eta lanak bi urte edo bi urte eta erdi barru bukatuko dituztela aurreikusiko dute.

## ERLIJIOA

### Meza orduak eta hileta lekuak aldatu dira

Bi hileta daudenean, lehenengo hil denaren parrokiaren egingo dituzte biak

O.E. &gt; BERGARA

San Pedro eta Santa Marina-ko parrokiaren arduraz gain, Antzuolako parrokiarena ere badute orain Bergarako bi apaizek, eta horrek aldaketa batzuk ekarri ditu. Herriko parrokiatako eta auzoetako meza orduak, adibidez, aldatu egin dituzte, eta baita hiletak egiteko orain arte jarraitu den irizpidea ere.

## HILETAK EGITEKO IRIZPIDEA

Orain arte hildakoaren parrokiaren egin izan dituzte hiletak, baina hemendik aurrera aldatu egingo da hori. Hileta bakarra dagoenean ez dago arazorik, baina bi hileta batera gertatzen direnean, lehenengo hil denaren parrokiaren egingo dituzte hileta biak. Bestalde, domeketan ez da hileta elizkizunik egingo.

Meza orduak ere aldatu egin behar izan dituzte Juan Kruz Mendizabal eta Iñigo Mitxelena apaizek. "Bergaran, 19:00etako meza, adibidez, txandatu emango dugu, aste baten San Pedron eta hurrengoan Santa Marinaran. Datorren astean, adibidez, Santa Marinaran emango dugu", azaldu du Mendizabalek. Bestalde, Elosun 11:00etan izango da meza aurrerantzean eta Uzarragan, domeka guztietan egin ordez, hileko lehen domeketan bakarrik egingo dute, 10:00etan.


&gt; ENPRESA

### Candy Hoover-en jarrera salatu du enpresako komiteak

Candy Hoover lantegiko komiteak salatu du enpresak bi langile kaleratu dituela hilabete batean, diziplina arrazoietatik. Komiteak dio, bidalitako prentsa oharrean, egoera larria dela eta kalera-tze horiez gain enpresak hartu duen bidea ere salatu gura duela. Komitearen iritziz, Candy Hoover enpresak 30 langile baino gehiago ikusten ditu soberan eta langileak kaleratzen hasi da diziplina arrazoietan oinarrituz.

Candy Hoover enpresako zuzendaritzak ez du adierazpenik egin gura izan salaketa horren harira.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Kayak Taberna



Gosari bereziak

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarkekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak





Kultura hamabostaldiaren kartelak eta esku orriak dituzte San Josepe elkarteak.

O.E.

ERRETIRATUAK > ETIKA ETA KULTURA

# Kultura hamabostaldia antolatu du San Josepe

Urriaren 13tik 25era bitartean, irteerak, jolasak, hitzaldiak, erakusketa eta antzerkia izango dira herriko nagusi, gazte zein umeendako

OIHANA ELORTZA > BERGARA

San Josepe erretiratuen elkarteak kultura hamabostaldia antolatu du. Urriaren 13tik 25era bitartean, hitzaldiak, erakusketa, irteera, umeendako jolasak eta bazkaria egingo dituzte, besteak beste.

JONAN FERNANDEZEN HITZALDIA

Dagoeneko 12 urtez jarraian antolatu du kultura hamabostaldia San Josepe elkarteak Antzuola-ko erretiratuekin batera; azken hiru urteotan, berak bakarrik. Urtero gai zehatz bat aukeratzen dute eta horren inguruko hitzaldiak eta ekitaldiak prestatzen dituzte. Aurtengo gaia etika da. "Gai zabala da etika, baina guk lau ikuspuntutik landuko dugu: egia, zintzotasuna, ekitatea eta errespetua. Horren harira, Gena-

ro Lekuona, Patxi Meabe eta Jonan Fernandez datoz hitzaldi bana egitera", aurreratu du Karlos Arrondok, San Josepe erretiratuen elkartearen presidentea.

Hitzaldiez gain, erretiratuek egindako eskulanean erakusketa, Bergarako auzoak eta Segura

ezagutzeko irteerak, Oñatiko erretiratuen Ikusi Makusi antzerki taldearen *Nos vamos de vacaciones* antzezlan eta umeendako jolasak egongo dira. "Belaualdi ezberdinak nahastu, elkartu, nahi ditugu, eta gaztetxoendako ere izaten ditugu ekitaldiak: jolasak, esaera zaharrak osatzeko jokoak eta herriko kultura eta historiari buruzko lehiaketa, adibidez. Gero eta arrakasta handiagoa du gaztetxoendako prestatutako egitarauak; 200 ume inguru elkartu izan dira", dio Luis Larrañagak, San Josepe elkartearen zuzendaritzako kidea.

DATUA

# 1.600

BAZKIDE

Egun, 1.600 bazkide ditu San Josepe erretiratuen elkarteak. Zuzendaritzaren nahia da bazkide guztiek eta herritarrek eurek parte hartzea antolatutako kultura hamabostaldian.

HERRITAR GUZTIENDAKO

San Josepe elkarteak antolatutako kultura hamabostaldiko ekintza horiek, baina, ez dira erretiratuendako bakarrik, herritar guztiendako baizik. Horrela, ekintza batzuk elkartetik kanpo egingo dituzte; hitzaldiak, adibidez, Miguel Altuna institutuko aretoan izango dira, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

ZERBITZUAK > UDALTZAINGOA

## Asteburu eta jaiegunetan ere udaltzainak lanean izango dira, bihartik aurrera

Egun 15 udaltzain daude Bergaran eta asmoa beste hiru kontratatzea da

O.E. > BERGARA

Asteburuetan ere udaltzain zerbitzua egongo da Bergaran aste honetatik, bihartik, aurrera. Horrela, zapatu arratsaldeetan, domeketan eta jaiegunetan ere udaltzain zerbitzua egongo da herrian. Orduetgia aldatu egin da, ondorioz, eta hauxe da ordutegi berria: astelehenetik zapatua arte, 06:00etatik 22:00etara, eta domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 22:00etara. Udaltzaingoaren telefonoa hauxe da: 943 77 91 06.

HERRIAREN ZAINZA

Asteburu eta jaiegunetako lana eta aste barrukoa ezberdinak izango dira. Hala, aste-

buruetan ikastetxeak itxita daude eta zirkulazioa ere txikiagoa izaten da. Lan horien ordez, hiritarren segurtasuna bermatzeko lan handiagoa egingo dute udaltzainek. Herriko denda, taberna eta lokalen ordutegiak eta zarata maila ere zainduko dituzte zapatu, domeka eta jaiegunetan.

UDALTZAIN GEHIAGO

Asteburuetan eta jaiegunetan lan egiteko hiru lantalde osatu ditu Udaltzaingoak. Gaur egun 15 udaltzain daude, baina behar bezalako zerbitzua emateko udaltzain gehiago behar dituzte.

Asteleheneko osoko bilkuran, hain zuzen ere, Udaleko plantilla eta lanpostuen zerrendaren aldaketaren proposamena onartu zuen, aho batez, udalbatzak. Udalaren asmoa da beste hiru udaltzain kontratatzea. Deialdi publikoa egiteke dago oraindik.



Udaltzain bat Irizar kalean.

O.E.

> FESTA

### Ibilaldia eta herri bazkaria antolatu ditu Aranzadik Ikastolaren Egunerako, urriaren 11rako

Aranzadik Ikastolaren Eguna ospatuko du urriaren 11n. Ospakizun horretarako, 1991ko Kilometroetan prestatutako ibilbidea egingo dute, besteak beste; San Martzialen txorizoa eta salda egongo da guztiendako. Ume eta nagusiendako jolasak eta herri bazkaria ere egongo dira. Bestalde, bihar, zapatua, Iruran egingo duten Kilometroak festara joateko autobusak antolatu ditu Aranzadik.

**((112))**  
SOS DEIAK

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**Ion Murgizu**  
Pinturak

Margoketa  
orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialak

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara  
Esozia 24- 2º behe • Soraluze

Tel.: 943 75 13 24  
Mug.: 652 77 70 30

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA



Irudian, Donostian egin zen mostraren aurkezpena.

ARRITXU BARRUSO

ANTZERKIA &gt; TXOTXONGILO MOSTRA

## Domekara bitartean txotxongilo giroa izango da kaleetan

Txotxogilo mostra ospatuko da mundu osotik etorritako taldeen ikuskizunarekin

A.B./J.Z. &gt; BERGARA

Bihar hasi eta domekara bitartean mundu osotik etorritako txotxongiloak izango dira Bergaran. Lau egunetan zehar, guztira 13 antzerki eta txotxongilo taldek emanaldia egingo dute; guztiak txotxongiloaren arteari lotutako ikuskizunak. Bergarako Taun Taun Teatroa taldeak mostraren gaineko xehetasun guztiak eman zituen eguazten goizean Donostian egindako prentsurrekoan.

ESTATU MAILAN GARRANTZIA

Bi urtean behin egiten den mostra Estatu mailan sendoenetaria da. Dagoeneko 19 urte igaro dira estreinako edizioa egin zenetik. Beste herrialde batzuetako mostra eta jaialdietan aurkezten ziren ikuskizunak ikusi ondoren, Bergarako Taun Taun taldeak kanpoan dauden artis-

ta eta diziplinen mostra bat erakustea erabaki zuen. Jardunean dagoen antzerki talde batek antolatutako mostra izateagatik nabarmentzen da. Izan ere, Taun Taun Teatroa taldeak bereziki helduendako txotxongiloe-tan lan egiten duen arren, bestelako diziplina batzuk ere jorrazten ditu.

MOSTRA GUNEAK

Txotxongilo Mostraren IX. edizio honetan lau espazio erabiliko dituzte. Pol-pol taberna, zabalotegi aretoa, gaztetxea eta herriko kaleak. Azken horri garrantzi berezia eman nahi izan diote. Mundu osotik etorritako taldeak ikusteko aukera izango da. Perutik iritsitako La Santa Rodilla taldeak *Manologias* ikuskitzuna egingo du bihar; Herbeheretatik ere izango dugu bisita, De blauwe Hond taldea.

MUSIKA &gt; ORGANO ERROMANTIKOA

## Organo erromantiko beste ziklo bat gurean

Organo erromantikoaren nazioarteko zikloaren IX. edizioa da eta hiru herritan izango da

Guztira 12 kontzertu eskainiko dituzte urriko zapatuetan, eta horietako lau San Pedro elizan

JASONE ZABALA &gt; BERGARA

Bihar, zapatua, organo erromantikoaren nazioarteko zikloaren beste edizio bat hasiko da. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azkoitia, Azpeitia eta Bergarako udalek antolatuko dute.

Bihar hasi eta urriaren 25a bitartean iraungo du. 12 kontzertu izango dira guztira, eta horietatik lau San Pedro parrokiaren. Kontzertu guztiak doan izango dira eta 20:00etan izango dute hasiera.

EGITARAUA ETA BEREZITASUNAK

Ainhoa Soraluze mezzosoprano errenteriarra zikloa estreinatuko du bihar. Ondoan, Fernando Gonzalo organo jole donostiarren laguntza izango du. Ainhoa Soraluze berez Errenteriakoa da, baina Milanen daramatza hamabost bat urte. Errenteriako Andra Marin hasi zen, gero Donostiako Orfeoian eta orain opera munduan ari da lanean; izan ere, azaroan Irunen Mozarten *Txirula miresgarria* operan Hirugarren Dama papeira ere egingo du. Ez da Bergaran kantatzen duen lehen aldia orain pare bat urte Iñigo Alberdik zuzentzen zuen udazkeneko zikloko kontzertu bat eman zuen eta bertan. Organo ziklorako egitaraua aproposa bilatzen eta aukeratzeko saiatu da azken hilabeteetan.

Urriaren 11n bestalde, Michael Eckerle eskarmentu handiko organo jole alemaniarra arituko da. Hark 13 urtetik aurrera organo jotzen ikasi zuen. *Marshall eta Alexander* bikote ezaguneko organo jole da. 23 disko grabatu ditu, asko Alemanian.

ABESBATZEN PROTAGONISMOA

Aurtengo zikloko berritasunetako bat parte hartuko duten abesbatzen kopurua da. Esaterako, urriaren 18an Beasaingo Loinatx abesbatza arituko da organoarekin batera. Xabier Sarasolaren zuzendaritzapean eta Gerardo Rifon organo jolearekin

batera kontzertu bikaina eskainiko dute. Zikloko azken kontzertua, urriaren 25ean eskainiko dute. Bertan Oñatiko Ganbara abesbatzako 30 kideak arituko dira Esteban Urtzelaireren zuzendaritzapean, eta organo jotzen, berriz, Alize Mendizabal. Donostiar gazteak hainbat kontzertu eman ditut Espainia eta Frantzia batez ere, bakarlaritza moduan eta laguntzaile moduan ere bai, eta gaur egun, piano irakaslea da. Aurten ere, pantaila handi bat jarriko dute – aurreko urteetan bezala –, bertara hurbiltzen direnek kontzertuak hobeto ikus ditzaten.



Irudian, Soraluze Miramoneko matineearen egindako errezital batean.

JUANTXO EGAÑA

**FERLAN**

garbiketak

KRISTALAK ETA FATXADAK GARBITZEKO SISTEMA BERRIA



20 metroko altueraraino iristen gara

PERTSIANAK ERE GARBITZEN DITUGU

Garajeen, atarien, elkarten eta abarren mantentze-lanak eta moketen garbiketak

ferrerias 14 - 1  
943 71 25 78  
639 99 36 58  
Arrasate  
garbiketak@ferlan.es

&gt; JOLASAK

**Aurtengo azken jolaslekua gaur Simon Arrietan egongo da**

Gaur, egubakoitza, jolaslekua 17:00etatik 19:00etara izango da Simon Arrieta plazan. Aurtengo azkeneko jolasleku izango da eta hurrengo udaberriaren bueltatutako da berriz. Bertan, kantu jolasak, aurpegi margoketa, soka eta goma jolasak eta eskulan bat egingo dira. Jarduntxio (Jarduneko maskota) ere bertan egongo da arratsaldea alaitzen. Eguraldi txarra eginez gero hurrengo astera atzeratuko da.

&gt; ERAKUSKETAK

**Mari Paz Alustiza eta Jon Balentziaga margolarien erakusketa**

Urriaren 10ean hasi eta azaroaren 2ra bitartean Aroztegi aretoan Mari Paz Alustizak margolanen erakusketa egingo du. Martitzeneztik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 18:00etatik 20:30era; domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

Kultura etxean, bestalde, urriaren 12tik 25era Jon Balentziaga margolariak lanen erakusketa egingo du.

&gt; MUSIKA

**Musikoterapia ikastaroan izena emateko aukera zabalik**

Bergarako Musika Eskolak antolatuta, urritik abendura bitartean musikoterapia ikastaroa egingo da. Ikastaroan izena eman gura duenak urriaren 7ra arte izango du aukera.

Helburua da Hellen Bonnyk 1960ko hamarkadan sortu zuen *Irudi gidatua eta Musika metodoaren esperientzia* ezagutzeko. Ikastaroaren teknika musika klasikoak pertsonari gogora ekartzen dizkion irudietan oinarritzen da.



# DAGOENENKO SALGAI

DVDa eta CDa.

Danbaka Musika Lehiaketako 2. edizioko **20 taldeen abestiak eta ikus-entzunezkoa.**

Estrak, argazkiak, bideoak...

**13 euro**

**ESKAINITZA BEREZIA:** Astelehenerko Goienkaria-ko harpidedunendako **10 euro.**

Hemen salgai:

## ARRASATE

Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

## BERGARA

Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

## ELGETA

Espaloia kafe antzokia: Maala 2. 943 78 90 85

**DANBAKA )))))))**

FUTBOLA &gt; LEHEN ERREGIONAL MAILA

# Bergara-Aretxabaleta B zapatuan Agorrosinen

Manu Diazen mutilak hirugarren garaipenaren bila doaz, liderrek hankarik ez egiteko

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Lehen erregional mailan, Bergarako futbol talde nagusiak Aretxabaleta B hartuko du zapatuan Agorrosinen, 16:45ean. Domekako derbian BTLS taldearen aur-

ka bana berdindu ondoren, mahoneroak sailkapeneko laugarren tokian dira. Aurretik Lagun Onak eta Mutriku dituzte bakkarik, bi puntura.

Zapatuan bisitari izango duten Aretxabaleta B taldea 5. tokian dago, 6 punturekin, Bergararengandik puntu bakar batera. Joan den aste bukaeran Lazkaoi 3-1 irabazi zioten aretxabaletarrek.

Lau dira jokaturako hiru jardunaldietan partidurik galdu ez duten taldeak: Lagun Onak, Mutriku, Bergara eta BTLS.

BTLS, ZESTOARA

Bestalde, BTLS taldeak etxetik kanpo jokatu du. Zestoari egingo diote bisita bergararrek. Julen Aranbururen eta Ibai Igartzaren mutilak sailkapeneko 4. tokian daude, Bergararekin berdinduta, zazpi punturekin. Esan bezala, BTLSk ere ez dute oraindik partidurik galdu. Zestoarrak zazpi garren daude sailkapenean, azken jardunaldia Oriokoren aurka 1-0 galdu eta gero. Zestoa eta BTLS gaur, egubakoitza, izango dira aurrez aurre, 20:00etan.



Bergarak eta BTLSk bana berdindu zuten domekan Ipintzan jokaturako derbian.

GOIENKARIA



Patxi Ugalde eta Aritz Gimbert, Ander Elozegi olinpikoarekin.

BETI-BUSTI

PIRAGUISMOA &gt; INFANTIL MAILA

## Beti-Bustiko gaztetxoak, onenen artean eslalomean

Patxi Ugalde, Beñat Lizarralde eta Aritz Gimbert aurrean Espainiako promozio kopan

E.M. &gt; BERGARA

Beti-Busti piraguismo elkarte-kideak pozik dira aurtengo denboraldian lortzen ari diren emaitzekin. Azken emaitza aipagarriak infantil mailako piragunistek lortutakoak izan dira: Gipuzkoako eskola kirolaren barruan, infantil A mailan, Patxi Ugalde lehena izan zen K1 eslalom proban: Aritz Gimbert taldekidea hirugarren geratu zen aipaturako proban.

ESPAINIAKO KOPA

Bestalde, Espainiako kopako III. promozio txapelketan ere bergararrak aurreneko postuetan izan genituen sailkapen orokorrean: berriro ere Patxi Ugaldek eskuratu zuen lehen

postua, Beñat Lizarralde bigarrena izan zen eta Aritz Gimbert zazpi garren tokian sailkatu zen.

Abuztuan Frantzia aldean, Alpeen inguruan ibili ziren eslalom taldekoak. Ur bizien kanaletan jardun zuten Frantzia, abuztuaren 14tik 22ra. *Kuxi* Gallastegi entrenatzailearen eskutik, maila hobetzeko saioak egin zituzten, hurrengo denboraldiari begira.

Beti-Bustiren helburuetako bat zera da: Labegarieta inguruko eslalom gunea erabat egokitu eta hango kirolgunean integratu, Diputazioko Ingurugiro Saileko teknikarien lankidetzarekin eta Bergarako Udalaren babesarekin.



# OGIZUN

koop. elk.

## okindegia



Argazkia Kiñu

Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 21 37

Obradorea, Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13

**kanpotarrak Bergaran**

**Norma Paredes** > Langilea  
Ekuadorkoa da

# "Hainbat etxetan egin dut lan eta bikain hartu naute beti"

NEREA MENOR > BERGARA

Duela zazpi urte joan zen Norma Paredes Ekuadortik. Bi urtetan zehar Logroñon ibili zen lanean, eta duela bost urte heldu zen Bergara-ra. Orain 56 urte ditu eta San Anton bizi da ahizparekin.

Ekuadorko Riobamba herrian bizi zen Norma: "Herri handia da, Chimborazo probintziako hiriburu. Bergara baino hiru aldiz handiago izango da, unibertsitate politeknikoa eta guzti dugu han". Bertan ikasten dute haren semeek, guztiek Ingeniaritza. "Irabazten dudana diru gehiena bidaltzen dut hara; semeen ikasketak

ordaintzen ditut horrela. Profesional onak izan daitezen nahi dut". Bergaran lau urte inguru geratzeko asmoa du Normak, semeen falta asko igartzen du-eta.

Ekuadorko jakiak nekezagoak omen dira egiteko: "Bildots menudentziak janari ezagunetarikoa da, patatekin eta mani sal-

**"Enpresek ez digute askorik ordaintzen, soldatak oso txikiak dira han; horregatik erabaki nuen Bergarara etortzea"**



Norma Paredes.

tsarekin egiten dena". Normaren iritziz, Ekuadorko jendearen artean elkatasun handiago dago, baina hemen gustura dago eta jendea ondo portatu da harekin: "Logroñon arrazakeria zegoen eta hemen, aldiz, batere ez". Herrian gustura dagoela dio: "San Antonioko jende asko ezagutzen dut, baita Espoloikoa ere. Lana topatzen lagundu didate. Hainbat etxetan egin dut lan eta bikain hartu naute beti. Eduki dudana arazo bakarra Caritasekin izan da, ez didate laguntzarik ematen paperak ditudalako".

**LANAREN ARAZOA**

Bere herrian erizain laguntzaile titulua zuen eta horretan aritzen zen bertako Ogasunean: "Baina soldatak oso txikiak dira han. Enpresa eta lantegietan ez digute askorik ordaintzen; horregatik etorri nintzen hona, eta euroa bidaltzen dut Ekuadorrera". Bergaran sukaldaritza ikastaro bat egin du eta geriatría laguntzaile titulua atera du Goiz Argin.

**bere ustez**



Iñigo Garitano

## Bergaran zinea ikusteko aukera

**D**atuek erakusten dute gero eta ikusle gutxiago joaten dela zine aretoetara. Azkeneko 6-7 urtetan joera hori da. Aldiz, epe horretan, zine ekoizpenak gora egin du. Pelikula gehiago estreinatzen omen dira. Eta industria batez ari garenez, ikusleak, egon, nonbait badaude. Badirudi produktua ikusteko ohiturak aldatu direla: ordaintzeko telebistak direla, DVD piratak...

Eta bat-batean, Donostiako Zinemaldia. Aretoak lepo beteta. Sarrerak agortuta.

**hau be badaukogu**

### Informatika, ingeles eta gaztelaniazko ikastaroak hasi dira helduen eskolan

Helduentzako hezkuntza eskolako ikasturte berria irailaren 17an hasi zuten. Aurten ikasle asko dituztela adierazi digute eta hizkuntzek eta informatikak arrakasta handia dutela bergararren artean. Dagoeneko klaseak hasi diren arren, oraindik matrikulatzeko aukera dagoela diote eskolan: "Apuntatzeko azkeneko egunak dira". Argazkian, kultura orokorreko klasea azaltzen da; egunero, bi ordutan zehar, matematika, informatika, gramatika, irakurketa eta geografia gaiak jorratzen dituzte. Urtero bezala, 25 urtetik gorakoendako unibertsitaterako sarrerako azterketa atera daiteke; baita DBHko titulua ere. Ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelania eta informatika ere irakasten dira.



TXATXILIPURDI

### "Aretoak lepo beteta. Sarrerak agortuta. Argi dago Zinemaldia uharre bat dela"

Argi dago Zinemaldia uharre bat dela. Zinea ulertzeko modu ezberdinak daudela ikusteko aukera paregabea. Aurtengo Zinemaldian eskaini diren filmak ez dut pentsatzen zine industriaren ekoizpenaren isla izango zirenik.

Kontua da Bergaran ez daukagula ez zine mota hori ez eta beste ezer ikusteko aukerarik. Nahi duenak, eta ahal duenak, kanpora joan beharra dauka. Irakurri dut Zabalotegiko aretoa egokitu dutela, baina zine proiektorerik ez dutela ipini, DVDA bai zik. En fin! Badirudi kultur ekipamendu berria egin arte gutxienez itxaron beharko dugula. Bitartean, ez litzateke posible izango proiektore bat jartzea, eta programazio apal baina txukun bat Udalak antolatzea?

**Portazi**  
ile apaindegia

**Asteartean %15eko deskontua erretiratuentzat**

Martoko 30 Bergara 20570 Tel.: 943 76 52 38

**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

# MARITXUTAN EZ GAZ DANOK!




KEPA URRA




JON AGIRRE




JOSU URIBETXEARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



TXUS GOIKOETXEA



JOSU ARKAUZ



UNAI PAROT




ARATZ GOMEZ



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



IGOR LETONA



KRISTINA GOIRIZELAIA



AMAIA ARRIETA



NATALE LANDA



ERREFUXIATUAK

## ETXEAN NAHI DITUGU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:  
Iturriotz, Irati, Iluntz, Ekaitz, Basati, Jai-Zale, Muxibar, Taupa, Dat

HIRIGINTZA > EGOITZA ALDAKETA

# Hirigintza eta Gizarte Zerbitzuak liburutegia izandako egoitzara doaz

Urrian bertan aldatu gura dituzte bi sailak, eta azarotik aurrera Felix Iñurrategi lorategian dagoen egoitzan hartuko dituzte herritarrak



Felix Iñurrategi lorategian dago Hirigintza Sails eta Gizarte Zerbitzuak hartuko dituen egoitza.

MIRARI ALTUBE

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Udaletxean dauden Hirigintza saila eta Gizarte Zerbitzuak hil honetan bertan Felix Iñurrategi lorategian dagoen egoitzara aldatuko dituzte. Abuztuaz gero dabilta egokitze lanak egiten eta urrian bukatuko dituztela iragarri dute Hirigintza saileko arduradunek. Urte askoan liburutegia izan den egoitzak –aurtego maiatza arte– Hirigintzako teknikariak eta gizarte laguntzaileak izango ditu bizilagun azarotik aurrera. Eta edozein kontsulta egiteko herritarrek ere bertara jo beharko dute.

**EGOKITZAPEN LANAK**

Egoitzaren kanpoko itxura ez dute aldatuko, baina barrualdean hainbat lan egiten dabilta: lur

zorua, hormak eta sabaia konpondu; argindarraren instalakuntza eta informatika sarea berritu; berogailu berria jarri; komunak

konpondu eta dauden gelak –bakarra beheko solairuan eta handi bat eta hainbat txiki goian– banandu manparak erabilia.

**TRABA GUTXIAGO**

Aldaketa egiteko arrazoirik garrantzitsuenetakoa herritarrendako trabak kentzea izan da: batetik kaleko oztopoak –udaletxeke ateko maila– eta bestetik egoitza barruko oztopo arkitektonikoak –eskailerak... Gizarte laguntzaileak beheko solairuan egongo dira egoitza berrian, eta Hirigintza Sailsa lehenengoan. Teknikari horiek lehen solairuan egingo dute lan, baina argibide eske datozen herritarrak hartzeko gela egokituko dute beheko solairuan. Hala, ez dute eskailerak igo beharrik izango.

Gogoratu behar da, bestalde, bai Hirigintza sailera joateko, bai gizarte laguntzaileekin egiteko, txanda hartu behar dela aurrez udaletxera deituta.

**LEKUA ARRATABE JAUREGIAN**

Aldaketa horiek biak egindakoan hainbat gela geratuko dira libre Arratabe jauregian. Eta hainbat talde politiko agintaldi hasieratik dabilta elkartzeko leku eske.

OSOKO BILKURA > GAITZESPENA

## ETAk egindako azken atentatuak gaitzetsi ditu udalbatzak

Taxi-gidarien elkarteak proposatutako %5,3ko igoera onartu zuten eta Herriko plazako merkatariei hobariak aplikatzeko konpromisoa ere bai

M.A. > ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 29, egindako ohiko osoko bilkuran kreditu aldaketa egitea onartu zuten. Mitarte kaleko saneamendu lanak egiteko aurreikusitako 219.000 euroei beste erabilera bat emango diote, eta partidarik handiena inbertsioendako izango da. Bestalde, taxi-

gidariek proposatu dute %5,3ko igoera 2009rako eta aho batez onartu zuten. Herriko plazako merkatariei hobariak aplikatzeko konpromisoa ere hartu zuten, lanen erruz jasandako kalteak murrizteko. Hala, 2009ko lehen eta bigarren hiruhilabeteko ur eta zabor tasa erdia kobratuko diete.


Eta bukatzeko, alderdien artean adostutako adierazpen instituzionala irakurri zuen PSE-EEko zinegotziak. Santoñan, Ondarroman eta Gasteizen ETAk egindako atentatuak guztiz gaitzetsi zituzten eta hildako brigadaren senideei eta zauritutako guztiei babesa eskaini zieten.



Ohiko osoko bilkura egin zuten astelehenean.

M.A.

**MAPFRE**



**%60 ARTEKO BONIFIKAZIOA ZURE  
AUTOAREN ASEGURUAN  
ETA GAINERA BESTE**

**%20KO DESKONTUA FAMILIARTEKO  
BIGARREN IBILGAILUARENTZAT.**

Errekabarren 3 ARETXABALETA

Tel.: 943 77 11 76 / Faxes: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

**Iber**

**Loteria  
Paper denda  
Liburuak**

Otalora 2. ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

OSPAKIZUNA &gt; URTEURRENA

# Paulo Letona abadearen urrezko ezteiak ospatzeko bazkaria dago

Leintz Pastoral Barrutiak antolatu du, eta urriaren 19an izango da, Mendigoia hotelean

Aretxabaletan bizi den eskoriatzarra 1958ko ekainean izendatu zuten abade Lourdesen

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako parrokiak bateratzen dituen Leintz Pastoral Barrutiak omenaldia egin gura dio Paulo Letona abadeari. Urrezko ezteiak bete ditu ekainean, eta Donostiako elizbarrutiak dagoeneko omendu ditu 50 urte betetako abade gipuzkoarrak. Orain, baina, aretxabaletarren, eskoriatzarren eta 14 elizateetako bizilagunen zorionak jasoko ditu Letonak; urriaren 19an, hain zuzen. Ospakizun ekitaldia Aretxabaletako parrokiaren meza esanda hasiko dute (11:30) eta ostean bazkaltzera joango dira Eskoriatzako Mendigoia hotelera (14:30). Bazkarira joateko interesa dutenek aurrez eman behar dute izena sakristian edo

parrokiako batzorde ekonomikoak osatzen duen kideren bati, eta 35 euro ordaindu behar dute.

## BETI LEINTZ BAILARAN

Azken urteotan Aretxabaletan bizi den Paulo Letona Marin auzoan (Eskoriatza) jaio zen. 12 urtekin joan zen Seminaria, eta 1958ko ekainean izendatu zuten abade Lourdesen (Frantzia) beste 39 gipuzkoarrekin batera. Arrasateko Bedoña auzoko parroko egin zuten gero, eta handik laster Jose Maria Arizmendiarririk Eskola Politeknikoan klaseak emateko eskatu zion. Ia 40 urte egin zituen kooperatiben inguruan lanean, gustura lan egin ere. Uribarri eta Musakola auzoetan ere egon zen abade, eta azken horretan 32 urte egin zituen.



Urrezko ezteiak bete dituen Paulo Letona abadea etxean.

M.A.

Leintz bailaratik irten barik bete ditu abade lanak Letonak, eta 74 urte egiteko baditu ere, lanean jarraitzen du Leintz Pas-

toral Barrutiko parrokitan. Gainera, abade bizitzatik sekula ez dela erretiratuko aitortu zigun orain dela hilabete batzuk.

KULTURA &gt; ARKUPEKO EGITARAUA

## Bihar, zapatua, aurkeztuko dute 'Josetxiki'-ren liburua

Alberto Iñurrategik 'Miradas a cámara: Begiz begi' eskainiko du eguenean

M.A. &gt; ARETXABALETA


Bihar, zapatua, hasi eta hilabetea bukatu bitartean hainbat ekitaldi izango dira Arkupe kultura etxean.

Jose Maria Horcajada *Josetxiki*-k *La Mancha nos dio un gudari* memoria liburua aurkeztuko du bihar (12:00). Gerra

sasoiko bizipenak jaso ditu, eta orduko Aretxabaletaren berri eman. Udalaren laguntza izan du *Josetxiki*-k.

Bihar arratsaldean, ostera, Kiki eta Moko pailazoak izango dituzte umeek (17:00). Eta datozen bi eguaztenetan bitxi-gintza ikastaroa egongo da gaztetxoendako (16:00-18:30) eta helduendako (18:30-20:30).

Eguenean, hilak 9, *Miradas a cámara: Begiz begi* ikus-entzunezkoa eskainiko du Alberto Iñurrategik (19:30). Hainbat herrialdeetako bizilagunen begiradak erakutsiko ditu.



*Josetxiki*, bere liburua besapean duela.

GOIENKARIA



Areantzako Beñat Abasolo parapentean Kurtzebarritik behera.

JULEN ABASOLO

LEHIAKETA &gt; PARAPENTEA

## Parapentean salto egin zuen 10 urteko Beñat Abasolok

Areantzako III. hegazkin lehiaketako saria parapentean botatzea izan zen

M.A. &gt; ARETXABALETA

Orain dela hiru urte hasi ziren Areantza auzoko jaietan paperezko hegazkinen lehiaketa jokatzen. Orduz gero arrakasta handia dauka, eta saria ere halakoa da: parapentean botatzea Kurtzebarri menditik. Aurten, 10

urte dituen Etxebarri baserriko Beñat Abasolok irabazi du, eta baita parapentean bota ere. Oinez igo zen mutikoa Kurtzebarri, bertan parapentea jantzi eta mendian behera egin zuen. Parapentea, baina, bi lagunendako zen eta Gasteizko erakusle bat izan zuen lagun hegaldian. Eguraldi aparta egokitu zitzaion, nahiz eta tarteka lainoek tontorra tapatu, eta Kurtzebarriko magalean ibili ondoren Urkulu urtegi ingurura jaitsi ziren. Eguraldi ona zegoelako, hain zuzen, beste hegaldi batzuk ere egon ziren.

ERAKUSTALDIA

## Jam inprobisazio saioa etzi, Jaikirekin

M.A. &gt; ARETXABALETA

Jaiki elkarteak Jam saioa antolatu du lehenengoz Aretxabaletan. Domekan, hilak 5, egingo du kuartel zaharreko bigarren solairuan (18:00), eta edonork har dezakeela parte jakinarazi dute elkarreko kideek -ez dago aurrez izenik eman beharrik.

## INPROBISATZEN

Beroketa joko batzuk eginda hasiko dute saioa eta gero, astiro-astiro, inprobisatzen joango dira: antzerkia, bertso-larritza, musika, dantza, poesia, isiltasuna... "Geuk nahi duguna aterako da, geure esku dago-eta", esan dute antolatzaileek. Gainera, bakoitzak lagungarri izan dakioken zerbait erroteko aukera dauka: zapi zati bat, instrumentu bat, disko konpaktu bat, margoak, panpina... "Buruan bueltaka darabilen eta besteekin konpartitu gura duen joko bat ere izan daiteke, libre uzten dugu dena", argitu dute.

&gt; GAZTERIA

## Sukaldaritza ikastaroa 18 urtetik gorako gazteendako

Gazteria sailak antolatu du 18 urtetik gorako gazteendako sukaldaritza ikastaroa. Gurasoen etxetik kanpora bizitzera doazenei zuzendua dago, batez ere, baina jakiak gertatzen jakin ez eta ikasi gura duen edozein gazte parte har dezake. Eguaztenetan egingo dute ikastaroa (19:30-21:30), urriaren 22an hasi eta azaroaren 19a bitartean. Atxagazte gaztelekuko sukaldetan gertatuko dituzte jakiok eta gero bertan afalduko dute.

Izenematea zabalik dago Arkupe kultura etxean urriaren 20a bitartean, eta 15 euro kobratuko dute ikastaroa.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



Iñigo Irizar, 'Los Viernes al Ron' > Musikaria

# "Danbakan nire burua kantari gisa ezagutzera eman nahi dut"

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Antzuolak ordezkarri bakarra izango du aurten Danbaka musika lehiaketan: Iñigo Irizar. Sorpresa izan da harentzat aurrera egitea eta orain, gitarra, armonika eta ahotsa lagun, bere kantatzeko era ezagutzera eman nahi du taula gainean.

**Nolatan animatu zara Danbakan parte hartzera?**

Urte mordo eman ditut batekin eta bestearekin gitarra jotzen edo kantuan, eta baita bakarrik ere, etxean, baina sekula ezer ganorazkorik egin gabe. Orain, kantu batzuk eginak nituen eta izena eman nuen, probatze aldera, ea gai naizen ikusteko.

**Lehen proba gainditu duzu.**

Bai, hala dirudi. Etxekoek eta ingurukoek esaten zidaten soinua ona zela, baina hori ez da nahikoa. Jakin behar nuen kanpokoek ere zer pentsatzen zuten nire musikaren gainean.

**Zer eskainiko duzu?**

Zaila da norberaren musika definitzea, baina folk-blues moduan izendatuko nuke. Bluesa asko gustatzen zait eta folka ere bai; hortaz, saiatzen naiz horien bien arteko nahaste bat egiten.

**Zure kantuak joko dituzu?**

Bai; hamar inguru dauzkat. Egunerokotasuneko gaiak ukitu ditut, bizitzakoak. Garai batean gai tristeez jarduten nuen batik bat, baina pixkanaka aldatuz noa.

**Aurrez kantari ibilitakoa zara.**

Lagunekin lokaletan ibili naiz, baina ezer esanguratsurik egin gabe. Ibili ginen Pepi eta Gabi bikote moduan, baina hura

ere utzi genuen. Armonikarekin eta gitarra akustikoarekin bi lagunek abesten genuen. Bergaran kantatu izan ditugu bertsiotak gatzetxean, Pol-Polen...

**Zergatik Los Viernes al Ron?**

Abesti gehienak egubakoitzetan, ron apur bat edan ostean sortutakoak direlako. Bestalde, *Los lunes al sol* filmaren izenburuarekin ere hitz joko egin dut.

**Zer espero duzu Danbakatik?**

Nire burua ezagutzera eman nahi dut Danbakan. Izan ere, aretoetan edo antzokietan kantatzea, ezezaguna izanda, zaila da. Lehiaketaren bitartez baten batek ezagutzen banau, gero kontzerturen bat egiteko aukera polita izan daiteke. Lasai egoteko kontzertua izango da, eta horrelako musika gogoko duenari joateko esango nioke, joateko eta ezagutzeko.



Berak sortutako blues eta folk doinu lasaia eskainiko ditu Espaloian gitarrarekin eta armonikarekin.

GOIENKARIA

**AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA**

## Zundaketak egiten hasi dira AHTren obretarako lurretan

I.A. > ANTZUOLA

AHTren Angiozartik Ezkiorako zatiaren oinarritzko proiektua egiteko dago oraindik, eta horretarako Antzuolako hainbat lurretan abuztuan eta irailan zundaketak egin dituzte. Zundaketak egiteko lur jabeen baimena behar zuten, baina lur jabeek eskatu zuten baimenak eman aurretik AHTren Antzuolako zatiaren gaineko informa-

zioa jasotzea. Informaziorik ez zuten eman, baina abuztuaren hasieran berriz lur jabeei deika hasi ziren baimenak eskatzeko, eta batzuek eman egin dute.

**INFORMAZIORIK EZ**

AHTren aurkako taldekoek haxe salatu dute: "Eskatutako informazioa eman gabe, lurjabeak presionatuz, lortu dituzte baimenak, eta hori ez da bidezkoa".

**JAIK > SENIDETZEA**

## Errotara bisita eta kantu bazkaria izango dira Aiherran

I.A. > ANTZUOLA

Urriaren 12an, domekan, ospatuko dute Aiherraren eta Antzuolaren arteko senidetze eguna Aiherran. Goizean Antzuolatik autobusez abiatu eta 11:00etan egingo diete ongiatorria Gaztetxea trinketean. Eguerdian Uhauneko errotara bisitaldi gidatua egingo dute eta 13:00etan herriko etxearen eskutik bazkal aurrekoa hartuko dute.

Bazkaria izango da ondoren Denen-Etxean, Kiki Bordatxorekin. Belzuntze Batasuneko eta Herriko-Etxeko antolatzaileek umorez eta kantu liburuarekin joateko gonbita egin dute.

**AUTOBUSA**

Oraindik antzuolarrek aukera dute urriaren 8ra bitartean Aiherrarako autobuserako izena emateko udaletxean.

**> GAZTEAK**

## Zapatuan zabalduko dute gazte txokoa Errekalden

Zapatuan, urriaren 4an, zabalduko dute udako oporren ostean gazte txokoa. Zapatuetan eta domeketan egingo da zabalik Errekaldeneko lokala 16:00etatik 20:00etara bitartean. Oraingoz gazte txokoa Errekalden elkartuko badira ere, asmoa da ikasturte honetan barrena Eguzki auzoko etxe berrien azpian egingo duten gazte txoko berrira aldatzea, baina oraindik amaitu gabe dago.

**ANTZUOLA**

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**

Apainketak eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalaza*

Apainketarako eta industriarako pinturak  
•  
Paper margotuak  
•  
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**  
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

*Tomas Gezalaza*

Zoruen kutxilatua eta bernizatzea

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA



Azkoitiko Santa Krutz komentuan grabatu zuten diskoa.

GANBARA TXIKI

## KULTURA &gt; PILOTA

# Lehen diskoa grabatu dute Ganbara Txikikoek

Irailaren 19an, 20an eta 21ean grabatu zuten Azkoitiko Santa Krutz komentuan eta abenduaren 27an egingo dute aurkezpen kontzertua Oñatin

## MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Abesbatzaren bost urteko ibilbidearen laburpena egiten duen iraupen luzeko lehen diskoa grabatu du Ganbara Txiki abesbatzak: *Munduari begiratzeko*. "Aste bukaera gogorra izan da, baina emaitza ona eta polita izango dela uste dut", esan digu abesbatzako zuzendari Aitor Biainek. Besteak beste, abesbatzak bost urteotan abestutako kantuak eta lan berriak grabatu dituzte; tartean,

diskoari izena ematen dion eta Xabier Sarasolak idatzitako *Munduari begiratzeko* eta Ganbara Txiki abesbatzarendako Eva Ugaldek eta Josu Elberdinek idatzitako *Wonkabite* eta *Gabon Suitea* kantuak. Guztira, askotariko estiloetako 18 kantu bildu dituzte.

Azkoitiko Santa Krutz komentuan grabatu dituzte kantuak, Jean Michel teknikariarekin eta Malchom Bothwell musikariaren laguntzarekin.

## AURKEZPENA, ABENDUAN

*Munduari begiratzeko* diskoa abendurako kaleratuko dute, eta aurkezpen kontzertua Bidaurretako monasterioan egingo dute abenduaren 27an. Bestalde, bosgarren urteurrenaren barruan, haur abesbatzen zikloa egingo dute azaroko aste bukaera guztietan; besteak beste, Donostiako Orfeo Txikiak eta Leioako Kantika abesbatzak parte hartuko dute zikloan.

## PREBENTZIOA &gt; KANPAINA BEREZIA

## Borondatezko alkohol-probak unibertsitate aurrean egingo dituzte bihar arratsaldean

Gainera, erabili eta botatzeko alkoholometroak banatuko dituzte Sasoia elkarteko kideek

## M.B. &gt; ESKORIATZA

Errosaixo jaiak aprobetxatuz, bigarren urtez egingo dituzte alkohol-probak, Prebentzio sai-

lak eta Sasoia elkarteak antolatuta. Hain zuzen ere, bihar arratsaldean egingo dituzte, 20:15etik 23:15era arte, Unibertsitate etorbidean. Tarte horretan, alkohol-proba egin gura dutenek horretarako aukera izango dute. Sasoia elkarteko kideek Ertzaintzak ohiko alkoholemia kontroletan erabiltzen dituen alkoholometroak erabiliko dituzte. Gainera, hainbat aholku emango dizkiete; besteak beste, positibo eman dutenei autoa hartzeko zenbat denbora itxaron beharko duten esango

diere. Bestalde, erabili eta botatzeko 300 alkoholmetro banatuko dizkiete probak egiteko mahaira hurbiltzen direnei.

## ORDUA ALDATU DUTE

Corpus jaietako probak gauean egin ondoren, oraingo honetan ordua aldatzea erabaki dute. "Arratsalde-ilunabarrean beste adin bateko pertsonak ibiltzen dira, eta horiei ere alkohol-proba egiteko aukera eman nahi diegu", dio Prebentzio arduradun Ainhoa Moiuak.

## FESTAK &gt; ERROSAIXO JAIK

## Baserritar jantziak eta mozorroak jaiari bukaera emateko

## M.B. &gt; OÑATI

Jaietako bigarren aste bukaera ospatuko dute oñatiarrek gaurtik astelehenera arte. Irasuren, Zubeldiaren, Mendiluzeren, Payaren, Gaztelumendiren eta Agirrereren bertso jaialdiarekin hasi eta mozorroekin bukatuko dituzte festak.

Tartean, Herri Eguneko azoka, herri-bazkaria, sagardo dastatzea eta herri kirol jaialdia; domekako Ageriko VI. Pintura Lehiaketa, suzko erruberak eta haur parkea; eta Bixamon eguneko mozorroak, sokamuturrak eta musika izango dira protagonista nagusiak.

## Egitaraua

## Gaur, egubakoitza

19:00etan: Antzerkia txosnagunean  
20:30ean: Herri-afaria txosnagunean  
22:00eta: Txarralde, Paso de ti, EZ eta Arpaviejas taldeen kontzertua txosnagunean  
22:30ean: Bertso jaialdia Zubikoa kiroldegian

## Bihar, Herri Eguna

09:00etan: Txistulari Bandaren goizeresia  
10:30ean: Unibertsitate inguruan, herri azoka  
11:00etan: Musika Eskolako trikitilarien eta Tolosako gaitarien kalejira  
12:00etan: Sagardo dastatzea plazan  
13:15ean: Lehiaketan sari banaketa  
14:30ean: Herri-bazkaria Zubikoa kiroldegian  
17:00etan: Tortilla txapelketa txosnagunean  
18:00etan: Herri kirol jaialdia plazan  
18:00etan: Bentazarreko Mutiko Alaiak taldeak girotutako kalejira  
19:00etan: Preso eta iheslari politikoen aldeko ekitaldia  
19:30ean: F. Esnalen Salbea parrokian  
20:30ean: Disko-festa Abiba taldearekin plazan  
21:30ean: Mikel Markezzen kontzertua txosnagunean  
22:30ean: Mikel Deunaren pilota txapelketako finalak  
23:00etan: Abiba taldearekin disko-festa plazan  
01:00etan: Bikoizketak txosnagunean

## Domeka, Errosaixo Eguna

09:00etatik aurrera: Ageriko VI. Pintura Lehiaketa  
09:00etan: Txistulari Bandaren goizeresia

11:00etan: Elkar-meza nagusia  
12:00etatik-14:00etara: Haur eta gazteendako parkea Etxaluzen. Portu kaleko plazatzon 1 Formulako simulagaikuak  
12:00etan: Musika Bandaren kalejira  
13:00etan: Musika Bandaren kontzertua udaletxeko arkupeetan  
17:00etatik 20:00etara: Haur eta gazteendako parkea Etxaluzen  
18:00etan: Profesional mailako pilota partiduak kiroldeko frotoian  
18:30ean: El Negro y el Flaco taldearen *Giramondo* ikuskizuna plazan  
20:00etan: Tarantella oskestrarekin dantzaldia  
20:30ean: Balkoitik balkoira bertso saioa Aitzol Barandiaran eta Inigo Manzisidor bertsolariarekin Kale Zaharrean  
23:00etan: Rantxeren kontzertua txosnagunean  
23:00etan: Piroteknia Caballerrekin suzko erruberak  
23:30ean: Tarantella orkestrarekin dantzaldia plazan

## Astelehena, Bixamon Eguna

09:30etik 10:00etara: Poney eta animaliak plazan  
10:00etan: Sokamuturra ohiko kaleetan  
12:00etan: Musika Bandaren kalejira  
12:30ean: Mozorrotutako taldeen kalejira Incansables txanrangak lagunduta  
15:00etan: Paella-jana txosnagunean  
Arratsaldean zehar: Incansables txanrangarekin kalejira  
17:00etan: Bertsoien kontzertuak txosnagunean  
17:00etan: Sokamuturra ohiko kaleetan  
20:00etatik 21:00etara eta 23:00etan: Egan taldearekin dantzaldia plazan



Herri kirolak egingo dituzte bihar, zapatua, plazan.

GOIENKARIA

JAIK > SAN MIGELAK

# Txantxikuaren jaitsieratik, festa giroa nagusi kalean

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

San Migel jaietako lehen aste bukaera giro onean ospatu dute oñatiarrek. Eguraldiak lagunduta, herritarrek kalera irten dira ekitaldietan parte hartzera. Behean jaso ditugu ekitaldi batzuetako argazkiak. Txantxikuaren jaitsierak eman zien hasiera jaiari, eta haren atzetik danbor burrunbak izan ziren nagusi.

San Migel egunean haur parkearekin gozatzeko aukera izan zuten haur eta gazteek; eta Udal

Musika Bandaren doinuarekin helduek. Bestalde, txosnagunean egindako koadrilen arteko olinpiadek erantzun ona izan zuten. Hain justu ere, 12 talde lehiatu ziren txosnagunean.

**ERREKORTADOREAK**

Ikusmin handia sortu zuen San Migel Bixamon egunean errekortadoreen ikuskizunak. Plazan jarritako eskailera batzuen gainetik ibili zituzten zezenak. Ondoren, sokamuturrek hartu zuten lekukoa plazan.



Txosnagunea lepo bete zen txantxikuaren jaitsiera ikusteko.



12 taldek hartu zuten parte koadrilen arteko olinpiadetan.



Errekortadoreen ikuskizunak ikusmin handia sortu zuen.



Udal Musika Bandak kontzertua egin zuen San Migel egunean.



Show Business taldeko kide Igor eta Mikel.



Auto klasikoak ikusteko aukera izan zuten oñatiarrek.



Umeez asko gozatu zuten pailazoen ikuskizunarekin.



Danborhotsak izan ziren nagusi jaietako lehen egunean.

ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL/LEIRE KORTABARRIA/ARANTZAZU EZKIBEL

## dOr

**Laser bidezko depilazioa. DIODO LASERRA.**  
**Edozein egunetan egiteko aukera.**  
**Laserra gure zentroan dago**

Emaitza ezin hobek

- Bigarren mailako efekturik gabe
- Saio gutxi batzuetan emaitza iraunkorak (3 eta 6 saio bitartean)
- Hiru hilean behin saio bakarra

Gizon eta emakumeentzat

- **Ingleak: 125 euro saioa.**
- **Hanka erdiak: 295 euro saioa.**
- **Bizkarra: 290 euro saioa.**

LASER DIODO. Orain da unerik egokiena. Etor zaitez eta kontsultatu gure prezioak inolako konpromisorik gabe.



**dOr Estetika**

Errementari 5  
20560 Oñati  
T. 943533647

ONGIZATEA &gt; MESEDEETAKO AMAREN EGOITZA

# Zaharren egoitzaren geroa zein izango den eztabaidagai

Aldundiak lanak diruz laguntzen baditu, kudeaketa GSR enpresak hartuko du

Udal Gobernuak herritarrei galdetu gura die egoitzarekin zer egin gura duten

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Udalerriko Mesedeetako Amaren egoitzaren etorkizuna eztabaidagai dago. Aldundiak Udalari behin baino gehiagotan esan dio ezinbestekoa dela egoitzan aldaketa sakonak egitea gaur egungo legedira egokitzeko. Gai hori eztabaidatzeko, Udalak eta Aldundiko Gizarte Zerbitzueta Sailak hainbat batzar egin dituzte, baina ez dira adostasun osora heldu.

Mesedeetako Amaren egoitza Jose Arana filantropoak utzitako diruarekin egin zuten aspal-di, eta hura kudeatzeko ardura herriko patronatuak dauka.



Mesedeetako Amaren egoitzaren kudeaketa udalerriko patronatuaren ardura da.

IKER BARANDIARAN

Patronatu hori parrokoak, Udaleko ordezkariak eta zenbait herritarrek osatzen dute.

Udalak Aldundiari behin baino gehiagotan esan dio zaharren egoitzen eskumena Aldundiarena dela; hala, hobekuntzak egin

behar badira Gipuzkoa Foru Aldundiak diruz lagundu behar duela.

Horren aurrean, Aldundiak onartu du egoitza eraberritzeko laguntzak ematea, baina zenbait baldintza jarri ditu.

## EGOITZA BERRIA EDO ERABERRITU

Hala, Aldundiak bi aukera jarri dizkie mahai gainean Udalari eta egoitzaren ardura daukan patronatuari: bata, gaur egungo egoitza botatzea eta berria egitea. Hori egiten badute, ezinbestekoa

izango da gaur egungo 32 plaza mantentzeaz gain, psikogeriatriako beste 24 jartzea. Aurreikusitakoaren arabera, egoitza berria egiteak lau milioi euroko kostua izango luke, eta Aldundiak eta GSR enpresak erdibana ordainduko lukete.

Beste aukera da gaur egungo egoitzari aldaketa sakonak egitea. Kasu horretan, gaur egungo plaza kopuru bera izango luke. Horren kostua 1,6 milioi euro izango litzateke; hortik, 900.000 euro Aldundiak eta GSR enpresak jarriko lukete eta gainontzekoa, berriz, Udalak eta patronatuak.

## KUDEAKETA, GSR-REN ESKU

Bi kasuetan, Aldundiak diruz laguntzen badu, egoitzaren kudeaketa Mondragon Taldearen GSR enpresak eramango du. Baldintza hori jarri du Aldundiak.

Udal Gobernutik jakinarazi dute zaharren egoitza GSRk kudeatzea ez dutela argi ikusten. "Hala egiten badugu, ongizateko zerbitzu bat enpresa pribatu baten eskuetan utzi beharko dugu, eta ez dugu uste hori aproposa denik", azaldu zuen Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek.

## HERRITARREI GALDETUKO DIETE

Lasagabasterrek azaldu zuen orain dela hamar bat urte egoitzaren inguruan etxebizitzak egiteko asmoa egon zela, baina herritar asko kontra agertu zirela.

Hala, Udal Gobernuaren asmoa da urrian egoitzaren egoeraren gainean herritarrek informatzea, eta azaro aldean herritarrei iritzia eskatzea.

ETXEBIZITZA &gt; EZTABAIDA

## EB-Berdeek etxebizitzaren gainean egindako salaketa "funts bakoa" dela esan du alkateak

I.B. &gt; BERGARA

Pedro Lasagabasterrek aurreko astean EB-Berdeek egindako salaketei erantzun gura izan die. Lehenik eta behin, azpimarratu du Juan Luis Merino ez dela batzordetara joaten eta "lotsagarria" deritzola osoko bilkuretara "diskurtso populistak egitera" joateari.

Alkateak azaldu du abuztuan eta iraileko lehen hamabostaldian, Aranburuzabalako plan partzialaren aldaketaren ondorioen gainean zalantzak zituzten herritarrei azalpenak eman dizkiela; eta eremu horretan bizi diren herritar guztiei informazioa idatziz bidali zietela. Bestalde, Lasagabasterrek berretsi du Aranbu-

ruzabalan etxebizitza sozialak egingo dituztela, "EB gobernuan izan ala ez. Batzordeetan eta osoko bilkuretan egon direnek ondo dakite hori". "Lurzoruaren Legea hor dago, baina ezin ditugu proiektuak hala baldintzatu; bestela, gauzak asko atzeratzeko arriskua zegoen", gaineratu du alkateak.

&gt; ADINDUNAK

## Herriko erretiratuei omenaldia egingo diete domekan


Etzi, domeka, erretiratuen eguna ospatuko dute. 210 lagunek eman dute izena bazkaltzeko. 12:30ean meza esango dute San Pedro elizan. Horren ostean, luntxa izango dute erretiratuen tabernan, eta 14:00etan bazkaria kiroldegian. Bazkalostean dantzaldia izango dute eta hainbat opari zozkatuko dituzte: Udalak emandako bi bidaiak eta herriko saltoki eta enpresek emandako hainbat opari.

&gt; ONDAREA

## Ibarraundi museoa asteburuetan itxita egongo da

Ibarraundi museoko ardura-dunek jakinarazi dute, bestelako erabakirik hartu ezean, aurrerantzean museoa itxita egongo dela asteburuetan.

Denbora luzean zapatuetan goizez eta domekan goizez eta arratsaldean publikora zabalik izan dute zerbitzua, baina oraingoz eten egingo dute. Hala ere, talderen batek asteburuan bisita gidatua egiteko aurretik deitzen badu, zerbitzua emango diote.



**FAGOR** 

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00  
Faxa: +34 943 71 90 01



**((112))**  
**SOS DEIAK**

ADINDUAK > OMENALDIA

# Herriko alaba Sabina Artazak 101 urte bete ditu

Apodakan (Araba) jaiotako Sabina Artazak ia bizitza osoa darama Eskoriatzan; azken bi urte eta erdian zaharren egoitzan bizi da

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Astelehenean Sabina Artaza eskoriatzarrak 101 urte bete zituen. Udaleko ordezkariak omenaldia egin zioten Mesedeetako Andra Mariaren egoitzan, bertan bizi da eta azken bi urteotan. Udaleko Ongizate Saileko ordezkarien bisita jasotzeaz gainera, senitartekoak ere izan zituen alboan Artazak.

Artaza Apodakan (Araba) jaio zen 1907an eta bakarrik ahizpa bat izan zuen. Obekuriko (Trebilñu) Gregorio Alonsorekin ezkondu zen, Arrasaten, senarrak Arrasaten lan egiten zuela-

ko tren konpainiarako. Espainiako gerra hasi zenean, baina, senarra espetxera eraman zuten eta Artazak egoera larriak bizi izan zituen.

**SEME TXIKIAREKIN, BILBORA**

Senarra espetxean zuela irain asko jasan zituen Artazak, eta, horren ondorioz, Bilbora jo zuen haurdun zegoela, 2 urte zituen Paco semearekin batera. Bilbon familia zeukan, baina puntuan egon ziren erbestera joateko. Pacok gogoan dauka itsasontzi baten sartuta egon zirela, baina azkenean ez zirela kanpora joan.

Espetxetik askatu zutenean, denborara senarrak tren konpainiako lanpostua berreskuratu zuen, eta Eskoriatzara joan ziren seme-alabekin bizi izatera.

Ordutik hona bizimodu lasaia izan du Artazak bere familiarekin Eskoriatzan: bi seme eta alaba bat izan zituen.

**EZ DU INONGO MINIK**

Azken urteotan gorra dago Artaza eta bere kabuz ez da oinez ibiltzen, baina oso osasun ona dauka; hain zuzen ere, ez du inongo minik eta ez du inolako botikarik hartzen. Orain dela sei urte arte, gosaria berak prestatzen zuen eta berak egiten zuen egunero ohea. Gerora, apurtxo bat makaldu zen, eta orain dela bi urte eta erdi zaharren egoitzara eraman zuten.

**LUZAROAN BIZITZEKO**

Sabina Artazaren seme Pacok kontatu digu Sabinak 47 bat urte zituenean digestio arazo batzuk izan zituela, eta orduko On Sabino medikuak esan ziola egunero kola freskagarri basokada bana edateko eguerdian eta iluntzean. Kontua da orain dela laupabost urte arte Artazak ez ziola ohitura horri utzi. Bestela, Sabina ez da inoiz asko jatekoa izan, tamainan jan izan du, baina gozokiak asko gustatzen zaizkio.

Artazak oso bizitza lasaia eraman du: seme-alabak aurrera ateratu ditu, egunero mezetara joan izan da... eta, bere senitartekoen esanetan, oso pertsona umoretsua eta positiboa izan da, gor gelditu den artean. Gor gelditu zenetik ez du hain umore onik, baina salbuespenak egiten ditu birbilobak bisita egiten dionean.

**URTEAK ZENBATU BARIK**

Paco semeak kontatu digunez 90 urte bete zituenetik Sabinak ez ditu gainontzeko urteak zenbatu gura izan. Hala ere, joan den urtean omenaldi oso berezia egin zioten Udaleko eta Aldundiko ordezkariak, azken urteotan bizi den egoitzan. Lore sorta handia emateaz gain, aurrekoa ere dantza zioten orduan.



Sabina Artaza bere seme Paco eta haren emaztearekin.

IKER BARANDIARAN



Argazkiko Andoni Zubiaga (goian eskuinean), Iñaki Herrerak ordezkatu du. I.B.

MUSIKA > LEHIAKETA

## Barua Bandak Danbaka lehiaketan esku hartuko du

Euskaraz abestutako pop-rocka egiten du 2007an sortu zuten Eskoriatzako taldeak

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako talde bakarrak eman du izena aurten Danbaka musika lehiaketan esku hartzeko, eta berau sailkatu egin da. Hala, Barua Banda taldeak kontzertua egingo du Elgetako Espaloia Kafe Antzokian abenduaren 19an, beste hiru taldeekin batera.

Barua Banda Andoni Bengoa, Iñaki Kortazar, Gari Kortazar eta Iñaki Herrerak osatzen dute. Andoni Zubiaga ez dago taldean dagoeneko. Guztiak dira eskoriatzarrak, Herrera izan ezik; bera abadiñarra da.

Barua Banda 2007an sortu zuten. Bengoak urteak zeramatzan etxean kantutak idazten, eta

behingoz talde bat sortzea erabaki zuen. Bengoarenak dira kantu guztiak: musika eta hitzak, biak.

**HIRU KONTZERTU**

Pop-rocka egiten dute, euskaraz abestutakoa. Hitzetan, bizi-pen pertsonalak, gertaerak eta gizarte gaiak lantzen dituzte.

Orain arte hiru emanaldi egin dituzte, guztiak Eskoriatzan: Inkernu tabernan, San Pedrotan txosnagunean eta azkena Ibarraundin, Euskosarearen bidez nazioartetik etorritako gazteendako.

Taldekideetako batzuk S-Covers taldean ere buru-belarri dabilta aspaldi honetan.



**LENIZ**  
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

AZPIEGITURAK &gt; ABIADURA HANDIKO TRENA

# Trenaren lanak abiadura handian doaz eta sarbide ugari egin dituzte

Trazatuaren lanekin hasi ahal izateko sarbideak eta bideak egiten dabilta

Kamioiek sekulako hautsa jasotzen dute eta Bolinburu baserrian haserre daude

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
Hilabete pasa da lehenengo kamioiak eta hondeatzeko makinak Zabola auzoko lurretan sartu zirenetik. Baina hilabete nahikoa izan da bailara horretako itxura erabat aldatzeko. Lehen zelaiak zeuden lurretan pista eta sarbide ugari ikus daitezke orain.

Asier Agirre alkateak adierazi du lanak sekulako abiaduran doazela. Agirrek azaldu du biaduktua egingo duten lurretan zundaketak egiten dabiltzala dagoeneko, biaduktu horren zutabeak eraikiko dituzten tokietan. Horrez gain, zabortegetarako sarbideak egiten ere badabilta. Lugartegi baserrira iristeko bide berri bat egin dute eta Bolinburu baserriko bidea ere zabaldu egin dute kamioiak bertatik ibili ahal izateko. Lur mugimendu handiak egiten dabiltzala adierazi du alkateak.



Hondeatzeko makina eta kamioi ugari dabilta Zabolan. Zabortegetarako sarbideak egiten dabilta eta zundaketak ere egin dituzte hainbat puntutan.

I.A.

Ateratako lur guztia Bolinburu baserriari desjabetutako lursail batera eramaten ari dira. Zabortegeta egin ahal izateko baimenaren zain daude oraindik. Baimen hori lortutakoan, batutako lur hori guztia zabortegetara eramango dute berriz.

## BOLINBURU BASERRIA

Aramaioko Bolinburu baserriko bizilagunek gertu-gertutik bizi dituzte Abiadura Handiko Trenaren lanak eta baita horiek eragiten dituzten oztopo eta arazoak ere. Dena dela, hautsa da buruko min handien ematen diena. "Egunero

egunero kamioi pila bat pasatzen dira gure etxe paretik eta horrek sekulako hautsa jasotzen du. Hauts artean bizi gara eta egun batzuetan jasanezina da", azaldu du Luis Mari Erizek. Behin eta berriz eskatu behar izan dute inguruak ureztatzeko kamioi bat pasatzea egu-

nero eta dirudienez azken egunotan Bilboko enpresa bateko kamioi bat ari da lan horiek egiten. Erizek ere azaldu du oso azkar doala dena: "Kalean bizi direnak behar bada ez dira konturatzen, baina hemen sekulako mugimendua dago, oso azkar doa dena".

KULTURA &gt; EUSKARA

## Euskararen erabilera aztertzeke kale neurketa egingo da urrian

Euskara batzordeak joan zen astean egin zuen ikasturte honetako lehenengo bilera irekia; 2009ko egutegia finkatzen hasi dira dagoeneko

A.B. &gt; ARAMAIO

Emun kooperatibak euskararen erabilerean hausnarketa estrategikoa egin ostean, Euskara batzordeak adostu zuen hilean behin bilera irekiak egitea. Uda-ko oporren aurretik hasi zituzten bilera horiek eta dagoeneko egin dute ikasturte honetako lehenengo bilera ere. Txirritola euskara elkarte, San Martin eskola eta herriko beste zenbait elkarte bildu ziren bertan. 2009rako ekintzen egutegia antolatuz, besteak beste.

## ERABILERAREN NEURKETA

Euskararen erabilera sustatzeko plana finkatu aurretik euskararen erabilerean neurketa egin gura du Euskara batzordeak. Hori ere lotu dute dagoeneko. Urrian egingo dute kale neurketa eta abenduan emango dituzte ezagutzera azterketa horren emaitzak. Soziolinguistika Klusterreko kideak Aramaioko kaleetan zehar ibiliko dira herritarrek nola hitz egiten duten aztertzen. Ez dute galdeketerik

egingo, eurek entzuten dutena aztertuko dute. Datuak herriko gune desberdinetan jasoko dituzte, eta, besteak beste, adina eta sexua izango dituzte kontuan.

## BEHATOKIAREKIN HITZARMENA

Behatokia hizkuntza eskubideak bermatzeko erakundea da eta Uemako udalerrri guztiekin hitzarmena sinatu gura du. Hitzarmen horren helburua da Behatokia herritarrei gerturatzeta eta ezagutzera ematea. Modu horretan, herritarrek euskararen gainean dituzten kezak udalerean bertan aurkezteko aukera izango dute.

Euskara batzordeak urriaren 27an, 19:00etan, egingo du hurrengo bilera irekia.

AUZOAK &gt; UNTZILLAKO JAIK

## Bertso saioa egingo dute urriaren 3an

A.B. &gt; ARAMAIO

Untzillako auzotarrek guztia prest daukate datorren bari-kuan festa giroan murgiltzeko; urriaren 3tik 5era Untzillako jaiak ospatuko dituzte.

Egubakoitzean 19:00etan hasiko dituzte jaiak, kanpaiak jo eta etxafuegoak jaurti ostean. 21:00etan, elkarteko bazkide eta auzokide guztien artean auzo afaria egingo dute. Afalostean, gainera, giro polita egongo da. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariek berotuko dute afalostea.

Zapatuan 12:00etan meza egingo dute auzoko hildakoen alde. Ondoren, herriko trikitilariak festa giroa ekarriko dute auzora.

Arratsaldean antzerki emanaldia egingo da eta gauean, 22:30ean hasi eta goizaldera arte, dantzaldia Lotxo taldearekin. Dantza baino boloak nahiago dituztenek Murumendi elkarteko 27. bolo txapelketan parte hartzeko aukera izango dute. 23:00etan hasiko da txapelketa eta lehenengo bostek saria lortuko dute: irabazleak trofeoa, txapela eta 200 euro; bigarrenak trofeoa eta 150 euro; hirugarrenak 80 euro; laugarrenak 40 euro; eta bosgarrenak sorpresa bat.

Domekan 12:00etan meza egingo dute Santa Ageda eta Garagartzako koroek lagunduta eta 13:00etan bermut-dantza Nicolas Gardokirekin.

**bere ustez**



Beatriz Zabalondo

**Denboraren neurritik at ospitalean**

**G**aur dira bi hilabete ospitalean sartu ginela: "Lau izarreko hotelean gaude badiara begira". Udako azken kondarrak erretzera etorri ginelakoan, udazkenari ere bertan egin diogu ongietorria.

Beti ohe baten inguruan bilduta, denboraren jolas-zirimoletan ibili gara. Egunak bat bestearen ondotik etorri dira, berez-berez, baina amaren bihotz-taupadek markatu dute gure minutuen neurria: estutasunetik estutasunera doazen orduetxatada bilatzeko ahalegin ia bakarrari

**"Amaren bihotz-taupadek markatu dute gure minutuen neurria"**

heldu guran, inoizko segundo luze eta sakonen oparia jaso dugu. Nola hala denborari gain hartuta, bizitzaren hatsak ekarritako arnasak bizi izan gaitu.

Behar denean tokian egon beharra gogorarazi digu hala beharrak, eta eguneroko mar-txa zoroaren gurrupila geldit-zeko kemena biltzera eraman gaitu. Maitasunaren benetakotasunak ere ez du mozorrorik, eta gertu sentitu ditugunei eta euren lanean horrenbeste saiatu direnei esker ona zor diegu.

Aurten uda ez da izan ez opor, ez eguzki, ez algara eta ez festa. Ez lan, ez laino, ezta tristura ere. Ez dut halakoren bizipenik. Ostera, ederra izan da bizi-arnasa topatzea.



Fernando Zenitagoiak prest dauka abendura arteko partiduen egutegia.

L.Z.

**KIROLA > PILOTA**

**17 bikote, hastear den pilota txapelketarako**

Bi mailatan banatuta, datorren astetik aurrera 17 bikote lehiatuko dira binakako pilota txapelketan, abenduko finalera iristeko ahaleginetan

**LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA**

Elgetan hastear den federatu gabeko helduendako binakako pilota txapelketan 17 bikotek eman dute aurten izena. Lau t'erdia barruan jokatzeko da txapelketa hori eta aurten, berrikuntza moduan, bi txapela izango dira jokoan: beteranoen maila alde batetik eta 40 urtetik beherakoen bestetik.

Beteranoetan bederatzi bikotek eman dute izena, iaz baino bat gehiagok. Hilaren 10ean, barikua, hasiko dituzte norgehiagokak. Talde horretan dago iazko bikote irabazlea: Koldo Goenagak eta Roberto Basaurik osatzen dutena, hain zuzen ere.

Berria den 40 urtetik beherakoen txapelketan, berriz, zortzi bikotek eman dute izena. Horiek hilaren 17an, barikua, emango diote hasiera txapelketari. Bai gazteak, bai beteranoak bariku

**17 bikote**

**BETERANOAK**

1. Joseba Arbulu-Julio Calleja
  2. Alex Arantzabal-Alberto Telleria
  3. Pello Larrea-Mikel Elkoro
  4. Juan Carlos Errasti-Jesus Belamendia
  5. Javier Bolinaga-Iñaki Izagirre
  6. Luisan Alkorta-Gorka Bolinaga
  7. Koldo Goenaga-Roberto Basauri
  8. Asier Morales-Fernando Zenitagoia
  9. Iñaki Ugarteburu-J. M. Zubiaurre
- Ordezkoa: Angel Mari Ibarluzea

**40 URTETIK BEHERAKOAK**

1. David Peñalver-Txomin de Vega
  2. Gorka Arizmend.-Oxel Erostarbe
  3. Mikel Ormaetxea-Iraitz Bolinaga
  4. Jose Monterroso-Satur Ramos
  5. Jokin Arantzabal-Unai Alkorta
  6. Enrike Elkoro-Oier Billa
  7. Igor Irazabal-Gaizka Bolinaga
  8. Samu Gorrotxategi-Asier Osoro
- Ordezkoak: S. Bouzas / I. Ibarluzea

iluntzeetan eta domeka goizetan elkartuko dira txandaka bina partidu jokatzeko. Saio bakoitzean, beraz, Udal Pilotalekuan lau partidu ikusteko aukera egongo da.

**EGUTEGIA PREST**

Fernando Zenitagoia eta Jesus Belamendia aritu dira buru-belarri txapelketa antolatzen: "Aurten bikote gehiago direnez, partidu gehiago programatu eta jokatu behar dira saio bakoitzean". Antolatzaileak, baina, oso pozik daude txapelketan izena eman duen bikote kopuruarekin.

Egutegia prest dute dagoeneko. Zenitagoiak azaldu duenez, bikote bakoitzak hiru aste bukatu jarraian norgehiagoka izango du eta laugarrenean atsedan hartuko du.

Finalak abenduaren 26an edo 27an jokatu dira Elgetako Udal Pilotalekuan.

**> IRTEERA**

**Erretiratuak Landara joango dira arratsalde pasa hilaren 8an**

Elgetako Erretiratuen Elkar-teak Landako urtegi txangoa egitera gonbidatu ditu interesatu guztiak hilaren 8rako, eguaztena.

Autoetan egingo dute joan-etorria. Elgetatik irteera batera egiteko 14:45erako egin dute hitzordua Ozkarbi elkar-tearen atarian.

Gaur, barikua, da txango horretan izena emateko azken eguna. Interesatuak Pedro Mari Uberarengana jo behar dute lehenbailehen.

**> ARDO DASTATZEA**

**Fernandez de Pierola etxeko ardoak eguenean antzokian**

Fernandez de Pierola upategiko ardoak dastatzeko aukera emango dute hilaren 9an, eguena, Espaloia Kafe Antzokian.

Arabako Errioxako More-da herrian kokatuta dagoen ardogleak askotariko ardoak ekarriko ditu egun horretan eta dastatzera emango ditu bertaratzeko diren artean.

Ardoa nola egiten duten eta zein teknika erabiltza azalduko du. Ardo dastatzea 20:00etan hasiko da Kafe Antzokian.

**> IKASTAROA**

**Biodantza saio irekia doan hilaren 9an, eguena, herri eskolan**

Biodantza ezagutzen ez dutenentzako eta interesa dutenentzako eskola irekia egingo dute urriaren 9an, eguena.

Ikastaroa zelakoa den eta biodantza zer den ikusi nahi dutenek aukera paregabea dute, beraz, eskola irekian parte hartzeko, doan.

Elgetako herri eskolan izango da, 19:00etatik 21:00etara. Elena Subijana eta Ana Sousa dira irakasleak. Argibide gehiagorako deitu telefono honetara: 606 63 61 99.

**> DEIALDIA**

**Hilaren 11n garbituko dute Eguarbitzako basoa auzolanean**

Elgetako Udalak deialdia egin die herritarrei urriaren 11n, zapatua, Eguarbitzako herri basoa auzolanean garbitzera joateko.

Herriko plazatik abiatuko dira Eguarbitzarantz, 08:30ean. Ahal duenak erreminta eramateko dei ere egin dute: palak, sasi-garbitzeko makinak eta abar.

Hamarretakoa egun horretan Udalaren kontura izango da.

**KIROLAK > UDAL ZERBITZUAK**

**Sei egun dituzte herritarrek Udaleko Kirol Zerbitzuetako doako saioetan parte hartzeko**

**L.Z. > ELGETA**

Elgetako Udalak Kirol Zerbitzuetako saioetan doan parte hartzeko aukera ematen du aurten. Interesatuak sei egun gelditzen zaizkie gustuko kirolean konpromisorik gabe probatzeko. Ate irekien jardunaldiak dira eta hilaren 10era arte egingo dira.

Astelehenean, 2-9 urte bitarteko umeek, eskolan, 17:00etatik 18:00etara egingo den psikomotrizitate saioan doan parte hartzeko aukera izango dute. Yoga 19:00etan izango da eta tai txia 20:00etan; martitzenean, nagusiendako kirol saioa (16:00), gazteendako zerbitzu konbinatua

(18:00) eta sasoiaren egoteko gimnasia saioa (19:00) egingo dira; eguaztenean, oinarritzko soin hezkuntza (17:00), yoga (19:00) eta tai txia (20:00) egingo dituzte; eta eguenean, nagusiendako kirol saioa (16:00), gazteendako zerbitzu konbinatua (18:00) eta sasoiaren egoteko gimnasia (19:00).



GAZTEAK &gt; AISIALDIA

# Astelehenetik aurrera zabalik egongo dira ludoteka eta liburutegia

Astelehenetik egubakoitzera zabalduko dituzte eta astean behin ekintza bereziren bat egiteko asmoa dauka Gurel guraso elkarteak

**MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA**  
Astelehenean, urriak 6, hasiko dute ludoteka eta liburutegiko ikasturtea. Astelehenetik egubakoitzera egongo dira zabalik biak (16:30-19:30) eta liburutegira, umeak ez ezik, gainerako herritarrek ere hurreratu ahal izango dira (18:30-19:30).

**FUNTZIONAMENDUA ARAUTU**  
Ludotekak 2 eta 12 urte arteko ume eta gaztetxoendako izango ditu zabalik ateak, baina 2 urtekoek gurasoekin egon beharko dute. Garro jauregian dagoen ludotekan jolas egiteko gunea daukate herriko txikienek, eta liburutegiak, oster, eskolako lantxoak egin, irakurri eta marrazkiak eta eskulanak egiteko aukera eskaintzen diete. Begi-



Neska-mutikoak Garro jauregian dagoen liburutegian irakurtzen.

M.A.

rale bat izaten dute umeek bertan dauden bitartean, eta azken urteotan aretxabaletarra izan badute ere, aurten Eskoriatzan ikasten dabilen Ataungo neska izango dute.

Gurel guraso elkartearen ardurapean daude ludoteka eta liburutegia Gatzagan. Aurten berrikuntza batzuk egin gura dituzte, eta horiek guztiak adosteko batzarra ziren egitekoak

asteen gurasoekin. Ludotekaren zein liburutegiaren funtzionamendua adostu gura dute guztien artean, eta erabiltzaileen artean arazorik sor ez dadin, gutxieneko arauak ezarri.

Aurten, gainera, astean behin ekintza bereziren bat egiteko asmoa daukate Gureleko kideek, eta halaxe jakinarazi diete gurasoei. Ikasturteko ekintza guztiak ez dituzte zehaztuta, baina onartuz gero, egutegia osatuko dute eta erabiltzaileen artean banatu, jakinararen gainean egon daitezzen ludotekako bazkide guztiak.

**BATZORDE ALDAKETA ETA GABONAK**  
Gurasoekin egindako batzarrean ludoteka eta liburutegia bakarrik ez dituzte izan berbagai. Azaroan batzar orokorra egin beharko du Gurelek, eta batzordeko kideak aldatu edo ez, eta zeintzuk irten eta zeintzuk sartu erabaki gura dute aurrez. Lau kidek osatzen dute Gureleko batzordea, eta bi urterako hautatu izan dituzte kideak. Presidentea azken urtean Nerea Maruri da, eta idazkaria Aitziber Gorosabel.

Era berean, datozen hilabeteotan irteeraren bat edo ekitaldi bereziren bat egin edo ez erabaki gura dute. Baita poliki-poliki Gabonetako ekitaldiak antolatzen hasi ere. Urtero egiten diren ekitaldiekin jarraitu edo berriak antolatu erabaki behar dute, eta proposamenak gustura jasoko dituzte batzordeko kideek.

ERREPIDEAK &gt; KONPONKETAK

## Errepide Sailarekin elkartuko da alkatea bideak konpontzeko

Hainbat baserriarako sarrerak konpontzea da asmoa eta proiektu txiki batzuk eginda daude

**M.A. > LEINTZ GATZAGA**  
GI-3310 errepide nagusitik Gatzagako hainbat baserriara dauden sarrerak konpondu gura ditu Udalak. Horretarako, Aldundira jo zuen orain dela hilabete batzuk, eta hilabete honetan bertan berriro elkartuko da gaiak aurrera egin dezan. Hala ere, Errepide Saileko ordezkariarekin elkartu aurretik baserriarrek inongo du batzarra hainbat erabaki adosteko.

**BASERRITARREKIN BATZARRA**  
Errepide ertzean dauden baserri batzuetako sarrerak ez daude behar bezala: batzuek automobilarekin maniobra egiteko oso leku txikia daukate, eta beste

batzuek, ikuspen txarra. Halako lekuetan segurtasuna ez dago bermatuta eta sarrera eta irteerak oso arriskutsuak izaten dira.

Bideen kontua Foru Aldundiko Errepide Sailari dagokionez, hara jo zuen alkatea laguntza eske, eta dagoeneko proiektu txiki batzuk eginda dituzte: "Gu eskaera batzuekin joan ginen, eta eurek eman diguten erantzuna ez da guk aurreikusita geneukana. Horregatik, aste honetan bertan batzarra egingo dugu baserriarrek eta Aldundiak proposatutako proiektuak erakutsiko dizkiegu. Han jasotako erantzuna eroango dugu gero Errepideko ordezkariengana", jakinarazi digu Eusebio Villar alkateak.



Gatzagain inguruan oso ikuspen txarra dago eta sarrerak eta irteerak egitea arriskutsua da.

M.A.

Hainbat zalantza ditu alkateak Aldundiaren proiektuekin, eta ez du uste baserriarrek ere hala-hola onartuko dituztenik.

**GATZAGAINEN IKUSPEN TXARRA**  
Baserrietara doazen sarrerez gain beste puntu arriskutsu bat ere badago Gatzagan: Gatzagain. Gainera, automobil asko ibiltzen da sartu eta irten; batetik, jatetxea

dagoelako eta bestetik, menditik egurra ateratzen duten kamioiak pasatzen direlako. Ikuspen arazo handia dago Gatzagainen, eta errepide nagusitik pasatzen diren automobilak abiada handian egiten dutenez puntu oso arriskutsua da. Hori konpontzeko mendi zati bat kentzea proposatu dute. Orain ikusi egin behar baserriarrek onartzen duten.

**DOMINAGARA BIDEA EGINDA**  
Udalak iaz ere jaso zuen Aldundiaren laguntza eta pozik geratu zen emaitzarekin. Arlabango errepidetik Dominaga baserriera doan bide sarrera eta bidea bera konpondu zizkion -ormigoia bota eta abereendako pasabidea egin-. Lanek 152.377 euroko aurrekontua izan zuten, eta orain dela hilabete inauguratu zuten.





Arkaitz Garmendia baloiarekin, aurreko derbian; presionatzera dator Unai Arregi, atzean.

JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > MONDRA-ALOÑA DERBIA

# Derbia domekara Maritxu Kajoigatik

Ligako laugarren jardunaldian dator preferenteko denboraldiko lehen derbia: liderra hartuko du Mondrak

**XABIER URTZELAI > BERGARA**  
Hiru jardunaldi jokatu lider egoteak ez du aparteko baliorik; edo bai. Hau da, horrek ez du denboraldiari begira ezer aurreratzeko, baina txapelketa nork hasi duen hobeto erakusten du; puntuei dagokienez bai, behintzat. Lider dagoen Aloñak (7) lau gol egin zizkion Mondraren (4) orain dela bi asteko berrero Tolosari,

baina horrek ere ez du derbiari begira ezer aurreratzeko. Hori bai, urtero sasoi honetan gertatzen den moduan, *santu* bikote batek goitik behera baldintzatuko du jokalarien jarduna, Maritxu Kajoik eta San Migelek. Hasteko, Mondrak partidua domekan jokatzea erabaki du (17:00); errugbiko moduan, gertu egongo dira zapatuan entrenatzeko?

> SASKIBALOA

## Cafes Aitonaren kontra egingo du MUK ligako debuta bihar, 20:00etan, Donostian

Nazional mailan jokatuko duen ibarreko ordezkari bakarrak, MUK, bihar hasiko du liga, Donostiako Cafes Aitonaren kantxan. Iazko denboralditik hona gauzak asko aldatu dira senior mailako lehenengo taldean, eta baita helburuak ere. Iazkoa baino talde askoz gazteagoarekin, mailari eustea izango dute helburu.

> ESKUBALOA

## Portugaleten irabazita, Ford Mugarri Arrasatek Egia Servi Chap taldea hartuko du domekan

Ford Mugarri Arrasatek domekan hartuko du ligako talde indartsuenetako bat, Egia (12:30). Donostiarrak beste talde indartsu bati irabazi zioten joan den astean, Barakaldori 31-28. Baina arrasatearrek ere garaipen garrantzitsua eskuratu zuten Portugaleten kantxan. Datozen bi jardunaldiak gogorak izango dira.

> ERRUGBIA

## Domekan hasiko du Arrasateko taldeak liga Elorrion, eta entrenamendua egingo dute bihar

Arrasateko Errugbi Taldeak domeka eguerdian jokatuko du denboraldiko lehenengo norgehiagoka, Elorrion. Eta gaur gauean jokalariek birritan pentsatuko dute hurrengo tragoa eskatzeko orduan; izan ere, jokalariek horrela erabakita, bihar eguerdian entrenamendu saioa izango dute, biharamuna kentzeko.



LAGUNARTEKOA Arrasatek eta Ordiziak jokatuz zuten zapatuan.

X.U.



**miren barrena  
arropa denda  
neurri bereziak**

*Ondo pasau  
jaixetan!*

**Kalezaharra, 12 B  
20560 Oñati  
628 526 265**





Aitor Mendizabal -ezkerrean- eta Ander Muguruza -eskuinean- izango dira biharko finaleko Debagoieneko ibarreko ordezkari bakarrak.



XABIER URTZELAI

PILOTA &gt; SAN MIGEL SARIA

## Bihar gauean jokatuko dituzte San Migel sariko finalak Zubikoan

Ander Muguruza bergararra eta Aitor Mendizabal antzuolarra izango dira aurrez aurre

Partidu horren aurretik gazte mailako norgehiagoka jokatuko dute

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Bergarako eta Antzuolako pilotazaleek badute bihar, zapatua, Oñatira joateko motiborik. 22:30ean hasiko den pilota jaialdian San Migel Sariko finala egongo da jokoa, eta amateur mailako partiduan ibarreko bi pilotari izango dira aurreko koadroetan zein baino zein gehiago: Aitor Mendizabal eta Ander Muguruza. Baina norgehiagoka eskuz

binakakoa izango da. Mendizabalek Lintzoain pilotari nafarra izango du bikotekide eta Muguruzak Bengoetxea eibartarra -finalaurreko partiduan min hartu zuen eskuan, eta baliteke hor aldatetaren bat izatea.

GAZTEAK ETA BETERANOAK

Final horretan, lehenengo bikotearen freskotasanak eta bigarrenaren beteranotasunak egingo

dute talka. Mendizabal eta Lintzoain 20 urteren bueltan dabil-tza; bospasei urte gehiago dituzte Muguruzak eta Bengoetxeak.

Atzeko pilotariak aurrelariet lasaitasuna ematen dieten horietakoak dira. Bengoetxea amateur mailako atzelari onenetakoa da eta Lintzoainek itxura txukuna eman zuen finalaurrekoan.

Hori bai, ikuskizuna aurrean egongo da. Jokoa ezberdinak izanda ere, ondo jarduteko fisikoki gorputzaldi onean egon behar duten bi pilotari dira Muguruza eta Mendizabal debagoien-darrak. Aurreko koadroetako jokoa bilatzen dute biek ala biek: Mendizabal nerbio hutsa da eta Muguruzak gantxoekin min handia egingo dezake.

Amateur mailako finala ez da izango, baina, bihar gaueko jaialdian jokoa egongo den bakarra, gazte mailakoek ere finala jokatu dute-eta. Hor, Arrieta (Markina) eta Galartza (Galdakao) bikote bizkaitarrak Arrieta (Hernani) eta Irustaren (Gernika) kontra jokatu dute.

PROFESIONALAK, DOMEKAN

Domekan, berriz, pilotari profesionalen txanda izango da. 17:00etan hasita Capellan I.ak eta Merino I.ak Galartza V.a eta Arruti izango dituzte aurrean. Eta, ondoren etorriko da jaialdiko partidua nagusia: eskuz bina-ko txapelketako finalista Titin III.a eta Laskurain Gonzalezen eta Pascualen kontra (20 euro).

HERRI KIROLAK &gt; OÑATIN

## Tolosako desafioko bi harri-jasotzaileak Oñatin izango dira bihar arratsaldean

Atsedean hartu eta gero, Aimar Irigoienek eta Nazabal III.ak erakustaldia egingo dute

X.U. &gt; OÑATI

Astelehenean egunkarietako azalak bete zituzten kirolariak izango dira bihar Oñatin. Ez ziren 1 Formulako pilotuak, ezta futbol jokalariek ere. Behingoz, harri-jasotzaileek bete zituzten izenburu nagusiak, eta harri-jasotzaile horiek Herri Egunean izango dira, erakustaldia egiten.

Tolosako zezen-plazan hartu zuten egurtuaren ondoren -Irigoienek 115 altxaldi egin zituen eta Izeta III.ak 108 altxaldi-, den-

boraldi batean lehiatzeko asmorik ez duela adierazi du aste barruan desafioko irabazle Aimar Irigoienek: "Baina Gabonak arte ez dut atsedetik hartuko, erakustaldiak ditugulako han eta hemen. Akaso, Gabon ostean hartuko dut opporraldi txiki bat".

EGUAZTENEAN, ENTRENATZEN

Harrigarria bada ere, Irigoienek ez zuen astelehenean giharretako minik izan, eta eguaztenerako aurreikusitako entrenamendu



Aimar Irigoien 200 kiloko harria jasotzen.

GOIENKARIA

saioa. Izeta III.ak, berriz, apustua galduta ere kiroltasun osoz zoriondu zuen Irigoien. Bi protagonistak horiek bihar ikusiko dute elkar berriro, Oñatin.

Bestalde, aizkolariak ere izango dira biharko saioan: Larretxea eta Atutxa Mugertzaren eta Nazabalen kontra lehiatuko dira, Foruen plazan.

MENDIA

## Gazteak mendira joateko ekimena

Pol-Pol mendi elkarteak antolatuko ditu mendi irteerak

A.E. &gt; OÑATI

Bergarako Eskola Kirol Kontseiluko partaideek -Bergarako eskolak eta Udala- gazteen artean dagoen mendizale-tasunaren gaineko hausnarketa egin dute, eta ekimen bat jarri dute abian. Hala, Pol-Pol mendi elkarteak egingako eskaintza kontutan hartu eta eskola kirolaren barruan mendizale-tasuna jardura jarri dute martxan.

BI ESKAINTZA

Jarduera horrek bi eskaintza izango ditu: lehenengoa Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleendako zuzenduta egongo da. Hor, Pol-Polek ikasleendako hamar mendi irteera prestatuko ditu. Horietako sei herri-tik kanpo egingo dituzte eta beste sei herrian bertan egingo dituzte. Irteera horietara famili-kide edo lagunak etorri ahalko dira.

Bigarren eskaintza Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleendako zuzenduko dute. Pol-Polek DBHko ikasle guztiei zuzenduta egongo diren bost irteera-jardue-ra berezi antolatuko ditu. Eta jardura horietan gurasoek ezingo dute esku hartu.

Jarduera horien gaineko informazioa gaur bertan, egubakoitza, banatuko dute eskolatan, eta urriaren 9a, egubakoitza, izango da jardura horietan izena emateko azken eguna.

&gt; FUTBOLA

## Aretxabaletak domekan hartuko du Real Union

Mondrak eta Aloñak domekan jokatu duten derbiarekin batera, Aretxabaletak ere egun berean jokatu du Ibarrran, Real Unionen kontra (16:30).

Lehen erregional mailan, oraingo asteburuan beste derbi bat izango da ikusgai: Bergarako Aretxabaleta hartuko du zapatuan (16:45). Horrez gain, Antzuolak Azpeitian jokatu du bihar (15:30), BTLSk Zestoara egingo du bidaia gaur, egubakoitza (20:00), eta Legazpira joango dira Arrasateko mutilak bihar (16:30).

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **IÑAKI MATA**  
Bergarako txotxongiloen mostran izango da asteburuan > **45**



> **GOITB BERRIA**  
Programazioa estreinatuko du astelehenean GOITBk > **51**

> **MIKEL GONZALEZ**  
Realeko jokalaria da txuri-urdinen artean sasotsuen dabilena eta iaz ere onenetakoa izan zen. Bere zaletasunak kontatu dizkigu > **50**



## Aretxabaletara ere heldu da The Beatles fenomenoa

Atzo ezker dago ikusgai mundu osoa aztoratu zuen The Beatles taldearen gaineko erakusketa, Arkupen, eta hilaren 31ra arte egongo da zabalik

Erakusketa laburra bezain interesgarria da, erraz ikusi eta entzutekoa; gainera, talde mitikoaren erlikiaren bat edo beste aurkituko du bisitariak

**JOKIN BEREZIARTUA > ARETXABALETARA**  
Nork ez ditu *Love me do* (1962), *Help!* (1965), *Yellow Submarine* (1966), *All you need is love* (1967) edo *Hey Jude* (1968) moduko abestiak ezagutzen? Mundu osoa astindu zuen The Beatles-efenomenoak. Dagoeneko ohikoak zaizkigun Liverpooloko laukotearen kontzertuetako irudiak ikusi besterik ez dago. Ikusleak,

emakumezkoak ia guztiak, bere onetik irtenda; erotuta, zuzenean ikusten ari ziren euren idoloen maiteminduta. The Beatles fenomenoa, baina, ez zen 1960ko hamarkadako nerabe fanatiko haien oihuetara mugatu, askoz haratago heldu zen. Hau da, musika modernoa irauli zuten, eta kontaezinak dira euren iturritik edan duten taldeak.

**ARRASTOA GURE IBARREAN ERE**  
Gure ibarrean ere arrastoa utzi dute John Winston Lennon Stanleyk –John Lennon–, James Paul McCartneyk –Paul McCartney–, George Harrisonek –George Harrison– eta Richard Starkeyk –Ringo Starr. Debagoienean arrasto horren hainbat adibide aurki daitezke; bi adibide (44. orrialdean jarraitzen du)

## Aretxabaletara ere heldu da The Beatles fenomenoa

(43. orrialdetik dator)

bide bakarrik: batetik, Bergarako BTLs enpresa eta futbol taldearen izena estuki dago The Beatlesi lotuta; eta, bestetik, 2008ko uztailean, Eskoriatzako jaietan, Abbey Road talde imitazioaren kontzertua oso arrakastatsua izan zen. Talde bartzelonarraren emanaldi hark ikusle bati baino gehiagori talde originalaren zuzeneko zela sinestarazi zion. "Begiak itxita, The Beatles dela dirudi", zioen ikusleetako batek.

Beraz, zabaldu berri den Aretxabaletako Arkupe kultura etxe-ko erakusketa ere –eguztenean zen zabaltzekoa, baina arazo batzuk direla medio atzo arte atzeratu zen– The Beatlesek utzitako itzalaren emaitza moduan uler genezake.

### ZALE 'ARRUNTEI' ZUZENDUA

Erakusketa urriaren 31ra arte izango da zabalik eta goizez zein arratsalde bisitatu ahalko da, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Erakusketa azkar kontsumitzeko proposamena da, ordu erdi pasatxoan garrantzitsuena ikus daiteke.

Erakusketa ez dago talde ingelesaren jarraitzaile amorratuak zuzenduta. Are gehiago, behar bada bisitari mota horrentzat eskaintza *sinpleegia* izan daiteke. Dena den, Arkupe kultura etxe-ko ateak publiko guztiari daude zabalik. Hori bai, zale *arrantentzat* The Beatles hobeto ezagutzeko aukera izango da.

### MATERIALA LORTZEA

Material gehiena Leioako The Beatlesen zale amorratu batek utzitakoa da, eta Bizkaian zehar erakusketak egin izan ditu. Material solte hori, baina, ezingo litza-teke erakusketaren antolatzaile Hurbil enpresak dituen baliabideak erabili gabe erakusgai jarri. Hau da, bitrina, panel, telebista eta bestelako elementuak ezinbestekoak dira horrelako eskaintza batentzat. Gainera, Arkupe datorren erakusketarako, Hurbil enpresako kide batek Bartzelona aldean eskuratutako materiala jarriko dute erakusgai.

### IKUS-ENTZUNEZKO ERAKUSKETA

Honakoa da erakusgai izango den materiala: alde batetik, bost panel, horietako lau taldekide bakoitzari eskainiak; lau bitrina, talde mitikoaren musikaz gozatzeko aukera emango duten bi



XABIER URTZELAI

Antonio Deogracias > The Beatlesen zale amorratua

## "Musika modernoaren Pandoraren kaxa zabaldu zuten"

J.B. > BERGARA

The Beatlesek arrastoa utzi du Antonio Deograciasengan (Antzuola, 1949). Fenomenoak bete-betean harra-patu zuten eta oraindik ere orduko musika entzuten duela aitortu digu. Talde bat ere sortu zuten, Los Veleros.

Noiz eta nola ezagutu zenuen Liverpooleko laukotea?

1963an-edo, nik 14 urte nituenean. Estatuan ezagunak izaten hasi ziren, baina euren musika lortzea ez zen batre erraza. Hasieran, Mustang moduko taldeak entzuten genituen, The Beatlesen imitazio espainiarrak. Gero, korreo bidez The Beatles originalen LPak eskatzen hasi ginen, garestiak izan arren. Hala, nire lehen LPa Galerías Preciados-en bitartez erosi nuen, 1967an. Singleak merkeagoak ziren eta horiek erostea zen normalena; Bergaran, esaterako, Biltoki eta Herran dendetan izaten ziren salgai.

Zer izan zen eurengandik atentzioa eman zizuna?

Gazteak ziren, uniformatuak; irudi ederra zen eurena, atentzioa ematekoa. *A hard day's night* [1964] pelikularen estreinaldian, 1965ean, guztiok aho zabalik geratu ginen euren irudiarekin. Ulertzekoa da, 14-15 urte genituen.

Musikari dagokionez, apurketa izan zen The Beatles. Kantu asko ponpoxoak direla iruditu arren, beste kantutatuak hitzak konprometitua dira, sakonak. Horretaz erdarazko itzulpena irakurtzean konturatu nintzen...

entzungailu eta bi MP3rekin; eta neurri askotariko eta denetari-ko bederatzi poster. Beste alde batetik, biniloizko singleak eta bildumak ikusgai izango dira. Gainera, *A hard day's night* filma, 1966ko Tokioko kontzertua eta euren garai oparoena –1962 eta

1967 bitartean– laburtzen duen erreportajea. Euren inguruan irakurri nahi duenak taldearen erdarazko biografia esku artean izateko aukera izango du, eta *merchandising* produktuak ere ikusi ahalko dira.

### ESPERIENTZIADUN ANTOLAKUNTZA

Erakusketa berezi horren antolatzailea enpresa berezi eta esperientziaduna da. Hurbil Kultur-gaiak enpresa berezia da, Aretxabaletako enpresa bat izan arren ezezaguna baita askorentzat.

Jeneralean, instituzioei begira lan egiten dute, eta horregatik ez dute beste kultura eragile batzuen besteko sonarik herritarren artean. Udalekin, aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Nafarroako Gobernuarekin egiten dute lan, besteak beste. Beraz, Euskal Herria

Zenbateraino izan da apurtzailea The Beatlesen musika?

The Beatles sortu eta gutxira, hainbat talde sortu ziren, horietako asko euren musika moldea jorratzen jarraitu zutenak. Beste batzuek beste joera bat hartu zuten, The Rolling Stones kasu. Hala ere, musika modernoaren Pandoraren kaxa The Beatlesek zabaldu zuten. Eurak izan ziren inflexio puntua, oraindik ere hainbat taldek edaten dute The Beatlesen iturritik.

Beatles-zaleek beti izan ohi dute euren taldekide gutukoena. Zein da zurea? Zergatik?

Nirea George Harrison izan da. Taldeko ardi beltza zen, eta haren musika ezberdina zen besteekiko, espiritualagoa. *My Sweet Lord* abesti bikainak, adibidez, zazpi minutu eta erdiko iraupena zuen, orduan oso arraroa zena.

Bestalde, John Lennon heriotzak asko tristatu ninduen. Baina haren heriotzak baino, Lennonek Yoko Onorekin izan zuen erlazioak tristatu ninduen gehien. Argi dago, Yoko Ono izan zen The Beatles suntsitu zuena.

Kantu edo singleren bat eta LP edo diskoren bat nabarmentzeko gai izango zinateke?

Egia esan, ez da lan erraza. Denak dira kantu onak, eta kantu asko dituzte. Baina, bote prontoan esanda, *Revolution* kantuekin geratzen naiz. LP edo diskoen artean, *Hey Jude* aukeratuko nuke.

da euren lan esparrua, baina noiz edo noiz kanpora irteten dira; Errioxara, esaterako. Lanik ez zaie falta; izan ere, urtean 100 erakusketa inguru antolatzen dituzte. Ideia bat egiteko, The Beatlesen erakusketarekin batera, orain dozena bat erakusketa baino gehiago kudeatzen ari dira.

Liverpooleko laukotearen omenezko erakusketaren helburua informazioz jositako ekarpen grafikoa egitea da. Alde horretatik, antolatzaileek argi utzi gura izan dute taldea gustuko izan arren, ez direla gaien adituak.

The Beatlesi omenaldi xumea egiteko, behintzat, balioko du Arkupeko erakusketak. Musika erreferente handienetarikoa, oraindik ere euren kantuek kale-ratzen jarraitzen dute, oraindik ere bizirik dauden seinale.

### DANBAKA

## Asteburu ostean jakingo da 24. taldea

'Danbaka.com'-en bozkatzeko epea gaur eguerdian amaituko da

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA  
Danbaka III. Musika Lehiaketa martxan jartzeko bi aste falta dira. Pasa den *Asteleheneko Goienkaria*-n jakinarazi ziren epaimahaiak aukeratu-tutako 23 taldeak, baina talde batek oraindik aukera izango du Danbakan parte hartzeko. Guztira 39 talde aurkeztu dira, eta horietatik 16 ez dira sailkatu. 16 taldeetatik, bakarrak izango du Danbakan izateko aukera, [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com) helbidean boto gehien jasotzen duen taldeak, hain zuzen.

### HAUTAGAIK ENTZUNGAI

Sailkatu ez diren taldeen fitxa eta abestiak Danbakaren webgunean daude entzungai. Hala, boto emaileak izango du zertan oinarritu, musikari dagokionez, behintzat.

Publikoaren sostengua jaso duen 24. taldea zein den *Asteleheneko Goienkaria*-n kaleratuko da.

### Kontzertuen banaketa

#### Urriak 17, egubakoitza

Mery May (Arrasate)  
Damudot (Mallabia)  
The 5 Twisters (Arrasate)  
Ymotek (Abadiño)

#### Urriak 31, egubakoitza

Ni Neu (Eibar)  
Scam (Aretxabaleta)  
Lord Witch (Bergara)  
Adi Holden (Bergara)

#### Azaroak 14, egubakoitza

Los Viernes al Ron (Antzuola)  
Bitter Honey (Arrasate)  
Army (Zornotza)  
Brankan (Berriz-Mutriku)

#### Azaroak 28, egubakoitza

Foxy Boxxi (Arrasate)  
Igor San Juan (Aretxabaleta)  
Norman (Eibar)  
Hilbete (Durango)

#### Abenduak 12, egubakoitza

Flipin Folk (Ermua-Eibar)  
Rock Privado (Oñati-Donostia)  
The Wet Band (Mutriku)  
Turboshit (Bergara)

#### Abenduak 19, egubakoitza

Barua Banda (Eskoriatza)  
Tuesday Evenings (Durango)  
The Motherfuckers (Arrasate)  
Publikoaren taldea

Kontzertu guztiak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango dira, 22:30ean.

ANTOLATZAILEAK

# 100

ERAKUSKETA BAINO GEHIAGO

Erakusketaren antolatzaile Hurbil Kultur-gaiak enpresak instituzioei begira egiten du lan normalean, Euskal Herrian batez ere. Guztira, urtean 100 erakusketatik gora antolatzen dituzte.

ARKUPE KULTURA ETXEA

# 90

METRO KOADRO INGURU

Aretxabaletako Arkupe kultura etxeak 90 metro koadro inguru ditu, lokal txikia da. Hala ere, The Beatlesen erakusketaren helburua ikus-entzuleari taldea hobeto ezagutzeko aukera ematea da.

Iñaki Mata &gt; Antzerkilaria

# "Gurea, egin ahala sortzen joaten den ikuskizuna da"

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; BERGARA

Atzo, eguena, hasi zen Bergaran IX. Txotxongilo mostra. Mundu osotik etorritako txotxongiloen artean izango da gureko ordezkariak. Iñaki Mata antzuolarrak *Barreras* antzezlan eskainiko du gaur, egu-bakoitza, kalean barrena.

## Zer ekarriko duzu Bergarako txotxongilo mostrara?

*Barreras* da ikuskizunaren izenburua eta kale antzerkia da. Ikuskizun honekin jendea gonbidatu nahi dugu gogoeta egitera. Erakutsiko dudana irudia nahiko bitxia da eta bada momentu bat ikusleak ez duena ulertzen zer ikusten diharduen, panpina edo pertsona, konturatzen diren arte ni naizela dena mugitzen dudana. Tarte horretan gerturaten dira objektura, gurpildun aulkira. Helburua da erakustea protagonista ez naizela ni, ez dela panpina, baizik eta gurpildun aulkia. Aulkiaekin lortzen dut barrez edo emozionalki jendea mugitzea. Saiatzen naiz publiko-arekin elkar eragina izaten. Izan ere, gurpildun aulkia beti sortzen du nolabaiteko errespetua, hortaz, alde dramatiko hori kentzea da asmoa.

## Nola begiratzen zaio umorez horrelako gai bati?

Panpinak erabiliz. Panpinak nolabaiteko distantzia markatzen du errealitatearekiko eta barrea eragiten dugu horrela. Ni makurtuta joaten naiz eta urrutiko agintearen bidez mugitzen dut panpinaren burua, panpinaren hankak nireak dira eta aukian doanaren gorputza ordezkoa da. Hortaz, bi pertsonaia egiten ditut.

## *Barreras* lanarekin zure bakarkako trebetasuna erakutsiko duzu?

Aurrez, ipuin kontalari moduan egin dut ikuskizun bat, antzezlan honetako panpina-

## "Helburua da erakustea protagonistak ez garela ez ni ezta panpina ere, gurpildun aulkia baizik"

## "Kaleko antzerkia gustukoa dut publikoarekiko dagoen elkar eraginarengatik"

ren buruarekin kaleko beste lan batzuk ere egin ditut eta baita tailerrak ere. Baina nazioartean lan honek izan du arrakasta. Izan naiz Portugalen ezinduen azoka batean eta oso esperientzia interesgarria izan da mundu hori ezagutzeko. Belgikan, Frantzia, El Salvadorren, Mexikon eta Costa Rican ere izan naiz; urrian Hungariara joango naiz eta azaroan Brasilerara, Argentinara, Paraguayra, Uruguayra, Perura eta Txilera.

## Taun-Taun taldeko kide izanik Bergarako txotxongilo mostran ikusi dugu zure lanik.

Bai, Taun-Taun taldearekin bai, baina bakarka hau da lehen aldia. Taun-Taunekin batez ere barruko lanak egiten ditut. Nik kaleko antzerkia probatua nuen eta gustuko dut publikoarekiko elkar eragina, jendea ez da gugana etortzen gu joaten gara kalea. Hortaz, nire kabuz kaleko lanen bat egin nahi nuen. Gainera, Taun-Taunekoek erraztasunak eman dizkirate lanerako.

## Zein erantzun espero duzu?

Nire helburua da ondo pasatzea eta pasaraztea; jendeari erakustea panpinak ez direla ume-

Iñaki Matak bi pertsonaia antzeztuko ditu *Barreras* lanean.

GOIENKARIA

endako bakarrik, beste kode bat dagoela, beste sormen mota bat. Gainera, Bergarako txotxongilo mostra ez da ikuskizun itxi bat, batean eta bestean antzerki lanak egin ahala sortzen eta borobiltzen joaten den ikuskizuna baizik.

## Zein dira antzerkigintzaren barrerak?

Kontsumo gizartean bizi gara eta artistok erakutsi egin behar dugu nola gizakiok sortzaileak garen berez. Frogatu behar hori da mugarik handiena.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**  
BERGARA / Irizar 2  
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
T: 943 79 98 86  
F: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**  
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
T: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**  
BERGARA / Artekale 1  
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
T/F: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
T: 943 71 25 49  
F: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**  
BERGARA / Matxiategi 36  
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**  
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
T: 943 71 21 12  
F: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**  
BERGARA / Zurradero 4  
T: 943 76 53 53

### ASEGURUAK GOIENA ASEGURUAK

ARRASATE / Antso Abarka 6  
T: 943 79 59 81  
F: 943 79 39 18

BERGARA / Zurradero 2  
T: 943 76 97 65  
F: 943 76 40 37  
goiena@goienaaseguruak.com

### EKONOMISTAK

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**  
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behe  
T: 943 533 888  
F: 943 533 865  
uribe.arrobi@euskalnet.net

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**  
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.  
T: 943 79 51 25  
F: 943 71 19 85  
URIBESALGO@telefonica.net

### GESTORIAK

**EGUREN**  
BERGARA / Irala 3  
T: 943 76 21 65

### PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**  
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma  
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Saltzeko presarekin. Deitu 659 64 67 38 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Bi logela eta ganbara. Berritua. Jantzia. 180.000 euro. 605 73 37 39.

**LuzSaint-Sauveurren** etxebizitza salgai (Frantziako Pirinioak). 670 49 84 28 edo 649 03 52 95.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza erdigunean. Hiru logela eta bi bainugela. Garaje itxia eta ganbara. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. 680 44 95 55

## 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolu auzoan. 130 metro koadro. Hiru logela. Eguzkitsua. 661 10 29 66 edo 628 07 53 99.

**Oñati.** Kurtzebidetxan estrena gabeko etxebizitza ematen da errentan. 943 78 30 56.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Zigarrola auzoan edo inguruan. Bi edo hiru logelakoa. 676 88 30 56.

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 650 90 98 99.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartu nahi dugu. Bikote bat gara. 688 68 77 80.

**Eskoriatza.** Etxebizitza hartuko nuke errentan azarotik aurrera. Deitu 610 89 76 64 edo 665 30 70 94 zenbakietara.

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Ferrerrias kalean. 666 75 73 21.

**Arrasate.** Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean, unibertsitate 5 minutura. Sukaldea guztiz hornituta, logelak eta sala handiak, bi bainugela, pisu eguzkitsua, wi-fi. Deitu 699 28 99 06 edo 678 76 28 22 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Mutil batek logela hartuko luke errentan. 645 72 25 24.

**Bergara.** Gela bat ematen da errentan Bolu, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 670 85 86 68.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean 670 40 74 53 edo 696 02 68 30 telefono zenbakietara.

## 2/ GARAJEAK

## 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai Ibargarai kalean. 605 77 57 33.

## 204. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Garajea errentan hartu edo erosiko genuke Aretxabaletako Belorrieta San Miguel inguruan. 656 72 38 41.

**Aretxabaleta.** Garajea hartuko nuke errentan Aretxabaletako erdigunean. 662 16 22 22.

## 3/ LOKALAK

## 301. SALDU

**Oñati.** 48 metro koadroko etxabe-komertziala ematen da errentan, erosteko aukerarekin. Guztiz eraberritua. Negoziorako egokia. Deitu 608 96 92 75 telefono zenbakira.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Aramaioiko** lagun talde batek aerobik irakaslea behar du. Deitu 665 72 62 83 zenbakira.

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 688 80 27 21 telefonora.

## ARETXABAETA

## Zerbitzaria behar da

647 05 42 75

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEA OSATU  
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA

401. ESKAINTZAK  
402. ESKAERA  
403. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
604. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

## 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldatetarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## BERGARA

**Neska gaztea behar da barrarako. Esperientzia eta paperak beharrezkoak. 665 70 17 74**

## BERGARA

**Zerbitzari euskalduna behar da 943 76 70 11**

**Debagoiena.** Neska euskalduna behar da garbiketa lanetarako. Deitu 687 78 58 47 telefonora.

## 202. ESKAERA

**Aretxabaleta.** Eraikuntzan, zerbitzari eta dendari lanetan espe-

## MONDRAGON LINGUA

**INGELESEKO IRAKASLEAK BEHAR DIRA ARRASATERAKO. BIDALI ZURE CURRICULUM VITAE-A ONDORRENGO HELBIDERA:**

MONDRAGON LINGUA  
ARABA IBILBIDEA 4, 20500 ARRASATE  
edo [aetxenausia@mondragonlingua.com](mailto:aetxenausia@mondragonlingua.com)  
helbide elektronikora

rientziaduna lanerako gertu. 42 urte ditut. 943 79 22 79 edo 607 23 35 11.

**Aretxabaleta.** Zerbitzari lanetan ibilitako gizonetako euskalduna lan egiteko gertu. Debagoieneko edozein herritan, autoa daukat-eta. Deitu 943 79 22 79 edo 945 44 51 11 zenbakietara.

**Arrasate** edo Debagoieneko. Esperientziadun zerbitzaria sukaldetan lan egiteko gertu. Baita margoketa, garbiketa edo bestelako lanak egiteko ere. Deitu 943 05 79 13 zenbakira.

**Arrasate.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu, etxeko lanak egin edo nagusiak gauzez zaintzeko. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

**Arrasate.** Emakumea nagusiak zaindu edo beste edozein lan egiteko gertu. 943 08 20 70.

**Arrasate.** Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 630 21 93 49.

**Arrasate.** Emakume euskalduna edozein lan egiteko gertu. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Neska arrasatear, gazte eta euskalduna umeak zaindu, zaharrak zaindu edota etxeko garbiketako prest. Erizaintzako zaintza osagarriko ikasketak egin ditut. 618 41 24 79 edo 943 08 14 25.

**Arrasaten** edo Debagoieneko zerbitzari, garbiketako egiten edo nagusiak zaindu lan egiteko nuke. Deitu 610 82 02 17 telefono zenbakira.

**Bergara** edo Antzuola. Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Ana. 662 07 56 10.

**Bergara.** Emakume arduratsua garbikasun lanak egiteko gertu. Esperientzia daukat eta bergararra naiz. 686 11 24 66.

**Bergara.** Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Haurrak zaintzeko diplomaduna. 688 63 81 56.

**Bergara.** Esperientzia handiko andrea etxeko orduko garbiketako gertu. 943 76 08 76 edo 616 78 35 57.

**Bergara.** Esperientziadun pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 650 17 74 87.

**Bergara.** Haurren eta hiru garren adineko zaintza lanak zein garbiketa lanak egiteko gertu nago. Esperientziaduna eta arduratsua. 14:00etatik aurrera. Gladis Cantero. 618 12 07 44.

**Bergara.** Neska euskalduna gertu arratsalde umeak zaintzeko. 660 06 48 47.

**Debagoiena.** 28 urteko mutila edozein lan egiteko gertu. Hiru urte darama Bergaran bizi izaten. Christian. 662 08 22 03.

**Debagoiena.** Emakumea garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko gertu. Etxean bertan biziko litzateke. 663 65 56 34.

**Debagoiena.** Emakumea gertu arratsalde edo gauzez lan egiteko. 943 79 96 24 edo 680 74 67 80.

**Debagoiena.** Emakumea goizetan lan egiteko gertu. Edozein

lan mota: garbitasunak edo zaintza. 699 09 46 26.

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila prest aste bukaeratan ostalaritzan lan egiteko. 606 25 03 12.

**Debagoiena.** Etxeko edozein brikolaje edo konponketa egiten ditut. Merke. 686 99 23 94.

**Debagoiena.** Gizona gertu peoi lanak egiteko. 943 79 96 24 edo 680 74 67 80.

**Debagoiena.** Igeltsero edo margolari lanak egingo nituzke. 608 57 37 38.

**Debagoiena.** Neska boliviarrak gertu garbiketa lanak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. Orduka, egun osoz edo bertan lo egiteko gertu. Paperak ditut. 636 91 93 81.

**Debagoiena.** Neska gaztea gertu garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko. 679 23 10 44.

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Garbiketa lanak egin edo adinekoak zainduko nituzke. 663 65 56 34.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Bergara.** DBHko 3. mailako eskola partikularrak jasoko nituzke. Kurso guztirako. 18:00etatik aurrera deitu. 943 76 16 42.

**Bergara.** DBHko 3. mailako ingelesezko eskola partikularrak jasoko nituzke. 616 59 20 18.

**Eraikuntzen** mantentze-lan eta konponketetarako eskolak hartuko nituzke. 645 71 23 69.

**Oñati.** Batxilergoko eskola partikularrak emango dituen pertsona behar da. Idatzi [mirna@euskalnet.net](mailto:mirna@euskalnet.net) helbidera edo deitu. 652 75 60 52.

## 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasleak batxilergora arteko eskola partikularrak emango lituzke. 669 20 63 21.

**Bergara.** Heziketa Berezian diplomadunak eskola partikularrak ematen ditu Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetan. 645 72 01 50.

**Bergara.** Ingeles irakasle ezaguna berriro eskolak emateko gertu. Eskola laguntza edo azterketak gertatzeko. Bolu. 617 12 56 29.

**Bergara.** Ingelesean lizentziadunak ingelesezko eskolak ematen ditu. 616 12 56 29.

**Bergara.** Neska arduratsua DBHko zientzia eskola partikularrak emateko gertu. 675 70 17 63.

**Bergara.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko gertu. 943 76 08 76 edo 680 17 33 61.

**Bergara.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Arratsalde deitu. 615 76 29 25.

**Eskoriatza.** Eskola partikularrak emateko prest. LH eta DBHko 1. eta 2. mailak. 679 86 74 23.

## 503. BESTELAKOAK

**Irakaslea** behar da DBH eta batxilergoko ikasleei eskolak emateko. Arratsalde. Deitu 652 75 60 52 zenbakira.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Arrasate.** Yamaha Majestic motorra salgai. 125 cc. 2006koa. 1.100 km. Beti garajejan. 1.600 euro. 943 77 12 43.

**Seat Alhambra** monobolumena salgai. 1.900 cc. 115 ZP. 6 abiadura. Goi mailako ekipamendua. Oso egogera oñean. 128.000 km. 12.500 euro. Deitu 645 73 97 69 zenbakira.

**Yamaha SR 250 cc** motorra salgai. 800 euro. 645 73 97 69.

## 7/ ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Katua** oparitzen da, arazo pertsonalengatik ezin dugulako zaindu. 943 77 08 19 edo 687 75 28 41.

**Txakurra** eman nahi dut, ezin dudalako zaindu. Kanela kolorekoa eta txikia. 943 79 82 43.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Bergara.** Labe eramangarri berri-berria daukat salgai. Josune. 634 45 30 97.

**Brain Training** berri-berria salgai. Nintendo DSrako. Deitu 617 13 17 51 telefonora.

**Egurra.** Iaz irailaren (2007) botatuko su-egurra salgai. Interesatuok deitu arratsaldetik aurrera. Oskar. 650 86 76 19.

**Mendiko bizikleta** salgai. 699 euro. Berria. Estreinatzen. Bizikleta azokan zegoena. Suspentsio bikoitza (Rock-Shox), Shimano XT, disko hidraulikoak. Magura. 652 73 83 25.

**Ordenagailua.** Bigarren eskuko ordenagailua salgai. Hiru urte ditu. 150 euro. 943 08 18 13.

**Plantak** salgai. Gama markakoak, ilerakoak. Prezio oñean. Oso gutxi erabilita daude. Egoera oñean. 645 72 58 41.

**Samsun telebista.** 29 hazbeteko Samsun telebista berria saltzen dut. Garantiarekin. Prezio oñean. 618 17 30 87.

**Teleskopioa** salgai. Astrolon etxekoa. 402 potentzia. 656 78 64 64.

**Tronpeta** salduko nuke. Egoera oñean dago. 638 89 78 76.

## 802. EROSI

**Orturako** lur zati bat erosteko interesa daukat Aretxabaleta edo Arrasate inguruan. 400-500 metro koadro. 636 68 56 06.

## 803. EMAN

**Lentillak.** Erabili eta botatzekoak diren 2,5 eta 2,75 dioptriako lentillak ditut emateko. Itziar. 945 30 42 09.

## 806. GALDU

**Erlouja.** Irailaren 29an, Uarkape inguruan, itsuendako eskumurreko erlouja galdu nuen. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Itziar. 615 70 55 74.

**Aretxabaleta.** Plazara markako poltsa galdu dut. Laranja kolorekoa. Barruan Nintendo DS dauka. 696 46 03 93.

**Jaka beltza** hartu zuen norbaitek Iluntz tabernan uztailearen 12an, zapatua, eta antzeko bat utzi zuen bertan. Aldaketa egiteko, deitu mesedez: 666 12 52 80 edo 943 79 98 07

## 9/ HARREMANAK

## 903. DEIAK

**Antzerkia** gustuko baduzu, animazaitze Elorrioko Arrapaladan taldean parte hartzea. Idatzi mezu bat [arrapaladan@hotmail.com](mailto:arrapaladan@hotmail.com) helbidera edo deitu telefonoz 635 74 49 71 zenbakira.

## 904. BESTELAKOAK

**Gasteizera joan-etorria.** Eguenero 09:00etarako Gasteizera joan eta 17:00etan bueltatzen naiz, autoa txandaka eraman edo gastuak konpartituko nituzke. 654 48 15 33.

**Leioara joan-etorria.** Leioako unibertsitateko joan beharra dut ia eguneroko. 09:00etarako joan eta 14:00etan itzuli. Beste lagun batzuekin autoa txandaka eraman edo gastuak konpartitu nahiko nituzke. 657 79 07 39.

## ETXE AGENTZIAK

Jar ezazu hemen zure publikitateak  
943 25 05 05 [publi@goiena.com](mailto:publi@goiena.com)



**DEBA GARAIA**  
INMOBILIARIA

Telefono Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA

- Artekale, 89 m<sup>2</sup>, ondo.
- Arrizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Artekale, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m<sup>2</sup>, ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, ondo.
- Aranerrika, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- San Lorenzo, 81 m<sup>2</sup>, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Iñazar Pasealekua 89 m<sup>2</sup>, ia berria.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>, berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m<sup>2</sup>, berritua. Oso ondo.



**Amaia Gartzia** eta **Riki Marrero** aretxabaletarrak uda honetan ezkondu dira. Orain ezkon bidaian Tailandiara doaz. Zorionak koadrilakoen partetik. "Edarto pasau geuen! Hori bai, datoren urtien barrira ospatukou e!".



**Gabriel Hernandez** eta **Maria Rosa Carmona** arrasatearrak orain dela 25 urte ezkondu ziren. Domeka honetan ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak familiakoekin. Zorionak familiako guztien partetik, bikote!



**Mariasun Narbaiza** bergararra eta **Juan Tomas Zabalo** antzuolarra ezkondu zirela urriaren 8an, eguaztenean, beteko dira 25 urte. Zilarrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak eta patxo handi bana familiakoekin partetik.

## hildakoak


- **M<sup>a</sup> Teresa Aguirrezabal Aranzabal.** Bergaran, uztailaren 25ean, 63 urte.
- **Maria Agirrezabal Belaustegi.** Oñatin, irailaren 18an. 97 urte.
- **Modesto Alcalde Morales.** Bergaran, irailaren 18an. 83 urte.
- **Manolo Davila Murillo.** Aretxabaletan, irailaren 19an. 61 urte.
- **Josefina Usatorre Pagoaga.** Bergaran, irailaren 19an.
- **Valentin Jauregi Loiti.** Arrasaten, irailaren 22an. 83 urte.
- **Begoña Martinez de Lahidalga Lopez de Ipiña.** Aretxabaletan, irailaren 23an. 66 urte.
- **Manuel Alberdi Makazaga.** Antzuolan, irailaren 23an. 79 urte.
- **Benito Aragones Aragones.** Aretxabaletan, irailaren 21ean. 63 urte.
- **Rafael Zeziaga Kortazar.** Arrasaten, irailaren 23an. 73 urte.
- **Maria Villar Igartua.** Arrasaten, irailaren 24an. 89 urte.
- **Carlos Lazkano Goitia.** Arrasaten, irailaren 24an. 53 urte.
- **Angela Martinez Arrese.** Bergaran, irailaren 25ean. 99 urte.
- **Asuncion Ruiz Salazar.** Eskoriatzan, irailaren 25ean. 88 urte.
- **Juan Antonio Garai Garai.** Aretxabaletan, irailaren 26an. 59 urte.
- **Marisa Uriarte Rubiano.** Aretxabaletan, irailaren 26an. 55 urte.
- **Felipe Arrizabalaga Garro.** Arrasaten, irailaren 28an. 75 urte.
- **Justa Artolazabal Txintxurreta.** Bergaran, irailaren 27an. 95 urte.
- **Domingo Alcoba Muriel.** Arrasaten, irailaren 29an. 78 urte.
- **Jesus Varela Silva.** Arrasaten, irailaren 29an. 72 urte.
- **Mari Cruz Aiausti Zugasti.** Oñatin, irailaren 30ean. 91 urte.
- **Pilar Olabarria Larrañaga.** Bergaran, irailaren 30ean. 83 urte.
- **Jokin Intza Garmendia.** Bergaran, urriaren 1ean. 84 urte.

## joan zaigu

### Jokin Intza Garmendia

*El Gordo*

Jeltzale historikoa



**J**okin Intza (Bergara, 1924) jeltzale historikoa Donostian hil zen eguaztenean, urriaren 1ean, 84 urte zituela.

EAJko kidea zen eta, Espainiako Gerra (1936-1939) eta gero, Venezuelara iheslari joan zenean -aurretik Frantziara joan zen- erresistentziarako lanean ibili zen; *El Gordo* ezizena zuen Intzak Venezuelan. Venezuelan, Radio Euskadi sortu eta bultzatu zuen.

Kolaboratzailea zen Jokin Intza Sabino Arana Fundazioan eta duela bi urte bere bizitza jasotzen duen liburua kaleratu zuten. *Hombre libre sin patria libre. Memorias de la resistencia* (1936-1980).

Patxi Azkargorta bergararrak, Intzaren betiko lagunak "gizon zorrotz" moduan gogoratzen du Intza "aginduak soldaduska-ko goi karguen pare ematen zizkiela", esan zuen liburua aurkezpenean.

URTEURRENA

### Dunixe Zuazabeitia Errasti

Aretxabaletan hil zen 2007ko urriaren 3an, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 5ean, 11:50ean Aretxabaletako parrokiaren izango da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.

4. URTEURRENA

### Karmelo Garaitonandia Kortabarria

Aramaion hil zen 2004ko irailaren 29an, 65 urte zituela.

Laugarren urteurreneko meza domekan, urriaren 5ean, 11:00etan Aramaio Uribarri auzoko San Esteban elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

### Maria Teresa Aguirrezabal Aranzabal

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 25ean, 65 urte zituela.

Hileta-elizkizunera joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerririk asko sendikoen izenean.

Haren arimaren aldeko meza domekan, urriaren 5ean, 11:00etan Labegarrietako San Jose elizan izango da.



Bergaran, 2008ko urriaren 3an.

ESKER ONA

### Rosario Errasti Azurmendi

Arrasaten hil zen 2008ko irailaren 16an, 81 urte zituela.

*Eskerririk asko ama eman diguzun guztiagatik: izateko era sentitzeko era komunikatzeko era gozatzeko era maitatzeko era.*



Eskerririk asko guztiei seme-alaben izenean. Arrasaten, 2008ko urriaren 5an.

ESKER ONA

### Maria Villar Igartua

Pedro Arriola Arabaolazaren alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko irailaren 24an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerririk asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko urriaren 3an.

ESKER ONA

### Justa Artolazabal Txintxurreta

Bergaran hil zen 2008ko irailaren 27an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkigutenei, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko urriaren 3an.

OROIGARRIA

### Justa Artolazabal Txintxurreta

Bergaran hil zen 2008ko irailaren 27an, 95 urte zituela.

*Zurekin igarotako uneak  
Egin dittugu gure babes  
Inoiz ahaztuko ez zaitugula  
Gutziz ziur egon zaitetz  
Gero arte amona, agurrik ez!*



Etxekoak.  
Bergaran, 2008ko urriaren 3an.

Babeslea:

# Euskalduna


**Hileta Zerbitzuak**

Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net

**bila-bila 7**




**hitz gezidunak**


	Zapata kon- pontzaile Dozena bat	Beharra Ehun bider hamar	Gipuzkoako herria Ezin bu- katuzko
	* Irudiko zuhaitza Lasaitu		
Soinaren atala Tuberkulu mota	Jaurtigaia Setak		Nafarroako udalerrria
		A biritan Kontsonan- te bustia	
Nafarroako udalerrria Hogei ken bat		Gironako ibaia Nire	
Hizkuntza zahar Aintzira		Zibaren erdian Kontso- nantea	
		Adi!	

GOIENKARIA

**soluzioak**



Jeroglifikoak: Orein bat.



4	9	7	8	2	5	1	9	3
1	5	6	7	4	3	6	2	8
5	7	4	9	1	6	3	2	8
4	5	6	3	8	2	1	7	9
1	9	2	7	6	5	8	4	3
7	8	3	1	4	9	2	6	5
6	1	7	8	5	4	9	3	2
2	4	8	6	9	3	5	1	7
9	3	5	2	7	1	4	8	6

A	T	B	X	M	O	L	Z	E
V	A	D	O	R	R	A	D	A
I	B	A	I	Z	A	B	A	L
E	O	T	S	B	Z	T	L	I
T	M	U	R	U	M	E	A	P
X	U	K	N	E	L	A	G	O
O	S	T	U	G	Z	B	E	U
N	B	I	D	A	S	O	A	I
A	T	B	X	M	O	L	Z	E

**sudokua**

	3			1				
2			6	9	3			
6		7						
	8		1					6
	9							4
	5				2			7
						3		8
			4	3	7			1
			5					9

**hieroglifoa**

Zer ehizatu zenuen?



**hizki salda**

Euskal Herriko 6 ibai

Z	A	D	O	R	R	A	D	A
L	O	I	T	U	F	N	I	P
I	B	A	I	Z	A	B	A	L
E	O	T	S	B	Z	T	L	I
T	M	U	R	U	M	E	A	P
X	U	K	N	E	L	A	G	O
O	S	T	U	G	Z	B	E	U
N	B	I	D	A	S	O	A	I
A	T	B	X	M	O	L	Z	E

**bono fotoa**



**Zela du izena Aramaioko auzo honek?**

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

**ZOZKETA**

**Euskal  
Selekzioaren  
zira**



GOIENKARIAK  
zozketatuko du  
asmatzaileen artean!



ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK.....  
TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Arrasateko Karmen Osinalderendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena:  
Azkoitia, Bergara, Oñati, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga





# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

**% 25 merkeago**

**A+** Saillapen energetikoa

FAGOR

CFS-112 (850 X 1125 X 600) 451 € - 75.317 pta  
CFS-126 (850 X 1260 X 600) 485 € - 80.995 pta  
CFS-156 (850 X 1560 X 600) 530 € - 88.510 pta

**BERMEA 2 URTE**

**A** Saillapen energetikoa

185 X 60 X 60 mm

**HOZKAILUA AFC-185**

**405 €** 67.635 pta **aspes**

**BERMEA 2 URTE**

**A+** Saillapen energetikoa

1000b/min 8 Kg

**GARBIGAILUA F-2810**

**430 €** 71.810 pta **FAGOR**

**BERMEA 2 URTE**

**A+** Saillapen energetikoa

1000 b/min 6 Kg

**GARBIGAILUA 3F-1610**

**330 €** 55.110 pta **FAGOR**

**BERMEA 2 URTE**

**A+** Saillapen energetikoa

1200b/min 7 Kg

**GARBIGAILUA ALF-1127**

**365 €** 60.955 pta **aspes**



**UDAZKENEKO  
ESKAITZA  
BEREZIA**

**%50-eko  
DESKONTUAK!!**

3 fokoko indukzioa IF - 3 S/X edo 4 fokoko indukzioa IF - 4 S/X

**Lehen: 779 €**

**Orain: 575 €**

**FAGOR**

eta gainera ontziteria hau opart

**BERMEA 2 URTE**

**A+** Saillapen energetikoa

800 b/min 5 Kg

**GARBIGAILUA ALF - 108**

**275 €** 45.925 pta **aspes**

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ >>> 70%  
A >>> 45%  
B >>> 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**  
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

## OÑATIKO INSTITUTUAN LANBIDE HEZIKETA

LANGILE ETA LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK 2008-2009

EUSKAL HERRIKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN SISTEMARI LOTUTA (KATALOGO MODULARRA)

IKASTAROAK

ORDUAK

AURREIKUSITAKO DATA

IKASTAROAK	ORDUAK	AURREIKUSITAKO DATA
<b>MEKANIZAZIOA</b>		
TORNU KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	URTARRILA
TORNO CNC PROGRAMAZIOA	50	OTSAILA
TORNO CNC MEKANIZAZIOA	50	MARTXOA
FRESATZEKO MAKINA KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	APIRILA
FRESA CNC PROGRAMAZIOA	50	MAIATZA
FRESA CNC MEKANIZAZIOA	46	EKAINA
<b>MANTENUA ETA MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOA</b>		
MANTENTZE MEKANIKOA	60	AZAROA
MANTENTZE ELEKTRIKOA	80	MARTXOA
KROKIZAZIOA	40	AZAROA
CAD 2D - AUTOCAD (EZ KATALOGATUA)	40	ABENDUA
CAD 3D - SOLID EDGE I - MOD. ETA PLANOAK (EZ KATALOGATUA)	40	URTARRILA
METROLOGIA - EGIAZTAPEN DIMENTSIONALA	40	OTSAILA
SOLDADURA ELEKTRIKOA	55	AZAROA
SOLDADURA MIG-MAG (EZ KATALOGATUA)	50	ABENDUA
SOLDADURA TIG (EZ KATALOGATUA)	50	URTARRILA
SOLDADURA OXIAZETILENIKOA (EZ KATALOGATUA)	60	OTSAILA
SEGURTASUNA FABRIKAZIO MEKANIKOKO INDUSTRIETAN	40	AZAROA
AUTOMATISMO NEUMÁTICO ETA ELEKTRONEUMATIKOA	40	OTSAILA
<b>INFORMATIKA</b>		
MS WORD (EZ KATALOGATUA)	16	AZAROA
MS EXCEL (EZ KATALOGATUA)	16	AZAROA
INTERNETA ETA KORREOA (EZ KATALOGATUA)	16	AZAROA
<b>EGUZKI ENERGI FOTOBOLTAIKOA ETA TERMIKOA (Ez katalogatua)</b>	40	MAIATZA

**%100**  
DIRUZ  
LAGUNDUTA

Ondo pasau jaixak!

**IZENA EMATEKO  
EPEA  
ZABALIK**

**IZENA EMATEKO:**

Oñatiko institutua  
Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan  
San Lorenzo auzoa z/g  
Tel.:943 78 21 50  
09:00-13:00 / 15:00-17:00  
www.onati.net

zuazola-larraña  
**Oñatiko b.h. institutua**



Mikel Gonzalez &gt; Realeko jokalaria

# "Realaren oinarria Gipuzkoako futbolariek osatzen duten harrobia da"

Mikel Gonzalezek ez du aurkezpenik behar. 23 urte bete berri, Realean ezinbesteko pieza da

Juanma Lillorentzat. Ez da harritzekoa, hainbat astelehenetan kirol kronikek esan baitute arra-

satearra izan dela taldeko onena. 2010ean amaitzen zaio kontratua talde txuri-urdinarekin,

baina Gonzalezek Donostian jarraitzeko asmoa du; futbolaren elitera itzuliz bada, hobeto.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Lana, umiltasuna eta halako kasuetan beharrezko izaten den zorrea izan dira Mikel Gonzalezek (Arrasate, 1985) Realaren lehen taldean amaitzearen arrazoi nagusiak. Baina arrasatearrak dioenez: "Behin lehen taldera igota bertan jokatzeko balio duzula erakutsi beharra dago". Eta hori ondo baino hobeto frogatu du Gonzalezek.

**Realarekin lotutako kirol ibilbidea da zurea. Noiztik zaude talde txuri-urdinean?**

11 urtera arte, futbola maite zuen edozein umeren moduan, herriko areto futbol txapelketetan jokatzeko nuen. 11 urterekin deitu zidaten Realeko probetan parte hartzeko, eta aukeratu egin ninduten. Orduetik hona Realean nago, Añorgako taldean utzita jokatuko nuen denboraldia izan ezik.

**Nola igo zinen lehen taldera?**

Denboraldi berean preferente mailan jokatzetik lehen taldearekin deialdian sartzea pasa nintzen. Orduan Realak preferente mailan jarduteko EHU taldea sortu zuen, eta han hasi nuen denboraldia. Gero, Sanserekin hasi nintzen entrenatzen eta urte berean lehen taldearekin joan nintzen partidu batzuetara, nahiz eta jokatzeko aukerarik ez nuen izan.

**2005eko irailaren 17a, zure debutaren eguna. Zein oroitzen duzue gortetzen duzue?**

Ba, egia esan, ez zen amestutako debuta izan, 5-2 galdu genuen eta Mallorkaren aurka.

**2006-2007 denboraldian taldean zure lekua egin, baina zer eta Bigarren Mailara jaitsi. Nola oroitzen duzue urte hura?**

Oso urte txarra izan zen. Hasieran Bakero izan genuen entrenatzaile, gero Lotina; eta 14. jardunaldia arte ez genuen partida bakar bat irabazi.

Oso zaila da mailaz jaistearren arrazoiak zehaztea, faktore asko daude eta jokoan. Azken urteetan taldea, txapelkunorde izan zen denboraldia izan ezik, beheko postuetan egoteko dinamikan zegoen sartuta, eta horrek eragina izan zuela uste dut.

**Zer sentitu zenuen zure kirol lagunartea sortu zenean?**

Ilusio handia sentitu nuen Gontxa Taldie [Gontxa da haren ezizena] jaio zenean. Lagunez gain, beste jende batek inolako interesik gabe jarraitzen zaituela ikustea oso polita da.



JOKIN BEREZIARTUA

## PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Batxilergoa. **Zaletasunak:** Musika, lagunekin egotea eta asteleheneroko musaldia. **Gorrotatzen duzuna:** Faltsukeria. **Gomendatzeko moduko film bat:** *Braveheart*. **Liburu bat:** *La confesión radical*, Hertzainak tal-

dearena. **Musika talde bat:** Never Surrender. **Futbolari onena orain:** Leo Messi. **Ikusi duzun futbolari onena:** Zidane. **Futbol zelai bat:** Anfield Road. **Defendatzea egokitu zaizun aurrelari zailena:** Leo Messi. **Gustura jokatuko zenukeen taldea:** Liverpool.

**Egindako lanaren errekonozimendua, baina baita ospea ere. Nola eramatzen du Mikel Gonzalezek famatu izatea?**

Nahi edo ez, pertsona publiko bihurtzen zara, denok dakigut eta nola dagoen futbola gaur egungo gizartean. Ni hemengoa naiz eta lagunek badakite nolakoa naizen; ez dut uste pertsona moduan aldatu naizenik.

Bestalde, jendea sinadura eske datorrenean lotsatu egiten naiz. Errekonozimendua gustuko dut, nola ez, baina lotsatia naiz. Pertsona publikoa naizenez gero, onartu beharreko ondorioa da.

**Futbolaren egoera aipatu duzu. Zehaztu diezaguzu, bada, egoera hori nolakoa den, zure ustez.**

Futbolekin sekulako dirutza mugitzen da, baina taldeak helburua betetzen ez badu, eta hori da gure kasua, diru sarrerak desagertu egiten dira eta ekonomikoki sekulako kolpea da klubarentzat. Alde horretatik, presio oso handia da.

**Nolakoa zaleak ditu Realak?**

Denetarik dago, baina kantuan izan behar da zaleek urte gogorak bizi izan dituztela, eta ezin dugula askorik eskatu; pazientzia eta konfiantza, akaso. Orokorrean, baina, gustura nago jarraitzaileekin.

**Noraino igartzen da Anoetako atletismo pistaren hoztasuna?**

Egia da nabaritzen dela, bereziki beste futbol zelaietako jarraitzaileen berotasuna ikusten duzunean. Hala ere, Bigarren Mailan dagoen talde batek 20.000 zale erakartzea oso esanguratsua da.

**Zein da Gipuzkoako eta Debagoieneko taldeek Realean daukaten pisua?**

Real harrobiko talde bat da, ez bairik gabe. Harrobia da oinarria, eta harrobi hau ezerezean geratuko litzateke gure herrieko taldeetatik edango ez balu. Azken finean, herri mailan jokatzen duen jokalariek badaki bere lana ondo egiten badu Realean amai dezakeela, ni neuk amaitu dudana moduan.

**Jarraitzen dituzu gure ibarrekoko taldeak? Zein maila dago?**

Mondra jarraitzen dut batez ere, lagun asko baititut bertan jokatzen. Talde ona dago eta Arrasate moduko herri batek bere futbol taldea maila handiagoan egotea merezi du.

Berrikuntza nagusia da astegunetan iluntzero emango duten magazine erako saioa

Egun bakoitzean gai bat landuko dute: elkarteak, osasuna, nekazaritza...

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE  
Astelehenean hasiko da Goiena Telebistaren denboraldi berria. eta gauetako magazinea izango da berrikuntzarik nabarmenena. Magazinea astegunetan, egunero, emango dute, 19:45ean. Ondoren, errepikapena egingo dute 21:00etan eta 23:00etan.

Iban Arantzabal Goienako ikus-entzunezkoen zuzendariak hauxe esan digu: "Magazinearen aldeko apustua egin dugu eta formatu berri honekin albisterik garrantzitsuenei leku handiagoa emango diegu. Debagoieneko jendea platora ekarrira, albisteak sakonago lantzeko aukera izango da. Elkarrizketatua eta elkarrizketatzailea bertatik bertara egongo dira eta ikusleak etxetik ikusi ahal izango du hori".

Larraitx Zeberio, orain arteko gaueko albistegietako aurkezlea, izango da magazine berriko gidaria. Eguneroko izango da debagoiendarren bat telebistako platoon eta solasaldi txiki bat egingo diote gerturatzen denari. "Solaldian ez dira politikariak bakarrik agertuko edo tertulietan erraztasunez mintzatzen direnak. Elkarrizketa horretan, esaterako, astelehenean izango ditugu Maritxu Kajoi Komisiñoko German Gallastegi eta Monte tabernako Juan Karlos Davila", esan digu Iban Arantzabalek.

#### EGUNEAN GAI BAT

Egun bakoitzak tarte berezi bat izango du astero-astero, gai zehatz baten gainekoa: "Astelehenean gure herrietan ezagunak diren



IRAGARPENAK Eguneroko egingo ditu eguraldi iragarpenak Pello Zabalak Arantzazutik, Larraitx Zeberioek gidatuko duen magazinean.

IBAN ARANTZABAL

#### TELEBISTA > GOITB

## Astelehenean denboraldi berria hasiko da Goiena Telebistan

eta ez diren elkarteetako ordezkariak izango ditugu platoon; martitzenetan medikuak, pediatrak...; eguaztenetan baserritarak, azokako postuetako jendea...; egunetan gure herrietako alkateak pasatuko dira platotik. Uste dugu hiritarrek gustura entzungo dituztela herrietako alkateek esandakoak. Gainera, nahi izanez gero, telefonoz ere sartu ahal izango dira zuzen-zuzenean; telefona erabilia, SMS bidez edo baita *skype* bidez ere", azaldu du Iban Arantzabalek.

**PRENTSA DIGITALA ETA EGURALDIA**  
Bestalde, magazinean, eguneroko egingo dute prentsa digitalaren errebasoa. Iban Arantzabalen esanetan, "horrek emango digu hurrengo egunean notizia izango diren gainera pista bat. Euskal Herriko zein nazioarteko gaiak jorratuko ditugu tarte horretan. Oraingo egunetan, esaterako, krisiaren gainean dauden webguneak erakutsiko ditugu".

Eguneroko jardungo duen beste bat Pello Zabala da. Eguraldiari dagokionez astea nola datorren

kontatuko du Zabalak Arantzazutik. Eguneroko egingo dute konexioa harekin *webcam* bitartez eta herritarrek ere galdetu ahal izango dute ea zein eguraldi egin behar duen.

"Pentsatu genuen gure ibarrean Pello Zabalen mailako eguraldi iragarle bat egotea probetxugarria zela eta hari egin genion gurekin jarduteko proposamena. Gainera, Debagoienetik ibarrerako eguraldiaren gaineko iragarpena egitea interesgarria da", dio Arantzabalek.

Zozketak, zinema proposamenak, erakusketen berri, eguneko albistegia... eta egunak berak ekarritako informazioak ere lekua izango du gaueko magazinean.

Magazinea berrikuntza izango den arren, aurreko denboraldiko saioek ere izango dute tarte Goiena Telebistako programazioan. *Ilunpean*, *Berbaire*, *Harmailatik* eta halako saioak emango dituzte eta eguerdiko albiste saioa ere aurreko denboraldian moduan egingo dute.

#### EGURALDIA

### Pello Zabalak, eguraldi iragarpena

Arantzazuko frantziskotar eta eguraldi kontuetan aditu Pello Zabalak eguraldi iragarpena egingo du eguneroko Arantzazutik *webcam* bidez GOITBko magazinean. Euskadi Irratirako eta Radio Euskadirako hainbat urtez eguraldi iragarpenak egiten ibili ostean, utzi egin zuen. "Irratian aldiro iragarpenak egiteak lotura handia eskatzen zuen". Gainera, iragarpena zehatzagoa izango da, Debagoienetik bertatik egin delako Debagoieneko. Pello Zabalak dio hori desafioa dela: "Lehen, Euskal Herri osorako egiten nuen iragarpena eta oso orokorra zen. Orain, aldiz, Debagoieneko iragarpena egingo dut, eta, askoz zehatzagoa izango denez, hori erronka bat izango dela uste dut".

#### MUSIKA

### Danbakako taldeak astero-astero

Danbako musika lehiaketaren beste edizio bat abian dela-eta, GOITBko lankideak zuzeneko kontzertu horiek grabatzera joango dira eta astero-astero ikusi ahal izango ditugu telebistan. *Musikantoi* saioak atsedean hartuko du eta Danbako izango da ordezkaria. Danbako Maider Arregik aurkeztuko du, bai zuzenean eta baita telebistan ere. Gainera, astero-astero Danbako saioak bere tarte Goienako magazinean ere, bai kontzertuko zatiren batzuk erakutsiz, baita elkarrizketaren batekin ere. Ordu erdiko saioak egingo dira, dena den, talde bakoitzarekin, eta horrek esan gura du astero-astero askotariko musikaz zipriztinduko dela GOITB.

#### SAIOAK

### Denboraldi berrian lehengo saioak berriz

Aurreko denboraldiko saioak mantendu egingo dira oraingoan ere. Martitzenetan emango duten *Ilunpean* ikusle asko dituen saioa da eta Euskal Herriko zazpi telebista katetan ematen dute Tokiko telebisten elkartearen bidez. 170 gonbidatutik gora izan ditu eta Iker Barandiaran da aurkezlea.

*Berbaire* saioan lehengo aurpegiak eta berriak ikusiko ditugu. Egunean dagoen eztabaidagaiak galdetuko die hiru edo lau gonbidatari Julen Iriondok egunetan, ordubeteko saioan.

*Harmailatik* kirol saioan Xabi Urtzelaik emango du ibarreko kirol albisteen berri: saskibaloia, futbola, bestelako kirolak... Debagoieneko kirolaz egingo den telebista saiorik osatuena izango da.

### Iban Arantzabal > Goienako ikus-entzunezkoen zuzendaria "Plato berria gertatzeko argitzaile eta diseinugile bat izan dugu lagun"

I.A. > ARRASATE

**Gertu daude Goiena Telebistan denboraldi berriari ekiteko. Horretarako, berrikuntzak egin dituzte, bai teknikoak eta bai itxurari dagozkionak.**

**Zein berrikuntzarekin dator GOITB denboraldi berrian?**

Nobedade nagusia magazinea izango da. Gaintzean, lehengo saioekin jarraituko dugu, betiere berrikuntzak sartzen saiatuz.

**Inbertsio esanguratsuak egin dituzte telebistan, ezta?**

Bai, 2008-2009 ikasturtean 262.000 euroko inbertsioa egingo dugu materialetan eta azpiegituran. Helburua da telebista guztia digitala izatea, kalitatean irabaztea, eta lana modu optimizatuan egitea. Horrela, digital araroko gertu egongo da GOITB.

**Teknikoki ez ezik, itxura aldatuta ere etorriko da GOITB.**

Bai, plato berri-berria ikusiko da magazinean. Argitzaile eta diseinugile bat izan dugu lagun. Jabi Ullak gidatu du zeregin hori eta nazioartean lanean diharduen lagun horrekin asko ikasi dugu. Argitatzear gain, planoetarako ideia berriak eman dizkigu. Monika Montero, Oihane Agirre eta Jabi Ulla ibili dira lan horretan. Magazinearen grafismoa Monika Monterorena da.

## berriak

> 'ERREPORTAJEA'  
**Arrasateko Udal Azokan izango da Julen Iriondo**

Arrasateko Udal Azoka izen eta sona handiko gunea izan da, bai arrasatearrentzat, eta baita kanpokoentzat ere. Hala ere, denbora pasa ahala, eta beste saltoki batzuk irekitzen joan diren heinean, Udal Azokak indarra galdu du. Egubakoitze-tan baserritarrek joaten dira euren baserrietako produktua saltzera, eta hori aprobetxatuko du Julen Iriondok erreportajea egiteko. Eguaztenean izango da, 21:45ean.

> EUSKARAZKO FILMA  
**'Kalabaza magikoa' filma eskainiko dute asteburuan GOITBn**

John Chu zuzendari txinatarren lana Goiena Telebistara iritsi da euskarazko bertsiotan. Bizitzako balioen, esfortzuen eta ahaleginaren gaineko film hori eskainiko dute asteburuan, etxeko txiki-ekien ahazteaz gain, hain zuzen ere, protagonistak denetarik bizi behar izango du berak eskatutako desioak egia bihurtzen dizkionean kalabaza magikoak.

> ARRASATE IRRATIA  
**Perretxiko kontuak, irrati librean eta Udalekoak**

Perretxikoak batzeko sasoi bete-betean gaudela kontuan hartuta, horri eutsi eta aholku, gomendio eta beste eman- go dituzte datorren astean Arrasate Irratian. Irrati libre- ak ere protagonista izango dira, Gasteizeko Hala Bedi irrati lankideekin bat egin- go dute eta irratiaren urteurre- nean. Eta bestelako arteen, martitzenean udalbatzarrak egin behar duen osoko bilku- raren jarraipena egingo dute.

> ARRASATE IRRATIA  
**Betiko opariez gainera, masajeak irrati-entzuleendako**

Irratiko lagunek euren entzu- leei antzerkirako eta 3.60 are- toko kontzertuetarako sarre- rak astero-astero oparitzeaz gainera, astelehenaz geroztik masajeak ere oparituko dizkie- te. Masajeak 25 urteko ibilbi- dea duen Jose Luis Abuin masajista profesionalak eman- dakoak. Kiromasajea, akupun- tura, kontsulta naturista, ekialdeko masajeak eta beste eskuratzeko aukera izango dute beraz, irrati-entzuleek datorren astean hasita.

'JAIK OÑATI' &gt; EGUAZTENA, 22:30

**Oñatiko jaien gaineko saioa eskainiko dute eguaztenean**

GOITBk datorren eguaztenean eskainiko du Oñatiko San Migel eta Errosaio jaien gaineko saio berezia

GOIENKARIA &gt; BERGARA

Oraingo asteburuan oñatiarrek jai giroan murgilduta jarraituko dute, San Migelen eta hiru eguneko atsedenen ostean, hemen dira eta Errosaioak. Goiena Telebis- tak, gainontzeko herrietan beza- la, Oñatiko jaietan izan diren eki- taldi, ikuskizun, kontzertu zein emanaldiekin saio berezia presta- tuko du. Ez dira ahaztuko, jakina, egun horietan Oñatin izan den eta izango den jai giroa jasotzen. Amaia Txintxurretaren eskutik ikusi ahalko dituzue Txantxikua- ren jaitsiera, nagusien danborra- da, Herri Eguna eta Errosaio Bixamona, beste batzuen artean.



OÑATIKO JAIK San Migelak eta Errosaioak, eguaztenean.

GOIENKARIA

'MAGAZINEA' &gt; EGUNERO, 19:45

**Datorren astelehenetik aurrera 'Magazinea' GOITBn egunero, 19:45ean**

GOIENKARIA &gt; BERGARA

Datorren astelehenetik hasiko dira eskaintzen Goiena Telebis- tan Magazinea. Saio hori da orain- go ikasturteko apustua. Arrasate- deko Berriak saioak agur esango du; bai orain arteko formatuan, behintzat; edozein ere, Magazi-

nea-n albistegiak tarte bat izan- go du; izan ere, saioak hiru ordu laurden iraungo du. Bertan, Deba- goieneko gaiak landuko dira, orain arte egiten zena baino modu zabalagoan. Larraitz Zeberio kazetaria izango da saioa aur- kezlea eta hainbat atal izango

ditu saioak, asteko egunaren ara- bera aldatzen joango direnak; eguneroko tarte finkoa solasaldia izango da. Bertan, gaurkotasune- ko gaiekin zerikusia duten per- tsonak izango dira elkarrizketat- uak. Bestetik, osasunak, lehen sektoreak eta ibarreko kultura zein bestelako elkarteek ere izan- go dute tarte bat. Baina hori baka- rrik ez; izan ere, denetik landu- ko da saioan; kirolak, Internet, prentsa digitala, zinema, erakus- ketak... Egunero, gainera, Pello Zabalak Debagoieneko eguraldia emango du webcam bidez, Aran- tzazutik bertatik.

## telebegi

Edu Mendibil &gt; www.goiena.net/blogak/edu

**Newmanen ahotza eta begiak**

Zapatuan, Paul Newmanen heriotzaren berri ematean, haren ahotza ekarri zuten gogora Euskadi Irratian. Ekarpenean testimoiala zen, ahotza arrotza egingo zizaielako entzule gehieni. Izan ere, aukera gutxi dago gurean filmak jatorrizko bertsiotan ikusteko. Han eta hemen antolatzen dituzten zine-klub bakar batzuk kenduta, ezer gutxi, are gutxiago telebista publikoetan, Euskal Telebistan tartean. ETB1en, gero eta film gutxiago botatzen dituzte: ez litzateke aukera bat izango jatorrizko bertsioko filmak berreskuratzea, ordu txikietan sikiera, danborradak, pilota edo *Ero eta bero* behin eta berriz errepikatu ordez?

Martitzenean, *La noche de...* saioan, Felix Linaresek tarte bat eskaini zion Newmani, jakina. Daturik sentsazionaliste- nekin Linarese jartzen dizkieten *azpi-tituluei* esker, Newman VENDEDOR DE ENCICLOPEDIAS edo RECOGEPELOTAS EN UN CAMPO DE GOLF izan zela jakin genuen. Gero, 9 al- diz (!) errepikatu zuten *Hercules* filmeko eszena bat, protagon- istetako batek *Quiero follarle ala Voy a desmayarme* esaten zuen jakiteko. Eta bukaerako zozketan, *kaja* egiteko, galdera hau: *¿De qué color eran los ojos de Paul Newman?* En fin.

## arrasate irrata

FM 107.7

**Zapatua**  
10:00 Euskadi Irratia**Domeka**  
10:00 Euskadi Irratia.

**Astelehenetik egubakoitzera**  
10:00-12:00 Igo Autobusera irratsaioa  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kirolak  
Ilunpean  
Kantaka  
Julen Iriondoren erreportajeak  
Udal Gazte Bulegoa  
Udal Sexologia Zerbitzua  
Zaharrak Berri  
Astearren errepasoa  
Zozketak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))  
Eguneroko gaien gaineko elkarrizketak  
11:55 Arrasateko albistegia, labor.  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo Autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Eguneroko Albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 3**

13:15 Emisio hasiera. 13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Ilunpean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea. 18:45 Berriak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazkiak. 20:45 Berriak. 21:15 Eltze Beroa. 21:45 Erreportajea. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 23:45 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 4**

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Marrazki bizidunak eta Kalabaza magikoa filma. 12:45 Jaiak. Aretxabaletako San Migelak. 13:15 Eltze beroa. 13:45 Erreportajea. 14:45 Ilunpean. 15:15 Marrazki bizidunak. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Erreportajea. 19:15 Berbaire. 20:15 Jaiak. Aretxabaletako San Migelak. 20:45 Erreportajea. 21:15 Ilunpean. 21:45 Musikantoi. 22:15 Erreportajea. 22:45 Ikuskizuna. 23:15 Musikantoi. 23:45 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

**Domeka, 5**

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Marrazki bizidunak. 12:45 Erreportajea. 13:15 Berbaire. 14:15 Erreportajea. 15:15 Marrazki bizidunak eta Kalabaza magikoa filma. 18:15 Jaiak. Aretxabaletako San Migelak. 18:45 Erreportajea. 19:15 Erreportajea. 19:45 Sustraietz blai. 20:15 Eltze beroa. 20:45 Erreportajea. 21:15 Ilunpean. 21:45 Musikantoi. 22:15 Erreportajea. 22:45 Jaiak. Aretxabaletako San Migelak. 23:15 Musikantoi. 23:45 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

**Astelehena, 6**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Itsasoari begira. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Mugaz kanpo. 15:45 Tipi ttapako erreportajeak. 16:15 28 Klip. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Blogtb. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Harmailatik. 22:15 Erreportajea. 23:00 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.

**Martitzena, 7**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Futbola. 13:45 Ikusten. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Harmailatik. 15:45 Solaskide. 16:15 Itsasora begira. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak: Futbola. 17:45 Tipi Ttapako erreportajea. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Harmailatik. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Ilunpean. 22:30 Mugaz kanpo. 23:00 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 8**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Ikusmira. 14:15 Gure saltsan. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Blogtb. 16:15 28 Klip. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Solaskide. 18:15 Ur eta lur. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak: Muka Muka. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Zaharrak berri. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Erreportajea. 22:30 Jaiak. Oñatiko San Migelak. 23:00 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.

**Eguena, 9**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Jaiak. Oñatiko San Migelak. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ikusmira. 15:45 Mugaz Kanpo. 16:15 Zaharrak berri. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:00 Erreportajea. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Musikantoi. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Berbaire. 22:45 Tipi ttapako erreportajea. 23:15 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.

*"Giro alaiak, jende jatorra  
eta noski jantzi dotorea"  
Datorren urtean gehiago eta hobeto!*



*Ametz  
Ederra  
Branka Express  
Txoko  
Rumba Itzala  
Bengoa  
Tamai Ostantz  
Monte Okorotegi*



# Urriak 3-9

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguzteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Jaiak



ARRASATE

### > Kale animazioa, dantzaldia, rocka eta parranda, gaur gauean Maritxu Kajoin

Maritxu Kajoi ospatuko dute gaur, egubakoitza. Egun osoan izango dira ekintzak: batzuk aipatzearen, Maritxu-ren txaranga (19:00), lore eskaintza (20:30), Jo ta Hanka eta Neguri Gorriak taldeak (00:00) eta rock kontzertua (03:00).

## Jaiak



OÑATI

### > San Migeletako hitzordu erakargarrietako bat, Herri Eguna, bihar

Herri Eguna ospatuko dute Oñatin bihar, zapatua. 10:30ean, Unibertsitate inguruan, fruta, barazki, gazta eta abere erakusketa eta lehiaketa egongo da. Sagardo-dastatzea egongo da plazan, 12:00etan, eta sari banaketa, 13:15ean.

## Kontzertua



BERGARA

### > Nazioarteko Organo Erromantikoaren Zikloa hasiko da bihar, zapatua

Bihar, Ainhoa Soraluze mezzosopranoak eta Fernando Gonzalo organojoleak egingo dute emanaldia ziklo horren barruan, San Pedro parrokian, 20:00etan. Goian, parroquia horretako organo kontzertu bateko irudi bat.

Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketa; Nafarroa etorbidea 6, behe; 20400 Tolosa. Mugaguna azaroaren 26a da.

18 urtetik beherakoendako, 400 euro eta argitalpena, eta 200 euroko sariak daude; 18 urtetik gorakoendako, 600 euro eta argitalpena, eta 400 euro.

Argibideak: 943 65 50 04 telefono zenbakian / [kultura@galtzaundi.com](mailto:kultura@galtzaundi.com) posta elektronikoa helbidean / [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) webgunean.

## Antzerkia

ARETXABALETA

### > Kiki eta Moko pailazoen ikuskizuna egingo dute

Kiki eta Moko pailazoen ikuskizuna egongo da oraingo aste bukaeran, umeei zuzenduta. Sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, kultur etxeko Zaria aretoan, 17:00etan.

ARETXABALETA

### > 'Sommer jaunaren istorioa' delako antzezlanaren egingo dute

Txalo Produzioak taldeak *Sommer jaunaren istorioa* delako antzezlanaren egingo du. Jose Ramon Soroz da protagonista. Sarrera 10 euro da.

Patrick Süskind idazle alemanaren lanean dago oinarrituta antzezlanaren, Lourdes Oñederrak euskaratuta.

Inork ez du Sommerren izena ezagutzen. Horrexegatik hain justu deitzen diote izen horrekin: Sommer (uda). Ibili eta ibili, eta besterik ezean, ibiltzen jarraitzen duen gizon arrotza da herrian.

Datorren egubakoitzean, urriak 10, kultura etxeko Zaria aretoan, 22:00etan.

BERGARA

### > Helduendako ipuin kontaketa saioa egongo da egunean

Bea Egizabal ipuin kontakariak *Gu geu pertsonak* delako helduendako emanaldia egingo du datorren egunean.

Urriaren 9an, Aroztegin, 19:00etan.

## Musika

ARRASATE

### > Marc Houle eta Elektit-en emanaldia, 3.60 aretoan

Marc Houle (Kanada) eta Elektit-en musika emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Maritxu Kajoioko egitararen barruan.

Gaur, 3.60 aretoan, gauerdian.

OÑATI

### > Musika eskolako ikasle eta irakasleen kalejira dago bihar

Jose Azpiazu musika eskolako trikiti, pandero eta akordeoi ikasle eta irakasleak kalejira irango dira Herri Egunean. San Martin egoitzatik abiatuko dira 11:00etan.

14:00etan bukaera, Foruen plazan.

## Erakusketak

ARETXABALETA

### > Beatles taldearen inguruko erakusketa dago hil osoan

Pop musikaren aitzindari Beatles taldearen inguruko erakusketa multimedia dago kultur etxean urri osoan.

Honako elementuak ditu: panelak, talde osoaren eta taldekide bakoitzaren ingurukoak; merchandising-a, musika eta ikus-entzunezkoak; diskoak; biografia...

Bisita ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

### > Mari Paz Alustizaren margolanen erakusketa, Aroztegin

Mari Paz Alustizak hainbat margolan jarriko ditu erakusketan Aroztegi aretoan. Urriaren 10ean, egubakoitza, irrikiko dute erakusketa, eta azaroaren 2an itxi.

Bisita ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan: 12:00-14:00.

OÑATI

### > Corpus prozesioko irudiak erakusketan ipini dituzte

Corpuseko prozesioko irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoek.

Parrokian daude ikusgai, honako ordutegian: zapatuetan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30; domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan, 17:30-20:30.

Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik erakusketa.

BERGARA

### > Maddi Mujikaren margolanak daude Nahikari tabernan

Maddi Mujika Arrizabalaga (Bergara, 1994) gaztetxoaren margolanak daude Nahikari tabernan urriaren 5a arte.

Edurne Erañaren gidaritzapean, azken hiru urteotan egindako dozena bat olio-lan eder daude ikusgai.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan dago erakusketa.

## Lehiaketak

OÑATI

### > San Migeletako ageriko margo lehiaketa jokatu dute

IV. Ageriko Pintura Lehiaketa jokatu dute etzi, Erro-saixo Egunean. Euskarri eta oinarri guztiak onartzen dira, eta edozeinek esku har dezake.

Euskarria markatzera eraman behar da kultura etxean, 09:00-11:00; bukatutako lana leku berera eraman behar da, 13:00-14:00. Bi kategoria daude: 16 urtetik beherakoak eta hortik gorakoak. Zortzi sari banatu dituzte: helduen

taldean, lehenengo saria 620 eurokoa da, eta gaztetxoenean, 100 eurokoa.

Epaimahaiaren erabakia egun horretan jakinaraziko da, 14:30ean.

Lanen erakusketa ipiniko dute urriaren 7tik 19ra, kultur etxean.

BERGARA

### > Film laburren lehiaketa deitu dute debagoiendarrendako

III. Film Laburren lehiaketa deitu du Bergarako Udalak. Debagoiensean bizi den edozein aurkez daiteke, bakarka edo taldeka, eta edozein hizkuntzatan. Gaia librea da eta film laburra, bideo-klipa, iragarkia, irudi muntaia, esketza, dokumentala, arte bideoa... edozein genero landu daiteke.

Muga-iraupena 30 minutu da. 400 eta 300 euroko sariak eta, bi horietan bergararrik ez badago, bergarar onenarena-

ko 150 euroko saria emango dituzte. Lanok Bergarako kultura etxean aurkeztu behar dira, eta azaroaren 3a da horretarako azken eguna.

Argibideak: [www.bergara.net](http://www.bergara.net), edo 943 77 91 60 telefonoan.

DEBAGOIENA

### > Komiki lehiaketa deitu du Tolosako Galtzaundi taldeak

Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarra Udalarekin elkarlanean, Ibarra Galtzakomik 2008 lehiaketa deitu du. Edozeinek parte har dezake, bakarka, eta bi kategoria daude: 18 urtetik beherakoak eta hortik gorakoak. Gaia librea izango da, eta ez dituzte onartuko eduki bortitz, sexista edo arrazistak edo intolerantzia bultzatzen dutenak.

Lanak euskaraz aurkeztu behar dira, honako helbidera: Galtzaundi Euskara Taldea;


## PROPOSAMENA

BERGARA

### > IX. Txotxongilo Mostrako hainbat emanaldi egunotan

Bergarako Txotxongilo Mostrako emanaldiez gozatzeko aukera dago egunotan. Gaur, egubakoitza, Iñaki Mata antzuolarraren kale antzerkia egongo da, besteak beste. Eta, bihar, zapatua, De Blauwe Hound-en *De Kleine Scala* izango da Munibe plazan, baita Richard Bradshaw-ren *itzalen antzerkia* eta Organik euskal taldearen *Malditas* delako lana.

Egitarau osoa dago [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean.



## ARRASATE

> **The Maharajas taldeak kontzertua egingo du**

The Maharajas taldeak kontzertua egingo du urriaren 24an, In Pure Spite (Bloody Hotsak) diskoa aurkezteko.

Talde veterano horrek bi irudi handi ditu gaur egun: Mathias, bere ahots kemen-tsuarekin, eta Jens Lindberg, 60ko garra bizirauten. In Pure Spite euren laugarren diskoa da, eta hor, erakusten dute garaje-rock etiketa txiki geratu zaiela eta benetako rock-and-roll talde bat direla.

Los Cretinos talde arrasate-arrak ere joko du gau horretan. Urriaren 24an, 3.60 aretoan.

## Bestelakoak

## ARETXABALETA

> **Alberto Iñurrategiren 'Begiz begi' dokumentala emango dute**

Alberto Iñurrategi mendiza-learen *Begiz begi* ikus-entzunezkoa emango dute. Dokumental horrek egungo mendizaleatasunari begiratua ematen dio eta, horren bidez, gizarteak mendiarekiko duen jarrera ere aztertzen du. Bestalde, alpinistak bere hausnarketak jakinaraziko ditu, zenbaitetan pentsamendu globalizatuaren aurka dauden hausnarketak. Horrez gain, bidaiariak helmuga berri bat hautatzeko orduan hartzen dituzten jokabideei ere egiten die tartea.

Eguenean, hilak 9, Arkupe kultur etxean, 19:30ean.

## ARETXABALETA

> **'Josetxiki'-ren oroitzapenen inguruko liburua, bihar**

*La Mancha nos dio un gudari. José María Horcajada (Josetxiki)* delako liburua aurkeztuko dute. Aretxabaletan bizi izandako Josetxiki-ren gerra garaiko oroitzapenak batzen ditu liburua horrek.

Bihar, zapatua, kultur etxean, 12:00etan.

## BERGARA

> **Jolasleku ibiltaria egongo da Simon Arrietan**

Jardun euskara elkartearen eskutik, jolasleku ibiltaria egongo da Simon Arrietan, ume eta gaztetxoek euskaraz jolas egiteko aukera izan dezaten.

Gaur, egubakoitza, 17:00etan.

## ARETXABALETA

> **Lehenengo jam inprobisazio eguna egingo du Jaikik**

Jaiki elkarteak Aretxabale-tako lehenengo jam saioa antolatatu du etzirako, domeka. Edozein joan daiteke. Lehenengo, beroketa joko batzuk egingo dituzte; gero, inprobisatzen joango dira. Antzerkiak, bertsolaritzak, musikak, dantzak, poesiak... denetarako tokia dago.

Norberak laguntzeko zerbait eraman dezake: ehun zati bat, instrumentu bat, CD bat, margoak...

Etzi, domeka, kuartel zaharrean, 18:00-18:30.



## Vicky Cristina Barcelona \*\*\*

Zuzendaria: Woody Allen.

Aktoreak: Javier Bardem, Scarlett Johansson, Penelope Cruz. AEB-Espainia, 2007. 96 min. 13 urtetik gorakoendako.

**V**icky Cristina Barcelona, Woody Allenen azken lana, nahiko bitxia da. Filmaren izenburua arraro samarra bada, ezohikoa da ere istorioari ematen zaion tratamendua. AEBetako bi neska (Rebecca Hall eta Scarlett Johansson) Bartzelonara doaz uda pasatzera. Han margolari andrezale batekin (Javier Bardem) harremanak izango dituzte. Eta osatzen den hirukotea laukote bihurtuko da margolariaren nahiko zorututa dagoen emazte ohia (Penelope Cruz) agertzen denean. Hori kontatzeko Allen komedia sentimentalera hurbiltzen da, baina nahiko modu askean: komedia da, baina ez ditu *gag* eta txiste gehiegi erabiltzen. Ikusleak eszena denak lotu ditzan, narratzaile bat azaltzen da. Hasieran pentsa dezakegu narratzailea, istorioan sartzen lagundu ondoren, desagertu egingo dela, baina ez da horrela; bukaeraino mantentzen da. Filmak pertsonaien artean sortzen diren harreman desberdinak pintzelkadaz osatzen ditu. Pertsonaiekin amodiorik buruz dauzkaten jarrera desberdinak erakutsiko dizkigute: Allen-ek ez du diskurtso bat egiten, airean uzten du ez dela amodiozko harremanen arrakasta bermatzen duen formula magikorik existitzen.

Espanian egingo den badago ere, filmak zerikusi handiagoa du Frantziako zinemarekin. Bartzelona eta Asturias agertzen diren arren, istorioa edozein lekutan gerta daiteke: aipatzen dituen gaiak eta pertsonaien arazoak askotan agertu izan dira Allenen filmetan, baina tonua desberdina da: ez ditu gauzak askorik lotzen, ezta garatzen ere. Amodioari buruzko portaeraz osatutako gertaldi batzuk beste-rik ez da. Agian filma gustuko ez duenak esan dezake zuzendariak gogo gutxirekin eginiko eta landu gabeko lana dela; niri, lortzen duen tonu etereo eta zehaztugabea atsegina egiten zait.

Antonio Zabala

## Zinema

ARRASATE  
AMAIA ANTZOKIA

Venganza  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

La momia. La tumba del emperador dragón  
Domeka: 17:00.

ELGETA  
ESPALDIA

Lila dice  
Eguaztena: 21:30.

OÑATI  
KULTURA ETXEA  
Ez da emanaldirik egongo.  
San Migel jaiki direla-eta.

EIBAR  
UNZAGA

Che, el argentino  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka:  
17:00, 19:30, 22:30.  
Astelehena, martitena  
eta eguaztena:  
19:30, 22:30.

GASTEIZ  
GURIDI

Vicky Cristina Barcelona  
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Mamma mia!  
19:45, 22:30.

Tropic thunder  
17:30, 20:00, 22:30.

Passengers  
22:30.

Reflejos  
17:30, 20:00, 22:30.

Hellboy 2  
12:15, 15:40.



## Lila dice \*\*\*

Frantzia-Italia-Erresuma Batua, 2004. Zuzendaria: Ziad Doueiri. Aktoreak: Valhina Giacante, Mohammed Khouas, Karim Ben Haddou. 89 min. 18 urtetik gorakoendako.

Lila 16 urteko neska ilehori ederra da. Izebarekin joan da bizi izatera arabiar familiak bizi diren auzo batera. Bi lagun Lilarekin maitemintzen dira. Chimo lasaia da narratzailea; bestea Mouloud lotsagabea da. Lila sedukzio joko hasiko du Chimorekin.

Gazte batzuen arteko sedukzioan oinarrituta dago *Lila dice*, Elgetan ikusgai.

Ekasaka: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

## Zohan, licencia para peinar \*\*\*

AEB, 2008. Zuzendaria: Dennis Dugan. Aktoreak: Adam Sandler, John Turturro.

113 min. 13 urtetik gorakoendako. Zohan eliteko gudari israeldarra da. Halako baten, hil egin dela sinistrazten du, bere bizitzako ametsa betetzeko: ile apaintzaile bihurtzea.

## El patio de mi cárcel \*\*\*

Espainia, 2008. Zuzendaria: Belén Macías. Aktoreak: Candela Peña, Verónica Echegui. 99 min.

Kartzelan bizi diren emakume batzuen istorioa da: Isa Ispaña, Dolores, senarra hil duena; Rosa, prostituta... Mar kartzela funtzionarioa iristen denean, antzerki talde bat osatuko dute.

## El niño con el pijama de rayas \*\*\*

Erresuma Batua-AEB, 2008. Zuzendaria: Mark Herman. Aktoreak: Asa Butterfield, Vera Farmiga, David Thewlis.

No me pidas que te bese porque te besaré  
17:30, 20:00, 22:30.

Asesinato justo  
17:30, 20:00, 22:30.

Che, el argentino  
17:00, 20:00.

## FLORIDA-GURIDI

Juego de matrimonio  
17:30, 20:00, 22:30.

Los limoneros  
17:30, 20:00, 22:30.

El niño con el pijama de rayas  
17:30, 20:00, 22:30.

Sangre de mayo  
18:00, 21:00.

Los girasoles ciegos  
17:30, 20:00.

Tiro en la cabeza  
18:00, 20:15, 22:30.

Batalla en Seattle  
18:00, 20:15, 22:30.

La desconocida  
22:30.

YELMO  
CINEPLEX-GORBEIA

Asesinato justo  
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Che, el argentino  
18:45, 21:30, 00:15.

Reflejos  
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Wanted (se busca)  
17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

Viaje al centro de la Tierra  
12:15, 16:05, 18:05, 20:05.

La isla de Nim  
12:15, 15:55.

Hellboy 2  
12:15, 15:40.

Los girasoles ciegos  
17:55, 19:55, 21:55, 23:55.

El niño con el pijama de rayas  
12:15, 15:50, 17:50, 19:50, 21:50, 23:50.

Tropic thunder  
17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

Vicky Cristina Barcelona  
18:35, 20:35, 22:35, 00:40.

Los extraños  
20:15, 22:15, 00:15.

El caballero oscuro  
22:00.

Wall-E  
12:15, 16:15, 18:15.

Mamma mia!  
12:15, 16:00, 18:10, 20:20.

La carrera de la muerte  
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Espíritu del bosque  
12:15, 16:15.

Atrapado en un pirado  
12:15, 15:30.

Passengers  
22:25, 00:25.

Babylon A.D.  
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Space chimps  
12:15, 16:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Babylon A.D.  
16:05, 18:15, 20:20, 22:35, 00:45.

La isla de Nim  
16:15.

El niño con el pijama a rayas  
16:05, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Death race, la carrera de la muerte  
16:10, 18:15, 20:30, 22:40, 01:00.

Tropic thunder  
16:00, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.

Wanted (se busca)  
15:50, 18:05.

El patio de mi cárcel  
20:10, 22:20.

No me pidas que te bese porque te besaré

16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:30.

Passengers  
16:20, 18:25.

Vicky Cristina Barcelona  
20:25, 22:30.

Asesinato justo  
16:00, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

Reflejos  
15:50, 18:10, 20:25, 22:45, 01:00.

Atrapado en un pirado  
16:10, 18:15.

Los extraños  
20:25, 22:25.

Che, el argentino  
19:15, 22:10.

Sangre de mayo  
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

## nire aukera



Joxe Mari Bengoa  
Artzain txakurren lehiaketa Oñati

## "Bartzelonara noa asteburuan"

**J**ai daukadanean mendira joaten naiz, txabola bat dugu eta aprobeztatu egiten dut. Txakurren inguruko gauzeekin ere denbora asko pasatzen dut: datorren asteburua, adibidez, Katalunian emango dut, Bartzelonan, artzain txakurren txapelketa bat dago eta. Artzaina ez izan arren, giro horretan asko ibiltzen naiz. Beraz, ezin izango naiz Herri Egunean egon.

Arratsaldeetan kalean bueltatxo bat eman eta lasai egotea gustuko dut. Baserri inguruko kontuak ere sarri egiten ditut: pistak garbitu edo dena delakoa, ni ez naiz inoiz aspertzen.

**Asteburu honetan ezin izango zara herriko jaietan egon, baina aurrekoa aprobeztatu al zenuen?** Lehiaketa eta gero kalean egon nintzen. Errekortadoreen ikusizunean izan nintzen eta plazako taldearen kontzertua ere ikusi nuen gauean.

**Bartzelonara zoaz bihar.** Bai. Urtero, aspalditik, hango txapelketara joaten gara Euskal Herriko ordezkariekin. Bertan egongo gara astelehena arte. Herri Eguna askotan galdu izan dut.

**Oñatiko artzain txakur lehiaketarekin gustura geratu al zinen?** Bai. Oñatira beti etortzen dira inguruan txapeldunak izandakoak, eta beraz txakurraren kalitatea bermatuta dago. Proga mota bat aldatzeko asmoa dago datorren urtean, banderekin arazoak izaten dituztelako kanpotik datozenek.

**Hurrengo lehiaketa 50.a izango da.** Hala da. Kultura mailan gauza gehiago sartu nahi ditugu, bazkari bat egiteko asmoa ere badago... gauza asko ditugu buruan.

**Txakurrez aparte zalea zara?** Mendi edo baso inguruan ibiltzea gustuko dut eta makilak ere egiten ditut.

# Berokuntza sistema merkea

**ENERGIA BERRIZTAGARRIA** Burgosen duen etxean ura berotzeko material birziklatuak erabili ditu Gerardo Diazek

**MATERIALAK** Erradiadore eta ur-berogailu elektrikoaren biltegi zaharra eta material isolatzaileak behar izan ditu

**50 GRADURA** Arrasatearraren arabera, eguzki izpien bidez ura 50 gradu izatera irits daiteke uda partean

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Gerardo Diaz arrasatearra lanpetuta ibili da uda partean, Burgosko Cubo de Bureba herrian duen etxean eskuz egindako berokuntza sistema jartzen. Pozik dago egindakoarekin, udan ez du eta zentimo bat bera ere gastatu ura berotzeko: "Ez du elektrizitaterik ezta gasik behar eta ez du ingurumena kutsatzen. Guztira, 30 euro gastatu ditut materialetan".

Birziklatutako materialak erabili ditu arrasatearrak. Beltzez margotutako kutxa batean erradiadore zahar bat sartu du; kolore berean margotu du eta beirarekin kutxa hori itxi du. Eguzkiaren izpiek erradiadoreak duen ura berotzen dute eta termosifoi efektuaren eraginez, ondoan dagoen ehun litroko biltegi batera igotzen da ura. Biltegi hori material isolatzaileekin forratu eta hori beltzez margotu du, ur beroa mantentzeko. Handik hodian bitartez garraiatu du etxe barrura.

Esan bezala, horrekin berotu du etxean erabilitako ura: "Zenbaitetan bost pertsona egon gara

etxean eta sistema horren bidez lau lagun dutxatu dira, jarraian. Dutzatzerakoan erabiltzen den ura kontrolatu behar da, besterik ez; ur-berogailu elektrikoekin bezala. Egun eguzkitsuetan, ura 50 gradu izatera hel daiteke". Aipatu du, horren harira, solairu bateko edo familia bakarreko etxeetarako egokia eta eraginkorra dela.

**IDEIAK SHANGAITIK**

Aspaldiko ideia da hori: "Eguzki izpiengatik, lorategia ureztatze-ko mahukatik ateratzen zen ura beroa zela eta hori aprobetxagarria izan zitekeela uste nuen". Ideiak, baina, Shanghaira egindako lan-bidaian hartu zituela zehaztu du: "Hiri kanpoko eta nekazaritza zonetako etxeen teilatuetan ura berotzeko huts-hodiko aparailuak zituztela ikusi nuen. Niri, erradiadorearekin berdina egitea bururatu zitzaidan".

Diazek hamabost egun behar izan ditu berokuntza sistema egiteko. Ondoan, Iñigo eta Erik izan ditu laguntzen.



Gerardo Diaz arrasatearra, Burgosko Cubo de Bureban eskuz egin duen berokuntza sistemarekin. JESUS MATIAS / 'DIARIO DE BURGOS'

## ahobero

**"Herritarrak lasai egon daitezke, euren aurrezkiak ez daude-eta arriskuan Espainiako finantza-etxeetan"**

Pedro Solbes > Ministroa

Horixe da asteon Espainiako Ekonomiako ministroak adierazi duena. Falta zitzaiguna! Gure izerdiarekin aurrez dezakegun diru apur barik geratzea orain. Batzuen kudeaketa txarragatik aurrezki barik gera gaitzkeela pentsatzea ere lotsagarria da.

## iturri onetik

**Bergarako Aritzetako San Migel auzoko ermita konpontzea erabaki dute**

Bergarako Aritzetako San Migel auzoko ermita konponduko dute. Horixe baieztatu digu egunotan Bergarako alkate Agurne Barrusok. Horrekin batera jakinarazi du, eraikina elizarena bada ere, Udalak lagunduko duela konponketa lanen finantziazioan; herriko ondarea mantentze aldera. Balore handiko ermita da Aritzetako San Migel auzokoa; XVI. mendekoa.

## piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

### Erronda garestia

**L**ehenik, beldurra sartu digute: finantza sistemaren krisia sakona eta larria da, ondorioak imajina ezinak izan daitezke, konfiantza berreskuratu beharra dago luze baino lehen...

Bigarren urratsa, miraria saldu: inoizko plan eta neurriak ausartenak hartuko dira kalteei aurre egiteko, krisiaren bilakaera eten eta hazkunde egoerara itzultzeko, datorren urtean seguruenik...

Hirugarren: hori bai, erronda garestia da...

Laugarrena neuk botako dut. Bale, onar daiteke krisia eteteko dirutza publiko itzela erabiltzea, baina baldintzekin: kargu hartu behar zaie erantzule zuzenei, merkatua zorrotz arautu behar da berriro horrelakorik gerta ez dadin, eta ez dezala inork krisia erabili -bide batez- soldatapeko langileok izorratzeko.

## ai, ene!



**Bide horretatik gidatzeko ausardia behar da gero!**

Errepide hori margotzeaz arduratu zena ez zen oso fin ibili egun hartan. Bakoitzaren bidetik ibiltzea ez da lan makala.

[www.taringa.net](http://www.taringa.net)



## Denentzat...

**Maalako Errabala 13  
ARRASATE  
943 79 92 76**

**UNITED COLORS  
OF BENETTON.**